



*Pertsona  
Helduen  
Herakuntza*



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

---

*Pertsona*

*Helduen*

*Herkuntza*

EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 1995

<b>IZENBURUA:</b>	"Pertsona Helduen Hezkuntza"
<b>EGILEA:</b>	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea Manuel Iradier, 36 - 01005 Vitoria-Gasteiz
<b>KOORDINATZAILEA:</b>	Ana Rincón
<b>DATA:</b>	Urria 1995
<b>ALE ZENBAKIA:</b>	1.000
<b>ORRI ZENBAKIA:</b>	408
<b>DESKRIBATZAILEAK:</b>	Helduen hezkuntza, hezkidetzak, lanbide orientazioa, buru irudia, kasu ikaslanak, ihardunaldiak
<b>IRUDI DISEINUA:</b>	Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia
<b>ILUSTRATZAILEA:</b>	M.º José Gamboa
<b>FOTOKONPOSATZAILEA:</b>	RALI, S.A. C/ Particular de Costa, 8-10. 48010 BILBAO
<b>INPRIMATZAILEA:</b>	Gráficas Santamaría, S.A. Bekolarra, 4. 01010 VITORIA-GASTEIZ
<b>ISBN:</b>	84-87595-37-5
<b>LEGE GORDAILUA:</b>	VI-425/95

## HELDUEN HEZKUNTZARI BURUZKO IHARDUNALDIAK

### Emakumezkoen kolektiboaren espezifikotasuna

1994ko martxoak 24-25

#### Martxoak 24:

- 9,30etan.- HASIERA  
FERNANDO BUESA BLANCO Jn. T. G.  
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntzako Sailburua  
  
Kordinazioa:  
ANA AGIRRE SAEZ DE EGILAZ And.  
Hezkuntza arduraduna EMAKUNDEn/Emakumearen Euskal Erakundea
- 10,00etan.- "Hezkidetzak-ikuspegia Helduen Hezkuntzan"  
MARIVÍ DEFAUCE POZO And.  
Hezkidetzak aholkularia Donostiako Orientabide Pedagogiko Zentroan (C.O.P.) eta H.H.I.an aritutako irakaslea.
- 11,00etan.- "Emakumezko helduen hezkuntza: gaitzeko, integratzeko eta askatzeko tresna."  
ROSA PEÑALVER PÉREZ And.  
M.E.C.ko irakaskuntza aholkulari teknikoa Murtzian.
- 12,00etan.- ATSEDENALDIA
- 12,30etan.- "Helduen Hezkuntzaren curriculumaren oinarriak"  
ANA AYUSTE GONZÁLEZ And.  
Helduen hezitzailea eta Bartzelonako Unibertsitateko (CREA) Helduen Hezkuntzako Ikertegikoa.
- 13,30etan.- "Emakumezkoen lanaren balorazioa euren hezkuntzaren oinarri gisa"  
SOLEDAD MURILLO DE LA VEGA And.  
Salamanca Unibertsitateko Gizarte Zientzien Fakultateko irakaslea
- 14,30etan.- BAZKARIA  
Kordinazioa:  
M<sup>re</sup> JOSÉ URRUZOLA ZABALZA And.  
Hezkidetzak-aholkularia Deustuko Orientabide Pedagogikoko Zentroan.  
Euskadiko emakumeentzako Ekintza Positiborako Egitasmoaren Hezkuntza Arloa taiutu zutenenetako laguntzailea.
- 15,30etan.- "Emakumeentzako oinarriko irakaskuntzarako esperientzia alternatiboa"  
M<sup>re</sup> CARMEN LATORRE ATANCE And.  
H.H.I.ko irakaslea Valentziako San Marcelino Auzoan
- 16,15etan.- "Ikasleek beren buruaz duten ideia eta istimoa hobetzeko H.H.I.ak ematen digun eskarmentua"  
ROSA LERTXUNDI LIZASO And.  
H.H.I.ko irakaslea Hernanin (Gipuzkoa).

17,00etan.- "H.H.I.ko Ikastetxearen antolaketa emakumezkoen beharrianak ere kontutan izanik"  
TOTOIA GARCÍA MARROQUÍN And.  
Basauriko (Bizkaia) H.H.I.eko Ikastetxea.

18,00.- IHARDUNALDIAREN AMAIERA

### **Martxoak 25:**

Koordinazioa:

MAITE ARANDIA LOROÑO And.

Bizkaiko Maisutzako Unibertsitate-Eskolako H.H.I.ko Gradu-ondokoaren arduraduna.

9,30etan.- "De otra manera". Helduen Hezkuntzarako Koadernoak  
ANA MAÑERU MÉNDEZ And.  
Helduen Hezkuntza Iraunkorrerako Egitasmoaren (P.E.P.A.) arduraduna.  
Emakumearen Erakundea. Madril.

10,30etan.- "Helduen Hezkuntza Andaluzian". M.A.R.E.P. Egitaraua  
M<sup>a</sup> ÁNGELES LÓPEZ RUIZ And.  
H.H.I.ko Zerbitziburua. Hezkuntza eta Zientzia Saila. Andaluziako Junta.  
Sevilla.

11,30etan.- "Emakumeen Promozio Zentroak eta enplegurako hezkuntzan duten eragina".  
MARISA RODRÍGUEZ IGLESIAS And.  
Abokatu Gipuzkoako Famili eta Gizarte Zentroetako (C.F.F.S.) enplegurako ikastaroen koordinatzailea.

SATUR ABÓN PÉREZ And.

"Bagabiltza" Elkartearen Zentro Profesionalaren Zuzendaria. Bilbo.

12,30etan.- ATSEDENALDIA

13,30etan.- Mahaingurua: "H.H.I.ren eragina lanbide-orientazioan".

MODERATZAILEA:

MANUEL BENITO GÓMEZ Jn.

Hezkuntza Ikuskari teknikoa eta Helduen Hezkuntza Eguneratzeko lehengo Egitasmoaren antolatzailea.

MARISA TROYANO ESPINO And.

Donostiako INEMeko Informazio eta Lanbide-Orientazioaren Arloko arduraduna.

JOSE MARÍA ALONSO ALONSO DE LINAJE Jn.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saileko Curriculum-Garapenerako Erakundeko H.H.I.ren koordinatzailea. Bilbo.

LOURDES UNZUE BARBIER And.

Errenteriako H.H.I.ko irakaslea.

---

M<sup>o</sup> ÁNGELES LÓPEZ RUIZ And.

Hezkuntza eta Zientzia Saileko H.H.I.ko Zerbitzburua. Andaluziako Junta. Sevilla.

15,00etan.-

AMAIERA

TXARO ARTEAGA ANSA And. T. G.

EMAKUNDE/ Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaria

---

## **AURKIBIDEA**

<b>AURKEZPENA</b> .....	11
<b>HEZKIDETZA-IKUSPEGIA HELDUEN HEZKUNTZAN</b>	
Mariví Defauce Pozo .....	13
<b>EMAKUMEZKO HELDUEN HEZKUNTZA: GAITZEKO, INTEGRATZEKO ETA ASKATZEKO TRESNA</b>	
Rosa Peñalver Pérez .....	31
<b>HELDUEN HEZKUNTZAREN CURRÍCULUMAREN OINARRIAK</b>	
Ana Ayuste González .....	47
<b>EMAKUMEZKOEN LANAREN BALORAZIOA EUREN HEZKUNTZAREN OINARRI GISA</b>	
Soledad Murillo de la Vega .....	71
<b>EMAKUMEENTZAKO OINARRIZKO IRAKASKUNTZARAKO ESPERIENTZIA ALTERNATIBOA</b>	
M <sup>o</sup> Carmen Latorre Atance .....	79
<b>IKASLEEK BEREN BURUAZ DUTEN IDEIA ETA ISTIMOA HOBETZEKO H.H.I.AK EMATEN DIGUN ESKARMENTUA</b>	
Rosa Lertxundi Lizaso .....	105
<b>H.H.I.KO IKASTETXEAREN ANTOLAKETA EMAKUMEZKOEN BEHARRIZANAK ERE KONTUTAN IZANIK</b>	
Totoia García Marroquín .....	115
<b>“DE OTRA MANERA”. HELDUEN HEZKUNTZARAKO KOADERNOAK</b>	
Ana Mañeru Méndez .....	127

---

## **HELDUEN HEZKUNTZA ANDALUZIAN. M.A.R.E.P. EGITARAUA**

M<sup>o</sup> Ángeles López Ruiz ..... 143

## **EMAKUMEEN PROMOZIO ZENTROAK ETA ENPLEGURAKO HEZKUNTZAN DUTEN ERAGINA**

### FAMILI ETA GIZARTE HEZIKETAKO ZENTROAK

Marisa Rodríguez Iglesias ..... 159

### BAGABILTZA ELKARTE SOZIOKULTURALA

Satur Abón Pérez ..... 165

## **MAHAINGURUA: H.H.I.REN ERAGINA LANBIDE-ORIENTAZIOAN**

### EMAKUMEA ETA LAN MERKATUA GIPUZKOAN

Marisa Troyano Espino ..... 175

### H.H.I.REN EGINKIZUNA EMAKUMEZKOEN LANBIDE-ORIENTAZIOAN

José M<sup>o</sup> Alonso Alonso de Linaje ..... 185

### H.H.I.REN EGINKIZUNA LANBIDE-ORIENTAZIOAN H.H.I.KO IKASTETXE BATEN IKUSPEGITIK (ERRENTERIA)

Lourdes Unzue Barbier ..... 191

## *Aurkezpena*


Emakundek bere Ekintza Positiborako Planean jasotzen dituen helburuen artean aurkitzen da Euskal Autonomi Elkarteko emakume helduen heziketarako eskaerari erantzuteko prestakuntza iraunkor, anitz eta berezitua eskaintzea, maila desberdinetan eratu eta bakoitzearen premietara egokitua. Horrela, bada, pertsona bakoitzaren prestakuntza osoa lortu nahi da, gizonezko eta emakumezkoen artean dauden desberdintasunak gaintzeko, lan-merkatura baldintza berdinetan iritsi, pertsonen arteko harremanak aberasgarriak izan, gizartean partaidetza eraginkorragoa bete eta aisialdiak hobeto gozatzeko izan dadin.

HHko ikastaroetan parte hartzen duten emakumerik gehienak familiari eta etxeko eremuari lotuta egon izan dira. Hau da, ezinbestekoa izan arren, gizarteak ez balioetsi ez eta onartu ere egiten ez duen lanari ekin izan diote; eta ondorioz, beren burua aintzakitatzat ez hartzea sorrarazten zaie eta handia da gizarte, lan, kultura eta politikan parte hartzeko garaian jasaten duten segurtasunik eza. Hala ere, pertsona horiek ikasteko duten gaitasuna ez da murriztu, ikasteko prozesua aldatu baino ez baita egin; izan ere, indartuta agertzen delako, beren interes bereziak eta lortutako eskarmentua oinarri direla egiten denean.

Beraz, Helduen Hezkuntza emakumeak gaitu, integratu eta askatzeko denaz, beren buruen, beren ezagutzen eta beren trebezien balioespen positiboa lortzeko tresnen garapena indartu behar da hezkuntza horren bidez, bai beren buruak garatzeko, bai lanbiderako, prestakuntza onuragarria izan dezaten. Emakumeek beren prestakuntza prozesuan parte zuzena hartuko duten komunikazio eremuetan izango da hori guztia. Gainera, etengabeko prestakuntza prozesu hori gaurkotasunean oinarrituta egin behar da, etorkizuna ikusmiran dela.

Hartara, ezinbestekoa da irakasleak prestatzea, prozesu horiek bideratu ditzaten eta baliabideak eman beharko zaizkie, hain zuzen ikasle dituzten emakumeek beren buruak aintzakitatzat hartu eta beren jarreretan tinko eta ausart ager daitezen. Era berean, material didaktikoak ere erabiltzen dituzten pertsonen interes eta premietara egokitu behar dira.

Azkenik, helduentzako egokiak diren hezkuntza egintzak egiteko, behar-beharrezkoa da hezkuntzan diharduten profesional guztiak, bai gizonezko zein emakumezkoak, erakundeak eta gizarteko beste eragile batzuk denak batera ahalegintzea; izan ere, horretan laguntzeko egiten du argitalpen hau Emakundek berak ere.



Txaro Arteaga Ansa  
EMAKUNDE/Emakumearen  
Euskal Erakunde Zuzendaria

---

**MARIVÍ DAFAUCE POZO**  
Hezkidetzaren aholkularia  
Donostiako Orientabide  
Pedagogiko Zentroan (C.O.P.)  
eta H.H.I. an aritutako  
irakaslea

*Hezkidetzaren*

*-itxuspegia*

*Helduen*

*Hezkuntzan*

### 1.

Hezkidetzak kontzeptua erabili aurretik, emakumeen hezkuntzaren historiari erreparatuko diogu, hain zuzen ere, non gauden eta nondik abiatzen garen jakiteko.

Ondoren Helduen Hezkuntzaren ezaugarri eta printzipio nagusiak ikusiko ditugu.

Gero, sexuen-generoen desberdintasunari buruzko zenbait erreflexio egingo ditugu. Guzti honekin, eta H.H.I. ikasten duten emakumeen ezaugarriak kontutan izanik, maila honetako hezkidetzazko ikuspegia azaltzeko baliagarriak izan daitezkeen abiabide batzuk ezartzen ahaleginduko naiz.

## *Emakumearen hezkuntzaren ibilbide historikoa*

Jakina da historian zehar emakumeak ez duela protagonismo handirik izan. Gizartean bigarren maila batera zokoraturik egon da, eginkizun mugatu bati lotua, gizonaezkoengandik bereizirik, desberdintasun nabarmena jasanez. Birtutetsua eta menpekota izateko eta etxe-koandreaken eginkizunak behar bezala betetzeko hezia, harentzat "naturak atxikitako" eginkizunerako baliorik ez zuten ezagutzak bereganatzea ez zela beharrezkoa kontsideratzen zen.

Iraganean arimarik ote zuen ere eztabaidatzen zen. Gizonezkoa zen haren jabea eta berak ez zeukan jabetzarik izateko eskubiderik.

Kristo aurretiko kulturetan -feniziar, greko, kartagotar eta erromatarra-emakumearenganako ohiturak eta irakaskuntzak etxeko hezierari lotuta dagoz batipat.

Kristautasunarekin ere emakumearen zoria ez zen askorik aldatu. Gizonezkoei bezalako erlijio-ikaskuntza ematen zaie, gerora seme-alabak kristautasunean hazteko ardurak dagokielako.

Erdi Aroan ez dute inolako eskubiderik hezkuntzari dagokionez. XV eta XVI. mendeetan, inprimategiaren zabalkundea dela-eta, ikasteko eta kultura hartzeko kezka nabarmendu zen nobleziarengan eta erregeengan batez ere.

Europar, orohar, XVII. mendean zehar finkatzen da hezkuntza sistema. Garai horretan argi dago gizakiak hezi beharra daukala. Arazoa eta zalantza bestelakoa da, hots, ea neskatoei ere irakaskuntza eman behar ote zaien eta, hala balitz, nolako heziera behar ote duten gizartean dagokien eginkizunaren arabera, hots: emazte eta ama izatea.

Nesken hezkuntzaz arduratzen diren Erlijio-Kongregazio anitz sortzen dira, hots, Karmeldarrak, Ursulinak, Salesiarrak, etab.

Herriko Adiskideen Elkarte Ekonomikoak ere arduratuko dira hezkuntzaz. Euskal Herrian, hain zuzen, SBAP delakoak nesken hezieraz ere arduratzen zen eta emakumeari zegozkion lanak irakasten zizkien.

Rousseauk, Emiliori eman beharreko hezkuntza dela eta, nortasun askea garatzeko begirunean oinarritutako hezkuntza aldarrikatzen du, gizakia independentea, askea, burujabea, bere iritziak dituen... izatera hel dadin. Sofiarentzat, ordea, guztiz alderantzizkoa plante-

---

atzen du, hau da, gizonezkoaren, eta kasu honetan Emilioren, zerbitzura egongo den eta haren emaztea eta bere seme-alaben ama izango den menpeko nortasuna garatu behar duen hezkuntza; bai eta horretarako emakumearen nahiaren aurka jokatu beharra badago ere.

Espainian ere ume guztientzako hezkuntzaren aldeko joera da nagusi, nahiz eta hezkuntza hori ezberdina eta toki bereizietan emana izan. Carlos III.ak Erret Zelulaz ezarri zituen neskatoentzako auzo-eskolak, berorietako irakaskuntza "emakumeen gaietan" (jostura, otoitza) oinarritzen zen. 1821ean agindu zen neskatoek irakurtzen, idazten eta zenbatzen ere ikas zezatela.

Hala eta guztiz ere, emakumezkoek debekaturik zuten erdi-mailako eta goi-mailako ikasketak egitea. 1840an, Concepción Arenal gizonez jantzi behar izan zuen Unibertsitatean sartu ahal izateko.

1857an, Moyano Legeak ezarri zuen oinarritzko ikasketak derrigorrezkoak zirela ume guztientzat, bai mutikoentzat eta bai neskatoentzat. Honek eskubidea aitortzen dela esan nahi du, baina ez neskato guztiak eskolaratzen direnik, eskolak eta ekonomi baliabideak urriak baiziren.

1858an sortu zen Maistrentzako lehenengo Eskola Normala eta 1868an Unibertsitatean sartzeko baimena eman zitzaien emakumezkoek, beti ere euren tutoreen babespean.

XIX. mendearen amaieran, EE.BB.etan eta Europako zenbait herrialdetan, Suedia, Norvegia..., mutikoentzako zein neskatoentzako heziera berbera ezartzearen aldeko joerak agertu eta nagusitzen dira. Europako beste zenbait herrialdetan (Italia, Frantzia, Espainia, Portugal...), ordea, XX. mendearen hasieran, oraindik, eztabaida bizia dago gai honen inguruan eta, horrenbestez, abangoardiako ikastetxe batzutan baino ez dago benetako hezkidetzaren edo eskola mistoa. Espainian, "La Escuela Nueva" deritzona ageri zen eskola mistoaren alde, berdintasuna eta demokrazia lortzeko.

Emilia Pardo Bazán, Herri-Heziketako sailburua zela, maila guztietako berdintasunaren alde agertu zen, baina ez zioten onartu. 1876tik 1938ra bitartean, esperimentu-mailako eskola misto bakarra dago, "Instituto Libre de Enseñanza" zena, eta 1901etik 1906ra bitartean Ferrer i Guardiolen "Escuela Moderna" zena.

II. Errepublikarekin batera ireki zitzaizkion emakumeari gizonarentzako bezalako heziketaren ateak eta haiekin batera ikasteko aukera. Espainiar legerian aurreneko aldiz agertu zen hezkidetzaren kontzeptua oinarritzko hezkuntza-printzipio gisa: "la educación pública debe

---

atender conjuntamente a alumnos de uno y otro sexo, haciendo de la coeducación un principio pedagógico aplicable a todos los grados de enseñanza”.

Gerra zibilaren ostean frankismoaren garai luzea etorri zen eta neskatoen eta mutikoen baterako heziketa galerazi zen Mugimendu Nazioanalaren erlijio-printzipioen kontrakoa baitzen eta “conduce a desórdenes sexuales y produce frutos patológicos de orden moral, físico y religioso” eta antzerakoak ere esan ziren.

Villar Palasí ministroaren 1970eko Hezkuntzako Lege Orokorra ez du debekatzen ez eta preskribatzen hezkidetzaz. Harrez gero, eskola mistoa finkatuz eta hedatuz doa. Finkapen hori, ordea, oso zaila suertatu da ikastetxe pribatuetan. Hezkuntzan ez dela arrazoi sexualengatiko desberdintasunik aldarrikatzen da: “las diferencias que se establezcan se deberán atribuir exclusivamente a las diferencias naturales individuales”.

Emakumearen askatasunen aldeko mugimendu feministek berrekiten diote eztabaidari hezkuntzaren berdintasuna itxurazkoa besterik ez dela ikustean. Europako Ekonomi Elkarrekin esparru ezberdinetako ekintza programak prestatzen dizkie elkartutako herrialdeei, praktikara eramateko aginduaz.

M.E.C. delakoak eta Autonomi Elkarrekin, bai eta gureak ere, irakasleak ikastetxeetako Klaustrorik sentsibilizatzeko programak garatzeko azpiegitura atontzeari ekin diote, ikastetxeko proiektuek hezkuntzan oinarrituak izan daitezkeen. L.O.G.S.E. delakoak bere egin du agindua eta, hezkuntzan, sexuen arteko berdintasuna aldarrikatzen du bere printzipio eta helburuen artean.

Nolabaiteko laburpena eginez, emakumea hezkuntza sisteman integratu denetik hiru eratako eskola daudela esan daiteke, hots:

- Eskola berezia: eredu maskulino bat eta eredu femenino bat daude, eremu eta programa ezberdinak dituztenak. Horren ondorioz, erazko eta benetako bereizketa nabari da.
- Eskola mistoa: eskola-eremu berberak eta programa berberak dituzten mutiko eta neskatuak, orain arte mutikoentzat erabili direnak; eredu maskulino bat dago eta femeninoa hartara egokitua. Beraz, erazko berdintasuna dago, baina benetako desberdintasuna ere bai.

Era honetako eskola da arruntena gaur egungo ikastetxe gehienetan.

- Hezkidetzako eskola: pertsona integratua du eredu, sexuaren araberako hierarkiarik gabekoa balore eta gaitasunei dagokienez. Horrela benetako berdintasuna dago. Hauxe da nahi dugun eskola.

### 3.

## *Helduen Hezkuntzaren eremua*

L.O.G.S.E.k hurrengo helburuok ezartzen ditu:

- a) oinarrizko heziketa jaso eta eguneratzea eta hezkuntza sistemaren maila desberdinetarako sarbidea erraztea;
- b) helduen gaitasun profesionala hobetzea edo beste lanbide batzutan aritzeko prestakuntzaz jabetzea;
- c) gizartean, kultura-munduan, politikan nahiz ekonomi arloan parte hartzeko gaitasuna garatzea.

(III. titulua, 51. art. 2. puntua).

Hortaz, Curriculum Diseinu baten mugatu beharreko gaitasunek Hezkuntza sistemak derri-gorrezko oinarrizko heziketan proposatzen dituen berberak, gutxienez, izan beharko dituzte:

- eztabaidatzeko gaitasuna;
- pertsonen arteko harremanetarako gaitasuna;
- gizartean parte hartu eta moldatzeko gaitasuna;
- autoestimaziorako gaitasuna;
- komunikaziorako gaitasuna;
- lanean integratzeko eta lanbide hobekuntzarako gaitasuna;
- burujabe izateko gaitasuna;
- ezagutzazko gaitasuna;
- mugimendurako gaitasuna;
- oreka pertsonalerako gaitasuna.

Dela hezkuntza sistematik behar baino lehenago irten behar izan dutelako, dela eskolatzetik izan ez dutelako, eskola-arloan euren heziketa burutzeko, emakumezkoek jasan duten be-reizkeria kontutan harturik, aipaturiko gaitasunak garatzeko aukerarik ere ez izateaz gainera, haietako zenbait (autoestimazioa, burujabetasuna, gizartean parte hartzekoa) bazterturik geratu dira "emakume" izateagatik.

Hezkuntza gizakiaren garapen osoa bada, eta curriculum-proiektuak printzipio horren arabera garatu behar badira eskolaurrean, lehenengo mailako irakaskuntzan eta bigarren mailakoan; helduentzako hezkuntzako curriculumak lantzen direnean ere kontutan hartu beharra dago.

Horregatik dugu beharrezkoa gizartean gizonezkoek eta emakumezkoek betetzen dituzten rol, eginkizun eta estereotipo desberdinei buruzko hausnarketa bat egitea.

---

## 4.

# *Hitzak direla-eta zenbait argitasun*

### 4.1

## **SEXUAREN ETA GENEROAREN ARTEKO BEREIZKETA**

“Sexu” hitza arra eta emea ugalketa-arloan bereizten dituen ezaugarri biologikoari dago-  
kio. Gizakien artean bi sexu daude, arra-maskulinoa eta emea-femeninoa. Bereizketa honek  
ez ditu nahitaz jokoerak mugatzen.

“Genero” hitzaz, berriz, gizarte bakoitzean sexu bakoitzari atxikitzen zaiona adierazten  
da, hau da, gizarte mailan maskulinoztat edo femeninoztat jotzen dena. Izaera eta portae-  
razko kode honen edukia ez da berdina kultura eta garai historiko guztietan, nahiz eta beti  
duen ezaugarri amankomun bat, hots: sexuaren araberako gizarte antolaketa, edo lanaren  
banaketa sexuala.

Emakumeak nahiz gizonezkoak gizarteak sexu bakoitzari atxikitako arau desberdinekin du-  
ten loturak sortarazten ditu rol eta estereotipo desberdinak.

Rola, edo gizarte-zeregina, gizaki batek gizarte batean duen egoeratik edo statusetik era-  
torritako eginkizun eta zeregin-multzoa da. Emakumeari atxiki ohi zaizkion rolak amatasu-  
nari dagozkion eginkizunetatik eratorriak dira: seme-alaben zaintza eta babes, etxeko  
munduari eustea, familiaren maitasun-arloaren euskarri izatea eta gizonezkoaren osagarria.  
Gizonezkoaren ohizko rolak, aldiz,ekonomi euskarria izatetik, gerretatik, gizarte antola-  
mendutik edo politikatik, familiaz kanpoko harremanetatik, lanbide edo lanetik, hau da, mun-  
du publikoa deritzonetik eratorriak dira.

Estereotipoa, berriz, aurretiko ideia batean oinarritzen den iritzia da: iritzi egina, erkideei  
klitxe gisa ezartzen zaiena. Zerbait edo norbaiti buruzko molde edo karikatura bat bezala  
ulertzen da.

Horrela bada, estereotipo maskulinoak eta femeninoak mugatzen dituzten ezaugarriak ikus  
ditzakegu:

#### GIZONEZKOAK

Egonkortasun emozionala.  
Norberaren kontrola.  
Dinamismoa.  
Agresibitatea.  
Meneratzeko joera.  
Norberaren finkatzea.  
Afektibitatea zehaztugabea.  
Zientzietarako gaitasuna.  
Razionaltasuna.  
Zabaltasuna.  
Ausardia.  
Arrisku-zalea.  
Objektibotasuna

#### EMAKUMEZKOAK

Egongaiztasun emozionala.  
Kontrol falta.  
Pasibotasuna.  
Samurtasuna.  
Menekotasuna.  
Menpetasuna.  
Nabarmena.  
Intuizioa.  
Irrazionaltasuna.  
Arinkeria.  
Beldurra.  
Ahulezia.  
Subjektibotasuna.

Zerrenda hau ikusi bezain laster ohartzen gara generoa sexuari loturik egotearen bi ezaugarri nagusiez: bipolaritatea eta hierarkizazioa.

#### 4.1.1

#### BIPOLARITATEA

Generoaren bitasun hau beste aurkako bikote batzuren antzera ageri zaigu: gaua eta eguna, hotza-beroa, positiboa-negatiboa. Alabaina, gizakiaren bateragarritasunak ezberdin bihurtzen du bikote hau gainontzekoen aldean. Neskatoen eta mutikoen nortasuna igurikapen jakin batzuren arabera eratuz doan sozializazio prozesu baten bidez hartzen da genero-identitatea, baina baliteke sexuaren hartutako generoaren arteko kontraesanak ere izatea, kode hau ez baita "egia orokorrezko" arautegia.

Zentzu honetan, gaur egun mendebaldeko gizartean zenbait aldaketa gertatzen ari dira generoaren kontzepzioan, emakumezkoak, batez ere, beren emantzipazio-prozesuan aurrera eramaten ari direnak.

#### 4.1.2

#### HIERARKIZAZIOA

Generoaren egituraren bigarren ezaugarria, berriz, "maskulinoari" "femeninoaren" aldean atxiki zaion balorazio ezberdina da. Pentsamolde androzentrikoak gizonezkoaren nagusitasunari eutsi dio. Pentsakera hau oso loturik dago emakumezkoa arlo pribatuari (etxea) eta gizonezkoa arlo publikoari atxikitzearekin. Lanaren banaketa sexualetik eratorritako bereiz-

---

keta da. Femeninoa delakoa gutxietsita dago, haren mundua, eremua nahiz rolak ekonomiko eta sozialki mundu maskulinoaren menpe daudelako.

Badakigu zientziaren aldetik nahiz biologiarenetik ez dagoela sexu bat bestearen gainetik jartzeko inolako oinarririk. Sexu-generoari buruzko teoriak laguntzen digu desberdintasunen zergatia ulertzen. Gizartearen eta familiaren errealitatea aldatzen ari da. Patriarkagoari eta androzentrismoari kontraesanak eta tentsioak nabari zaizkie, nahiz eta egia den sexuen arteko desberdintasunak oraindik badira.

Rol maskulino eta femenino hauek gizartearen erakunde guztien bidez ikasten eta baitaratzten dira, hots, familiaren, eskolaren, komunikabideen, publizitatearen bidez. Ondoren, familia aztertuko dugu sozializazio-eremu nagusi gisa.

### 4.1.3

### FAMILIA

Egungo familia dugu hezkuntz erakunde nagusia. Funtsean harremanez eta gizakiez osotuturiko egitura izanik, familian mutikoak eta neskatoak emozionalki garatzen eta hazten dira eta rol maskulinoak eta femeninoak sexo-genero delako sistemaz bereizirik daude, hots, gizonetzkoak eta emakumezkoak, aitak eta amak, toki eta eginkizun desberdinak betetzen dituzte eta sexuak mugaturiko lanak egiten dituzte. Antolamendu asimetrikoa da.

Gizonetzkoaren tokia aitatasunak mugatzen du, baina amatasunak bestelako esanahia du, ez dira baliokideak.

Aita izatea familia ekonomikoki hornitzea da, batez ere. Aita da familiaren statusa ezartzen duena, haren rola ezaugarri ekonomikoez eta politikoez mugatua da, ez harremanez.

Emakumearen posizioa, aitzitik, amatasunak mugatzen du. Hau da, funtsezko nutrizioaz arduratzen den gurasoa. Ama eta seme-alabaren arteko harremana psikosoziala da eta zaintza, babesa, dedikazioa, heziera, nutrizioa eta sozializazioa barne hartzen ditu.

Historikoki batera etorri dira amatasun biologikoa eta soziala, baina ezberdinak eta bereizgarriak dira: amatasun soziala. eginkizun gisa, bi sexuetako pertsonak bete dezakete.

Hala ere, gure egungo gizartean sexuei atxiki zaien gizarte-antolamenduan, emakumezkoari eginkizun jakin batzuk dagozkio eta gizonetzkoari beste batzuk, horrenbestez, bi arlo finkatu direla: pribatua-etxea eta publikoa, hierarkia baten arabera banaketa, non arlo publikoa gorago dagoen.

#### 4.1.4

#### ARLO PRIVATUA-ETXEA

Ezaugarriak:

- Emakumearen menpe dago, emakumeak antolatu eta kontrolatzen du, bera da arduraduna.
- Rol expresiboak betetzen ditu: maitasunezkoak, nutrizionalak, emozionalak... Psikologikoki beroriek garatzeko prestaturik dago eta horretarako heziketa egokia jaso du.
- Gizonezkoari ez dagokio ardura emozionala. Bere balioa instrumentala da.
- Aitaren nolabaiteko ausentzia, amaren beti prest egotearen aurrean.

#### 4.1.5

#### ARLO PUBLIKOA

Politikaren, lanaren, ekonomiaren nahiz gizartea arautzen duen boterearen arloa da eta hurrengo ezaugarriok ditu:

- Gizonezkoek bete ohi duten arloa da.
- Rol maskulinoak: profesionalak, laboralak, ekonomikoak.
- Gizonezkoari arlo honetan garatzeko prestakuntza psikologikoa eta heziera ematen zaizkio.
- Berrikitan emakumea ere hasia da arlo honetan sartzen, baina eragozpen handiekin: lan-jardun bikoitza, bi sexuen arteko harreman pertsonaletan eragina duen etxekoa ez konpartitzetik eratorritakoak, eta aldaketa havei loturiko famili ezkakizunak edo beharrianak betetzeko gizarte-zerbitzuen eskasia.

Emakumezkoen rol produktiboa eta sexu bidezko birsorrerari dagokiona aldatuz doazen arren, eta gizonezkoari atxikitako zeregin eta eginkizunak asumitu eta rol maskulinoetako asko garatu baditugun ere, famili eredu berbera transmititzen da oraindik, zeren gizonezkoak ez ditu rol femeninoak asumitzen, ez konpartitzen ez eta garatzen ere.

Behin puntu honetara heldutakoan, ikuspegi hezitzaile berri batetik abiatuko ginateke, tradizioz maskulinoari eta femeninoari lotu zaizkion gaitasunetarik gehienak garatuz, bai arlo pribatuko eta bai arlo publikoko erantzunkizunak asumituko lituzkeen pertsonaren eredu integraletik hain zuzen. Hezkuntzaren eginkizuna zera litzateke:

- Desberdintasuna eta bereizkeria edo diskriminazioa sortarazten dituzten faktoreak zuzentzea.
- Bere hezkuntz proposamenak berrikustea.
- Gizakiaren heziketa integrala (alderdi intelektualak, maitasunezkoak, motrizitateari dagozkionak, harremanei buruzkoak eta gizarteratze arlokoak).
- Hezkuntz eredu berria eskaintzea.

Hemen sartuko ginateke hezkidetzan

Zentzu zabalean, hitz honen hedadura semantikoa ("kide" delakoak elkarte edo laguntasuna adierazten du) dela medio, arraza, sexu, erlijio, gizarte-klase eta abarren arabera bereizitako kolektibo desberdinen baterako hezkuntza izan liteke. Alabaina, hitz hau ikastetxe bateko neska eta mutilentzako baterako heziketa adierazteko erabili ohi da.

Dena den, lehenago azaldu bezala, eskola mistoa eta hezkidetza-eskola ez dira gauza bera; horrela bada, hezkidetza honela definituko genuke: bi sexu desberdinen errealitatetik abiatutako hezkuntza pertsonalera eta elkarrekin bai baina elkarri aurka egin gabe eraikitako gizartera bideratutako mutikoen eta neskatoen garapena bultzatzeko erabiltzen den berriazko jardun-prozesu bat.

Hezkidetza, tradizioz maskulinoztat edo femeninoztat jo izan diren jarrera eta baloreen hierarkizaziorik gabeko izankidetasuna da, hots, aipaturiko jarrea eta baloreak edozein sexutako pertsonak onetsi eta asumitu ahal izatea.

Hezkidetzan ez da estereotipoen araberrako banaketa onartzen, ez eta estereotipo menperatzaile baten araberrako menperapena ere.

Nortasunaren garapen osoa du helburu, genero-eragozpenak ekidinez eta sexismo kulturala eta emakumearenganako gizarte-desberdintasuna zuzenduz.

Hezkuntza integrala da eta, beraz, emakumeen esperientzien integratzailea.

Hezkidetza ematen duen eskolak bizitarako prestakuntza ematen du eta hura bi arlotan zertzen dela hartzen du kontutan, hots, arlo pribatua eta publikoa pertsona guztientzat direla eta, horrenbestez, ez ditu haietako batera bideratzeko heziketarik erabiltzen.

---

## 6. *Hezkidetzaren Helduen Hezkuntza*

Helduen Hezkuntzari hezkidetzaren ikuspegitik begiratzerakoan hainbat alderdi jorratuko ditugu:

- HHLri buruzko ohar orokorrak.
- Emakumezkoen berezitasunak HHLn:
  - emakume-kopurua;
  - mailak;
  - taldeen tipologia.
- Hezkidetzaren jarduna HHLn.

### **6.1 HELDUEN HEZKUNTZA IRAUNKORRARI BURUZKO OHAR OROKORRAK**

Hezkuntza Iraunkorra eta Helduen Hezkuntza bateratu edo nahasteko joera izan ohi da. Hezkuntza Iraunkorra, ordea, hezkuntza sistema osoari eragiten dion printzipioa da eta ez haren zatia.

Beste batzutan, helduen hezkuntzaz ari garenean, arlo osoa oinarritzko hezkuntzari lotzen diogu eta hortik dator nahasmendua. Jakina da norbaitek, esate baterako, bigarren mailako hezkuntzaz hitz egiten duenean, badakiela zeintzuk diren haren mugak, baina oso zaila da pertsona berak helduen hezkuntzaren mugak zeintzuk diren jakitea.

Hezkuntzak ikaskuntza eskatzen du eta azken honek, berriz, informazio eta gaitasun berriez jabetzea, lehendik erroturiko ideia edo ohituren berrantolaketa, jarreraren garapena, balore-aldaketa, etab. eskatzen ditu edo eska ditzake. Ikaskuntzak aldaketak sortarazten ditu pertsonengan, dudarik gabe.

Bada ikaskuntza sistematiko bat, antolatua, planifikatua, titulu akademikoa bat lortzera zuzendua izanik ala ez izanik ere, bizitzari, errealitateari lotuta dagoen beste ikaskuntza baten osagarria dena, eta pertsona helduaren prestakuntzarako funtsezkoa.

Aurrekoari loturik, haurrei dagokienean hezkuntza eta eskolatzea sinonimoak izan baditezke ere, helduen hezkuntzari gagozkiola, hezkuntza, hein handi batean, eskolaz kanpo gertatzen da.

Bakoitza bere eremutik guk lantzen ditugun kolektiboengana jotzen duten jende desberdin eta Erakunde anitzei aurre egin behar diegu. Hau, hala gizarteak ezartzen dituen aldaketa

---

berrietara egokitzen laguntzen duen ikaskuntza gisa, nola helduak bere bizitza, bere errealitate nahiz bere ingurunearekiko kontrol gero eta handiagoa asumitzeko gaitasunerantz bideratutako ikaskuntza gisa hartuz.

Helduen hezkuntzak haien lanerako gaitasunak hobetzeko balio behar du, hala nola, eguneroko bizimoduaren arazoak konpontzeko, pertsonen arteko harremanak hobetzeko, astialdiaz hobe eta gehiago gozatzeko, gizarte-aldaketetara egokitzeko eta haietan parte hartzeko. Helduen Hezkuntzak, halaber, Komunitateen garapena arindu behar du eta, era berean, Erakundeetan eta gizarte-antolamendu desberdinetan eragin.

## **6.2**

### **EMAKUMEZKOEN BEREZITASUNAK H.H.I.N**

### **6.2.1**

#### **TALDEEN TIPOLOGIA**

- A) Lan-merkatuan sartzeko prestakuntza hobetzeko oinarrizko prestakuntza jaso nahi duten emakume gazteak.
- B) Emakume helduxeagoak, etxeko lanetan eta amaren eginkizunetan aritzeko beren lanari utzi diotenak edo, inoiz ere lanik egin ez dutela, orain lanean aritu nahi dutenak eta lan-merkatuan sartzeko beren burua prestatu nahi dutenak.
- C) Adinagatik edo beren egoera ekonomikoagatik lan merkatuan sartu nahi ez badute ere, etxeko lanak edo ama-eginkizunak amaitutakoan, euren burua hobeto prestatu nahi dutenak gizartean aktiboki parte hartzeko.

Hiru talde hauek kontutan harturik, hona hemen erantzuna:

- A taldearentzat: Enplegurako aurreprestakuntza

Eta kolektibo honek lan merkatuan sartzeko aukera eman diezaiokeen prestakuntza behar duenez gero, programetan hurrengook agertu beharko lirateke:

- Enplegu femeninoaren egungo egoeraren analisia: lan merkatuaren segregazioa, lanbide estereotipatuak. Lan ahalbideei eta lan eskubideei buruzko orientabideak eta lanbide-orientabidea.

- Emakumezkoentzat ohizkoak ez diren lanbideetako trebakuntza bultzatu. Halako lanbideak aukeratzen dituzten emakumezkoek seguruago sentitzeko laguntzako estrategiak landu.
  - Teknika ez dela emakumeengandik urrun dagoen zerbait erakutsi. Gai “maskulinoak” direlakoan, emakumezkoak aurrerapen teknologiko berrietatik at utziak izan direla izan behar dugu gogoan.
  - Arlo pribatuko erantzunkizunak bion artean banatu beharra bultzatu. Lantaldeen bidez, taldeko eztabaidak eta taldeko lanak bultzatu, etxeko lanak konpartitu beharrari buruzko jarrera aldaketa lortzeko.
  - Enplegua bilatzeko baliabideak sustatu eta erraztu toki-erakundeekin elkarlanean.
    - B taldearentzat: Norberarekiko segurtasuna. Autoestimazioa
  - Ikasten jarrai dezaten, laguntza eman. Norberarekiko segurtasuna areagotzeko, oraindik prestatu eta lan merkatuan sartzeko aukera badutela azaltzea komeni da. Autoestimazioari loturiko alderdiak landu.
  - Lana nola eskatu behar duten erakutsi.
  - Euren etxeko eginkizunetara egokituriko baliabideak eskaini: orduak, seme-alaben zaintza...
  - Ohizkoak ez zaien lanbidetarako prestakuntza eskaini.
    - C taldearentzat: Desinhibizioa, Motibazioa
  - Etxean egin duten lanaren balioa goretsi. Emakume hauetako gehienak gizonezkoek bete ohi dituzten eremu publikoetatik at egon dira.
  - Desinhibizioa eta partehartzea bultzatu. Baliteke berau izatea egoera inhibitzaileak desblokeoa ahalbide dezaketen emakumearen tailer edo gelak eratzeko emakume-talderik egokiena. Beraiekin aztertu beharko litzateke gizartean gutxietsiak diren eginkizun bereziak beti asumitzeak dakarren segregazioa. Emakume eta kolektibo femeninoaren osagai diren aldetik euren egoera hobeto ezagutzeko mesedegarriak gerta dakizkiekeen jarduerak ez horren “tradizionalak” bultzatzea ere komenigarria litzateke.
  - Kultura femeninoa birbaloratu.
  - Familiaren bitartez, balore-transmisioan betetzen duten funtsezko zereginaz kontzientziatu.
- Beste alde batetik, emakumeen aula edo tailerretan izandako esperientziak zera erakutsi dигute:

- Emakumezkoek curriculum orokorretan bildu gabeko prestakuntza-gai bereziak (osasuna, eskubideak, lana, etab.) planteatzen dituztela.
- Beldurra, lotsa edo segurtasunik eza direla medio, ez direla beren arazoak jendaurrean azaltzera ausartzen.
- Beste emakume batzurekin egonik, eta prozesu luze baten ondoren, lortzen dela beren beharrianak azal ditzaten.

### 6.3

### HEZKIDETZA- EKINTZA H.H.I.N

Adierazitako guztiak kontutan izanik planteatuko genuke gure hezkidetza-ekintza H.H.I.n. Lehenago ere esan dugu curriculum-diseinu edo proiektu guztiak pertsonaren garapen integralaren hezkidetza-printzipiotik abiatu behar dela. Ondorengo analisiak, berriz, zera erakutsi digu: emakume helduaren kasuan, hezkuntza sexista eta estereotipatua dela kausa, garapen integral hori ez dela gertatu.

Puntu honetan hartzen du berebiziko garrantzia ekintza positiboak. Erraz ulertzeko moduan esateko, ekintza positiboa ahulenen aldeko jardura diskriminatzailea da, gauzan inertziaren eraginpean utziz gero, bereizketak handitu egingo liratekeelako eta lortu nahi dugun tratu berdintasuna sekula ere ez genuelako erdietsiko.

Ekintza positiboak baztertuaren aldekoa izan behar du beti, justiziazko ekintza bat eta ez errepresaliazkoa.

Hezkidetza-ekintza orotan, ekintza positiboak hainbat alderdi ukitu behar ditu:

- Femeninoaren baloreak eta esperientzia birbaloratu gizakia errentzat onuragarria den heinean.
- Eskola-gaietan “aurkigaitza” izan ohi den emakumea bilatu eta haietan sartu.
- Ikastetxeen jarduna berrikusi, sexismoa baztertzeko duen ororen alde agertzeko beti, hala helburuei edo edukinei dagokienez, nola curriculum ezkutuari dagokionez.
- Rol-haustea bultzatu eta lagundu.

Gai orokor hauek, halaber, emakume helduekin jarduteko programagintzan, hurrengo ekintza-zabideotan gauzatuko lirateke:

- Helduen hezkuntza emakumezkoen beharrian espezifikotara egokitu beharra.
- Emakume-taldeekin euren arazo konkretuak aztertu eta haien inguruan lan egin, talde hauen beharrianak objektibatu eta ebaluatu ahal izateko.

- 
- Heziketa-programa guztietan kontutan hartu emakumeek beraiek, ikaskideek eta irakasleek zein jarrera duten emakumearen eginkizunari buruz. Jarrera hau ebaluatu, izan daitezkeen estereotipo tradizionalak zuzentzeko, sexu-arrazoiengatiko irizkerietan oinarritu gabe pertsona bakoitzaren gaitasuna bere trebetasunen arabera bultzatzen duen jarrera ez-diskriminatzaile eta ez-sexista bihurtuz.
  - Material didaktikoa eta jarduerak emakume helduen benetako beharrianetara egokitu.
  - Ikastera doazen emakume askok jasaten duten egoera familiarra kontutan hartu ikastorduak haien ordutegietara egokitzeko.
  - Emakume helduen helburuak beroriek dituzten prestakuntza-igurikapenetara egokitu, lan merkatuan sartzea erraztuko dieten ezohizko lanbideetarako joera bultzatuz.

Ondorio eta laburpen gisa, gure helburua zera da: emakumezkoak gizarte honek eskain ditzakeen ahalbide guztietaz baliatzeko benetako aukera izan ditzan, gizonezkoak bezalaxe, eta biok elkarrekin jardun dezaten mundu solidarioago bat lortzeko.

---

## *Bibliografía*

CAPEL MARTÍNEZ, Rosa M.: *El trabajo y la educación de la mujer en España, 1900-1930*, Madril, Kultura Ministraritza, Emakume Erakundea, 1986.

FLECHA, Ramón: *Educación de Personas Adultas*, El Roure.

NASH, Mary: *Mujer, familia y trabajo en España, 1875-1936*, Bartzelona, Anthropos, 1983.

VÁZQUEZ RUIZ DE LARREA, M.º Consuelo, et al.: *Nuevas perspectivas de la mujer en nuestra sociedad*, Vitoria-Gasteiz, Emakunde, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteizko Udala, 1991.

SANTOS GUERRA, Miguel Angel: *Coeducar en la escuela*, Madril, Zero Kultur Taldea, 1984.

---

**ROSA PEÑALVER PÉREZ**  
Irakaskuntz Aholkulari  
Teknikoa.  
Prestakuntza eta Eraberriketa  
Saila. M.E.C. Zuzendaritza  
Probintziala (Murtzia)

*Emakumezko*

*helduen*

*herkuntza:*

*gaitzeko,*

*integratzeko*

*eta askatzeko*

*tresna*

## “Helduen Hezkuntza”

### *delako kontzeptuaz zenbait ohar*

“Helduen Hezkuntza” delako kontzeptua ez da pentsa zitekeen bezain begibistakoa, bere headurari eta esanahiari dagokienez. Norbait Bigarren mailako Hezkuntzaz mintzatzen denean, argi dago badakiela hura noraino heltzen den, Helduen Hezkuntzaren kasuan, al-diz, doakien pertsonak hain desberdinak zabalduak izanik, eta hura ematen duten erakun-deak (M.E.C., Udalak, Herri-Unibertsitateak, I.N.E.M.,...) ere askotxo direnez gero, erraz nahasten dira hartara biltzen diren arlo guztiak helduentzako oinarriko hezkuntzarekin.

1976an, Nairobin, Unescoren Konferentzia Orokorrak definizio<sup>1</sup> bat proposatzen du eta be-rori da, orohar, erreferentziatzen hartzen dena, baina definizio oso zabala da, zeren “Hel-duen Hezkuntza” delakoan hezkuntz ekintzarako nahitaezko adina gainditu duenari zuzen-dutako erazko hezkuntz ekintzak eta erazkoak ez direnak ere sartzen baitira, hau da, ohizko eskola-adina gainditu duen edozein pertsonarekin eginiko hezkuntz ekintza oro, gradu-on-doko bat esate baterako, Helduen hezkuntza litzateke defionizio zabal horren arabera.

Gai honetaz idatzi duten gehienentzat, berriz, Heldun Hezkuntza definitzeko era zehatza hura ez dena azalduz eman daiteke. Ildo honetatik, ia denak datoz bat hezkuntza hau ez dela pertsona hauek haurtzaroan nahiz gaztaroan erdietsi ez zuten erazko eskolaketara sa-soiz kanpo heltzeko konpentsaziozko sistema bat esaterakoan. Arlo honetako lehen urratsak ematerakoan helduek beren erazko eskola-gabeziak “berreskuratu” edo berandu konpen-tsatu” nahiaren bideari jarraitu bazitzaion ere, hau da, konpentsaziozko hezkuntzatik abia-tuta, gaur egun hezkuntza iragankortzat ere hartzen da, gertatutako aldaketan arabera (lan-bide-birziklatzea, jarduera jakin batzuetako espezializazioa, hobekuntza) noizean behin eta zirkunstantzialki ematen dena, bai eta hezkuntza osagarri gisa ere, aurrez hartutako hezi- ketaren osagarritzat eskaintzen dena eta gizartean parte hartzeko erak eta norberaren erre-alizazioa ahalbidetzen dituen.

<sup>1</sup>. “Euren gizartean heldutzat jotzen diren pertsonak beren gaitasunak garatzeko, beren ezagupenak aberaste-ko, beren trebetasun teknikoak edo profesionalak hobetzeko baliatzen dituzten edo, orientabide berri bat ematen dietelarik, beren jarrerak edo portaera gizakiaren aberastasun osoari eta garapen sozioekonomiko eta kultural orekatu eta independentean parte hartzeari dagokien perspektiba bikotzean bilakarazten dituz-ten hezkuntz prozesu antolatutako guztiak, berorien edukina, maila zein metodoa edozein dela, erazkoak ala ez izanik ere, edo eskoletan emaniko hasierako heziketa ordezkatu edo luzatzen dutelarik, horiek guztiak adie-razten ditu helduen hezkuntza espresioak”. UNESCO (1976).

---

Azkenik, jakina izanagatik zenbaitetan aintzakotzat hartzen ez den zerbait azpimarratu beharra dago, hots: "heldua ez dela ume handia" eta, beraz, eskola-hezkuntza arruntaren programak, metodoa eta teknikak ez direla aplikagarriak helduen hezkuntzan. Oso garrantzitsua da hau azpimarratzea eta, halaber, ikasle helduak nahi duelako (borondatea arlo honetako hezkuntz ekintzen sistema osoaren egiturari eusten dion oinarritzko zutabea da) eta zer, noiz eta nola ikasi bere kabuz erabaki ahal eta nahi duelako ikasten duela kontutan hartzea (García Llamas, 1986).

Ikuspegi honetatik, erraza da helduen hezkuntzako metodo tradizionalenen porrota ulertzea, gehienetan nahitaezko eskolaketarako programa eta metodoen traslazio mekaniko hutsa besterik ez baitziren, irakaslea eta ikasgela berberekin ere egin dena gainera.

Bestalde, Andragogiak<sup>2</sup> HHIko Ikastetxeetako irakasleek beren jardunean somatua zuten fenomeno bat azaltzen duela esan beharra dago, hots: helduek euren egoera aldatu edo aldarazteko aukera eskain diezaieketen ikaskuntzaren bidezko esperientziak bilatzen dituztela. Helduak ikasteari ekitera bultzatu duten motibazioak zeintzuk izan diren ez dio axola, garrantzitsua, aitzitik, ikaskuntza bere eguneroko errealitateari lotzeko behar iraunkorra da eta, era berean, era ezberdin batean gizarteratzeko edo errealitate hori bere baharrizan eta interesetara hobeki egokitzen ahalegintzeko tresnen bilaketa. (Jeanette Hernández, 1990).

---

<sup>2</sup> Helduaren ikaskuntz gaitasuna desberdina da. Arazo pedagogiko-didaktikoak ikertzen dituen pedagogiaren adar bat dago: "Andragogia" delakoa.

## *L.O.G.S.E. delakoa eta Helduen Hezkuntza*

L.O.G.S.E. ezarri denetik, nahitaezko eskolaketa eta oinarrizko hezkuntza zabaldu egin dira. Nahitaezko eskolaketaren hedapenak urri bihurtuko ditu aurretiko eskola-mailak. Izan ere, H.H.I.ko ikastetxeetan dabilzan ikasleetak asko 60. hamarkadan eskolatu direla eta Eskola-Ziurtagiria lortu zutela ikus dezakegu. 70eko Hezkuntzaren Lege Orokorren ondorioz titulu hori ez zen nahikoa, Eskola-Graduatua jo baitzen oinarrizko titulaziotzat. Azken hamarkadotan titulu hori eskuratu dutenek ere ez dute aski izango titulu horrekin larogeita-hamargarren hamarkadaren amaieran. Hezkuntza eta Zientzia Ministraritzaren helburua kontutan harturik, 2000. urterako, %80k 18 urtera arte eskolatu izan beharko du. Argi dago eskolaketaren luzapenean oinarritutako egungo hezkuntzaren hazkundeak helduentzako oinarrizko hezkuntzaren akatsak areagotzen dituela. (Ramón Flecha, 1990).

Helduen Hezkuntza jorratzen duen L.O.G.S.E.ren hirugarren tituluari helduz, 51. artikulua zera dio: "que el sistema educativo garantizará que las personas adultas puedan adquirir, actualizar, completar o ampliar sus conocimientos y aptitudes para su desarrollo personal y profesional". Artikulu berebean, Legeak hurrengo helburuok agertzen ditu:

"Adquirir y actualizar su formación básica, facilitar el acceso a los distintos niveles del sistema educativo, mejorar su cualificación profesional o adquirirla y desarrollar su capacidad de participación en la vida social, cultural, política y económica".

Honek helduen hezkuntza hurrengo arlooi lotzea dakar:

- a) Oinarrizko hezkuntza osatzera (edo hezkuntz sistemaren beste maila batera heltzera) zuzendutako heziketa.
- b) Lanera orientaturiko heziketa (hasiera, eguneratzea, birmoldaketa eta berrikuntza, lanbide-mailako edukinei dagokienez).
- c) Herritarren eskubide eta betebeharez baliatzeko (edo gizartean parte hartzeko) heziketa.
- d) Norberaren garapenerako heziketa ( sormena, kultur ekintzetan parte hartzea, judizio kritikoa).

Bigarren Mailako Graduatu titulua lortzeko Curriculumua garatzeko oinarrizko bideak ezartzen dituen Aginduak, bestalde, 5. artikuluan ezartzen du ezagupen-arloak ezagupen-ere-

---

muetan sartuko direla “de acuerdo con las características, expectativas, necesidades e intereses de la población adulta”, hitzaurrean ere zera adierazten da: “la organización y la metodología (...) se basarán en el autoaprendizaje, en función de sus experiencias, necesidades e intereses a través de la educación presencial y, por sus adecuadas características de la educación a distancia”.

Nire iritziz, Helduen Hezkuntzako eredu berria garatzeko abagadunean gaude. H.H.I.ko lkastetxeen hezkuntz eskaintza bertaratzen direnen ezaugarri, igurikapen, beharizan eta interesen arabera moldatu nahi baditugu, kolektibo honen dibertsitatea kontutan izan behar dugu, izan ere, bakoitzaren bizitzaren fase ezberdinak, baldintza sozioekonomikoak eta kulturalak eta egungo gizartean gertatzen ari diren aldaketa nabarmenak aintzat hartu beharrekoak baitira. Azkenik, zeintzuk diren haien eskariak eta zerk sortarazten dituen aztertu behar da.

## *H.H.I. ikastetxeetako emakumezkoen ezaugarriak*

91-92 ikasturtean zehar 245.360 ikasle aritu ziren Hezkuntza eta Zientzia Ministraritzak kudeatzen duen arloan, haietako %68 emakumezkoak ziren. (Estatuko Eskola Kontseilua. M.E.C., 1993). Emakumearen Erakundearen 1992ko datuen arabera, Estatuan 2.806.900 emakume ziren oinarrizko heziketarik gabe, berorietako 1.170.500 analfabetoak zirela; gizonetzkoei dagokienez, 2.179.700etik 439.200 ziren analfabetoak. (Emakumearen Erakundea. 1992). Estatistika berberak erakusten duenez, gizon analfabeto bakoitzeko, ez irakurtzen ez eta idazten ez dakiten 2,6 emakume daude. Gure herrialdean (Murtzia) hain zuzen ere, iragan ikasturtean zehar 9.911 emakume joan ziren H.H.I. ikastetxeetara bertaratzen direnen irakaskuntza deritzon modalitatean, hots, ikastetxe hauetara doazen ikasleetako %70. Kolektibo hau, hala ere, ez da homogenoa, beharrian desberdinak eta hainbat hezkuntz-maila antzematen baitzaizkio.

Hiru talde bereiz ditzakegu:

- A) 16 urtetik gorako emakumeak. Oro har, gazteak dira, 25 urtetik beherakoak, eskola-porrota izan dutenak, hezkuntz sistematik kanpo hainbat urte daramatela berriro heltzen diotenak. 1. mailako L.H. izan dezakete, baina ez dute enplegurik aurkitu.
- B) Adin ertaineko emakumeak, etxeko lanetan jarduteko lan merkatutik atera direnak edo hartan inoiz ere egon ez direnak. Heziketa hobea eta ezagupenen egokitzapena lortu nahi dute.
- C) 40 urtetik gorako emakumeak, euren errealizaziorako heziketa bilatzen dute, ez dute lan merkatuan sartu nahi.

Adieraz ditzaketen heziketa-beharrizanen arabera, hiru maila bereiz ditzakegu: (Maruxa Moreiras, 1989)

- Lan merkatuan sartzeko aukera eman diezaiekeen oinarrizko heziketa-maila.
- Aldi batez lan merkatutik kanpo izan ondoren, berriz hartaratzeko heziketa-maila.
- Gizartean parte hartzeko heziketa-maila.

Ondoren, labur bada ere, lehenengo bi taldeen ezaugarriak eta talde hauei erantzun nahi dieten curriculumek bildu beharko lituzketen alderdiak aztertzeari ekingo diogu. Horren ostean, dituzten ezaugarri bereziengatik oinarrizko heziketa-gabeziak dituzten emakumeen taldea aztertuko dugu.

## GAZTEEN TALDEA

- Eskola-porrotetik datoz edo L.H.1. izan arren ez dute enplegurik aurkitu.
- Eskola-metodologia arruntarekin ikasteko arazo larriak dituzte. Ez dute inolako motibazioarik arauturiko heziketarekiko.
- Absentismo-portzentaia nabarmenak izaten dituzte. Ikasteari uzteko joera izan ohi dute euren igurikapenak betetzen ez badira.

## ADIN ERTAINEKO EMAKUMEAK

- Enpleguren bati heltzeko edo promozionatzeko aukera eman diezaiekeen titulu baten beharra dute. Euren ezagupenak egokitu nahi dituzte.
- Interes handia nabari zaie arauturiko irakaskuntzarekiko. 25 urtetik 45era bitartekoak izaten dira.
- Kultur mailari dagokionez, Lehen mailako Heziketa osatu gabea da ohizkoena.

Kolektibo hauek, bestalde, hezkuntz beharrian desberdinak izaten dituzte kalekoak edo baserrikoak diren neurrian. Hala eta guztiz ere, lan munduan sartzeko aukera eskain diezaiekeen heziketa bat nahi dutela kontutan harturik, curriculumek ondoren azaltzen diren alderdiak bildu eta landuko beharko lituzkete:

### a) Emakumezkoen enpleguaren egungo egoera.

- Lan merkatuaren segregazioa. Lanbide estereotipatuak: "femeninoak-maskulinoak".
- Eskubide-berdintasuna emakumezkoen eta gizonezkoen artean.
- Lan ahalbideei buruzko orientabidea.
- Lanerako prestakuntza zenbait lanbidetarako.
- Dauden laguntzak eta ikastaroak (INEMen Ikastaroak, Gizarte Fondoak, F.I.P. Plana...)

### b) Ezohizko lanbidetako prestakuntza.

- INEM delakoaren lanbide-behatokia.
- Seguruago sentitzeko estrategiak.
- Teknologia berriak erabiltzeko prestakuntza.
- Lana bilatzeko teknikak. (Macbem gidaliburua)

### c) Jarrera-aldaketak lortzeko taldeko eztabaidak eta lanak.

- Etorrizunari begira dituzten igurikapenak aztertu.
- Lehiakortasunarekin, arduradun postuekin eta trebakuntza iraunkorarekin zerikusia duten alderdiak.
- Enpresen antolaketa eta kudeaketa. Autoenplegua.

---

Nolanahi ere, zenbat eta urte gehiago eduki orduan eta eragozpen handiagoak izaten dituztela kontutan hartu behar da eta gizarte-mailan behera egin ahal ere hala gertatzen dela. Hainbat urtetan etxeko lanetan murgildurik, gizartearengandik isolaturik egon diren emakumeek segurtasun-ez handia dute aurrez egindakoak ez bezalako jardueri ekiterakoan.

Funtsezkoa da euren buruarekiko segurtasuna areagotzea, talde hauetan autoestimazioari loturiko alderdiak landu beharra dago, lan merkatuan sartzeko orduan bideak erakutsi behar zaizkie eta, askatasun handiagoa lortzeko era bat delako, lanerako eskubidearekiko jarri sendotzen lagundu behar zaie.

Adierazitako guztiaz gainera, "Informazioa" behar da, zeren emakume hauek ez baitakite nora jo behar duten. Une honetan hainbat programa daude, besteak beste, ondokoak barne hartzen dituztenak:

- Lanerako prestakuntza gazteentzat eta luzaro enplegurik gabe daudenentzat.
- Ikas-ekinezko heziketa 25 urtetik beherako gazteentzat.
- Lanerako prestakuntzako programak landa-arloan.
- Lanerako prestakuntzako programak, berregituratzen ari diren enpresetan.
- Lanerako prestakuntzako programak, lan merkatuan sartzeko saiatzen diren emakumeei emakume gutxi dauden lanbideetarako prestakuntza emateko.

Azkenik, informazioaz gainera "Orientabideak" behar dira. Zenbait emakumek (askotxo) bata bestearekin zerikusirik ez duten lanerako prestakuntzako hainbat ikastaro egiten dituzte elkarren segidan. Partehartze honek badakar ondorioz, hots, emakume askok zio ekonomikoengatik egiten badituzte ere, benetan lan bat aurkitu nahi dutenak azkenean desmoralizatu egiten dira. Arazoa ez datza ikastaro asko egin behar izatean, baizik eta, norberaren egoeratik abiatuta, lan merkatuaren perspektibak aintzat harturik, eurentzako egokienak izan daitezkeen ikastaroetan parte hartzera eramango dituen heziketa-bidea mugatzen laguntzean.

Hirugarren taldean, OINARRIZKO HEZIKETA-BEHARRIZANAK DITUZTEN EMAKUMEAK jarri ditugu.

30 urtetik 45 urtera bitartekoak dira. Talde honetako emakumeak maila guztietan (alfabetatze, irakurle berriak, ziurtagiria) ageri badira ere, Graduatu-mailan nabarmentzen dira masiboki. Behin hura lortutakoan, emakume askok ikastetxeetan jarraitzen dute eskolatu gabeko L.H.ko probetarako ikaskuntz mailetan edo 25 urtetik gorakoak Unibertsitatean sartzeko prestakuntzan. Gure herrialdean, talde honetan daude ikastetxeetara doazen pertsonen

---

tako ia %70. Oro har, talde honetako emakumeak sozializazio-prosezu jakin batetik datoz, emakume guztiak ukitzen dituen genero bezala, baina nabarmenagoa kasu honetan. Isabel Cuerdo dioenez, "es un proceso favorecedor de la baja autoestima, potenciador de la dependencia, posibilitador de la culpa y que sume a las mujeres en un profundo miedo a la libertad".

Talde honen ezaugarri nagusiak hauek dira:

- Autoestimazio eskasa

Gizartean gutxietsiak diren etxeko lanetarako bakarrik "balio" dutelako sentzazioa dute, ez direla ikasteko gauza izango pentsatzen dute. Gizartearengandik isolaturik egon dira eta ez dira euren iritziak adierazteko gauza.

- Menpetasuna. Hala norberatasunari dagokionez, nola ekonomikoa eta emozionala.

Kanpokoak euren parte hartu gabe eraldatzen dela hautematen dute. Norbaitekin hitz egiterik ez izatea, gogoeta-lagunik ez izatea, erreferente amankomunik ez izatea... emakume hauen norberatasunarekiko eraso latza da. "Besteri" dagozkien arazoetan (seme edo alabaren bat gaixotu edo erasotua izan denean...), nolabaiteko independentziaz eta ausardiaz joka dezake arlo publikoan, baina berari propio dagozkion arazoetan, ordea, besteen identitateaz baliatu beharra dauka. "Bestearena" den dirua administratzeak batzutan segurtasunik eza eta destaina sortarazten ditu. Emozionalki besteri lotuta dago eta beste horiek, aldi berean, berari lotuta daude: senarra, seme-alabak, etab. Dependentsia hau antzeman eta errekonozitzea bereziki zaila gertatzen zaie emakumezkoen. Dependentsiaren dependentsia da. Haren eginkizuna zerbitzuan datza: zerbitzu hau errefusatua denean edo jadanik beharrezkoa ez denean, emakumea beharrezkoa ez izateari aurre egin beharrean aurkitzen da, askotan hau da heziketari eta kulturari ekiteko motibazio nagusia: "orain, umeak hazi direnean, ez naute behar...", "ez dakit bada zer egin neure bizitzarekin..."

- Erru-sentimendua (Haustea)

Egoera horretatik irteteko desio edo ahalbideari antzematen dion bakoitzean agertuko da. Atxiki zaizkien zereginen utzi eta ez dagozkienei ekiten saiatzen direnean, ama edo emazte "txar" bihurtzeko arriskua... Desioei jarraitzeak eta norberari eskubideak aitortzeak errudun-sentimenduak sortzen ditu. Horrez gainera, kanpokoaren gaitzespena dago, Zerbitzuez (zalantzagabekoak, doanekoak eta iraunkorrak) baliatzen direnak familia-gunea berregituratu eta zereginak birbanatu beharraz ohartzen direnean.

- 
- Askatasun eta burujabetasunerako beldurra

Heziketa handiagoa, gizartearekiko harreman estuagoak, burujabetasun handiagoa hartuz doazen neurrian, euren buruarenganako erantzunkizun handiagoa izateko beharra agertzen da. Justifikazioak eta eragozpenak jadanik ez daude “kanpoan” baizik eta norberaren “baitan”. Aukerabide asko izateak eta hautabide arduratsu eta kontsekvente bati jarraitzeko gaitasunak pasibotasuna zuritzeko eta erruaren zati bat besteei, kanpokoei, leporatzeko (ez didate utzi, “ez didate irakatsi...”) adinako beldurra sortarazten du. (I. Cuerda, 1989).

## *Emakumeentzako jardueren bilakaera*

Gauzak honela, azken urteotan, Helduen Hezkuntzan lan egiten duen irakaslegoa zera aztertzen ari da, nola egokitu heziketa iraunkorra ikastetxeetara doazkien emakumezkoek adierazten dituzten eskari eta beharrianetara. Arazoarekiko sentsibilazio handiena agertu duten irakasleek "Emakumearen Ikasgelak" edo "Emakumeentzako Tailerrak" abiarazi dituzte. Esparru hauetan emakumeak kezkatzen dituzten gaiak edo arazoak jorratzen dira. Berorien edukinak hurrengo multzootan sailka daitezke:

- Emakumeen osasuna: norberaren gorputza ezagutu eta zaintzea: sexualitatea, birsorrera, antisorgailuak, haurdunaldiaren borondatezko etena, gogo osasuna, depresio arazoak, alkohol-eritasuna, lasaigarriekiko dependentzia, minbizia, umeentzako higiene-neurriak, nutrizioa, etab.
- Horrez gainera, emakumezkoek dagozkien eta, sarritan, ezagutzen ez dituztelako, erabiltzen ez dituzten eskubideei loturiko alderdiak ere lantzen dira: pensioei, alarguntasunari, gizarte segurantzari eta abarrei loturiko eskubideak, edo emakumeenganako indarkeriari loturikoak: tratu txarrak, bortxaketa,...
- Emakumeen lanarekin zerikusia duten gaiak ere eztabaidatu dira: emakumeek eginiko lanarekiko kontsiderazio soziala, lan eskubideak, emakumeen lan merkatuaren segregazioa, prestakuntzarik eza, lanerako eskubidea, lanbide-aukeren dibertsifikazioa.
- Ikasleetako askok hezkuntza-gaiekiko interesa agertu dute: eskola-testuen estereotipo sexistak, ohizko ikasketak aukeratzea, etab.; kulturari loturiko gaiekiko interesa ere agertu dute, hala nola, publizitatean nabari den emakumearen gorputzarekiko manipulazioa, bizitza publikoan emakumerik ez izatea, etab.

Ikasgela hauetan argi ikusi da emakumezkoek inhibizioagatik edo lotsagatik talde mistoetan adierazteko gai ez diren beren beharrian konkretuak agertu eta azaltzeko tokiak behar dituztela. Era berean, argi dago:

- Emakumezkoek arazo bereziak planteatzen dituztela, normalean curriculetan agertzen ez direnak.
- Emakumeen ustez, kezkatzen dituzten arazoak edo interesatzen zaizkien gaiak euren bizitza pribatuari dagozkiola eta gainontzeko lagunentzako ez dutela interesik.

---

– Emakumezkoek gai askori buruzko informazio gehiago beharko lituzketela sentitzen dutela, baina konfidantza dutenean baino ez dutela horretaz hitz egiten eta orduan konturatzeko direla taldeko gainontzeko emakumeei ere gauza bera gertatzen zitzaiela.

Esandakoaz gainera, ikasgela eta tailer hauek, oro har, helduentzako heziketa hartzeraz doazen emakumezkoen artean halako eskari gordea, kodetu gabekoa, ere badela erakutsi diete irakasleei. Une hauetan, L.O.G.S.E.ren ezarpena kontutan harturik, eta Aukera-berdintasunerako Plana (93/95) beteko bada, beharrezkoa da H.H.I.ko ikastetxeetara doazen emakumezkoen beharrezkoak bereziak curriculetara biltzea. Hots, eskari gorde hori jasotzen duten curricula berriak eta metodologia berriak behar dira eta, gainera, eskaintza birkodetu egin behar da. Azal ditzagun zehatzago kontzeptu hauek <sup>3</sup>:

Hezitzaileek Kodeturiko Eskari bat dago, ikastetxeetako programazioaren bidez bete nahi dena: titulazioa lortzekoa, lan merkatutako prestakuntza, ikasketak-mailaren gehikuntza, etxetik irtetzeko herremanak izateko, etab.

Eskari Esplicitu bat ere badago, hots, emakumezkoek ikastera bultzatzen dituzten motibazioak, nahiak, igurikapenak (“medikamentuak irakurtzeko”, “gutunak idazteko”, “seme-alabei eskolako lanak egiten laguntzeko”, “lan egin ahal izateko” etab:) ezagutzeko aukera ematen diguten esaldi zehatzen bidez aditzera ematen dutena.

Azkenik, Eskari Gordea dago, hezitzaileak emakumezkoek beren desioak, hau da, autoestimazioaren eta norberarekiko balorazioaren beharra, hobeto aritzeko autonomia eskuratzeko, besterekin komunikatzeko beharra, lan merkatuan kualitatiboki sartzeko nahia eta abarrik adierazteko erabiltzen dituen esaldi horien irakurketaren bidez antzeman dezakeena. (Hurrengo orrialdeko taulan ikus daitezke argiago kontzeptu hauek).

Orain arte esandako guztiak, berriz, curricula berriak eginez, ikasteko material desberdinak moldatuz, ikastetxeetako tokiak birbanatuz eta irakasleak etengabe eta egokiro prestatuz baino ez dugula hezkuntza hau Emakumeak gaitzeko, integratzeko eta askatzeko benetako tresna izan dadin lortuko pentsatzera garamatza. Horrez gainera, emakumeak berak inplikatu behar ditugu euren heziketa prozesuan. Horretarako, haien errealitatea eta nahiak aztertzea behar dago, bai maila pertsonalean eta bai maila sozialean. Era berean, inhibiturik eta errekonozitu barik egon den kultura femenino oso bat berreskuratu eta baloratu eta emakume hauek euren bizitza osoan zehar garatutako gaitasun, trebezia eta iaiotasunetik abia-

---

<sup>3</sup> Simone de Beauvoir Eskola Esperimentalaren emaniko ikastaro batean landutako kontzeptuak. (Murtzia, 1989).

tu beharra. Heziketa honek, azkenik, norberaren nahierako bizi-proiektua ahalbide deza-keen jarrera-aldaketa, emakume bakoitzak mugaturikoa, bultzatzeko ere balio izan behar-ko luke.

**HEZITZAILEEK  
KODETURIKO  
ESKARIA**

**EMAKUMEZKOEK BEREN  
NAHIAK, IGURIKAPENAK  
ETAB. ADIERAZTEKO  
ERABILITAKO ESALDI  
KONKRETUAK.  
(Eskari Esplizitua)**

**HEZITZAILEAK ESALDI  
HORIEK ATERATAKO  
IRAKURKETA  
Eskari gordea**

Titulazio lorpena

Medikamentuak, errotuloak, iragarkiak, aginduak etab. irakurtzeko.

Burujabetasuna, hobeto aritzeko askatasuna lortzeko.

Ikasketa-mailaren gehikuntza

Besteei gutunak, eskutitzak, agiriak idazteko.  
Hatzaz baliatu gabe sinatzeko.  
Ayudar a mis hijos en sus deberes.  
Seme-alabei eskolako lanak egiten laguntzeko.

Autoestima y valoración personal y social.

Lan merkatuan sartzeko prestakuntza

"Lan egin eta nire familiari lagundu ahal izateko".

Lan merkatuan kualitatiboki sartzeko nahia.

Beste talde batzutan parte hartzeko

"Bere garaian egiterik izan ez nuena egiteko astia dudanez.

Asumituriko rola dela-eta ukatu egin zaien eskubide bat erreklamatzeko.

Bizitzako beste egoera batzutan moldatzea

" Ez nazaten engaina"  
"Agiri-kontuetan moldatzeko"

Ukatu egin zaizkien bide eta tokiez baliatuz komunikatzeko beharra.

Etiket irteten, harremanak izateko, hitz egiteko, depresioak gaingintzeko etab.

Orain irteten naiz eta hitz egin dezaket".

Astaldiaren beharra eta berorretaz orain arte ez bezala gozatzeko nahia.

"Etiket irteteko, beste pertsona batzuekin harremanak izateko.

Inguruko gizartea ezagutu, jakinaren gainean egoteko.

---

## Bibliografía

- ADAMS, F.: *Andragogía, ciencia de la educación de adultos*, Caracas, Fidea, 1970.
- CUERDA, I.: "Animación sociocultural y proceso educativo" txostena. *La palabra y la voz. Objetivo mujer* delakoan, (poligrafiatua). Ciudad Real, 1990.
- Estado y situación del Sistema Educativo*, txostena. 91/92 ikasturtea, Madril, M.E.C.
- FLECHA, R.: "Sociología de la educación de las personas adultas". *Revista de Educación y Sociedad* delakoan, (poligrafiatua). 7 zk. Bartzelona, 1990.
- GARCÍA LLAMAS, J.L.: *El aprendizaje adulto en un sistema abierto y a distancia*, Madril, Narcea, 1986.
- HERNÁNDEZ, J.: "La educación de adultos como organización para el desarrollo social", *Entre líneas* delakoan, Herri Hezkuntzarako oharrak 5.zk., Madril, Federación Española de Universidades Populares, M.E.C, 1990eko abendua.
- La mujer en cifras 1992*, Madril, Emakumearen Erakundea, 1992.
- MOREIRAS, M.: "La formación permanente de las personas adultas. Formación ocupacional en áreas no tradicionales". *Hezkuntz ikuskaritzarentzako mintegia* delakoan. Madril, M.E.C., 1989.
- ROMERO, I: "Propuesta de debate sobre la especificidad del colectivo femenino en la educación de personas adultas". (Material mekanografiatua), *Curso de Postgrado para responsables de formación en coeducación* delakoan, Madril, M.E.C., 1989.

---

**ANA AYUSTE GONZÁLEZ**

**Helduen hezitzailea eta  
Bartzelonako Unibertsitateko  
(CREA) Helduen Hezkuntzako  
Ikertegikoa**

*Helduen*

*Hezkuntzaren*

*curriculumaren*

*oinarriak*

1.

*Emakumezko helduen  
ikasteko gaitasunaz  
fidatu beharra dago  
defizitaren teoriaren mugak  
eta okerrak gaindituz*

1.1

**EMAKUMEZKO HELDUEN  
IKASTEKO AHALMENA DELA  
ETA DEFIZITAREN TEORIETATIK  
(WECHSLER, PIAGET)  
ERATORTZEN DIREN IRIZKERIAK**

Hirurogeigarren hamarkadara arte, kontzepzio teorikoetatik abiatu eta egun zehazkabetzat eta osagabetzat jotzen diren tresna metodologikoak erabiliz aztertzen zen adimenaren garapena. Ikerlanen ondorioek, hein batean bederen, baieztu egiten dituzte urteak igaro ahala adimena narriatu egiten delako irizkeria sozialak eta zientifikoak.

Piageten Teoria Genetikoak, adimenaren garapenari buruzko teorietarik garrantzitsuenetarikoa, ikasteko adinik egokienak zeintzuk diren ezartzen du eta adimenaren hazkuntza 13 urtetik 15 urtera bitartean bukatzen dela adierazten du. Binet-Simók, Wechslerrek, ..., batez ere, garatutako adimenaren teoria psikometrikoak, berriz, beharrezko inflexio bat seinalatzen du 20 urteen inguruan. Teoria biek aldera uzten dituzte helduaroan ikasteko ahalbideak eta gaitasuna.

Piaget, Wechsler eta Bineten ikerketak, besteak beste, Defizitaren Teoriatzat hartzen dira gaur egun, ikasteko gaitasuna gizakiaren aro jakin batzutura (haurtzarora eta gaztarora) mugatzen baitute, gerora murriztu egiten dela diotela. Teoria hauen beste akats bat zera da, ez dutela hertsiki intelektuala dena eskolatik bereizten, ezarri ziren konparaziozko irizpideak mendebaldeko herrialdeetako ume eskolatu batzuei buruzko ikerketetan oinarrituak baitziren. Hortaz, haiek prestatu adimena neurtzeko testak, funtsean pertsonaren ikasket-maila neurtzen zuten eta ez haren gaitasun intelektualak. Ikuspegi teoriko honetatik, hezkuntza maila txikiko emakume helduak edo eskolatu gabekoak adimen maila normaletik

---

beherakotzat hartzen ziren. "Erazko eragiketen maila gainditu gabeak zirela kontsideratzen zen". Zentzu honetan, adimen-irizpidea ezartzeko erreferentziazko markoa faboratzen ari da horren ezaguna zaigun estereotipoa, hots, gizona, zuria, europarra, klase ertainekoa eta ikasketan eginikoa.

Helduen hezkuntzarentzako oro har, hau bereziki tentuz ibiltzeko modukoa bazen ere, tentu handiagoz ibili beharra dago emakumezko helduen hezkuntzaren kasuan. Gaitasunak ez baina defizita oinarritzat hartzen duten teoria hauek, emakumezkoek gizonetzkoek baino adimen-gaitasun txikiagoa geneukalako kontzepzio tradizionalarekin batera, hezkuntz praktika eta eskaintza zeharo diskriminatzaileen sortarazleak izan dira. Aurrekontuen murrizketak izaten direnean, baliabiderik gehienak gizonetzko gazteen heziketara zuzentzen dira, lehenik gazteak direlako eta, horrenbestez, ikasteko adin egokia omen dutelako eta, bigarrenik, gizonetzkoak direlako eta, beraz, produkzio-jardueretarako gaitasun handiagoa omen dutelako. Aurreko adibidearen logika berberari jarraituz, ohizko irakasleak ere arreta handiagoa eskaintzen die bere ustez ahalbide gehiago dituztenei eta horiek "kasualitatez" gizonetzkoak izan ohi dira.

Helduen ikasteko ahalmenari buruzko kontsiderazio teorikoen gabezia eta gizartearen bila-kaerari buruzko kontzepzio egonkorra direla medio, Helduen Hezkuntza (H.H.), funtsean, konpentsaziozko ikuspegi batetik garatu da, gabezietan eta defizitean oinarriturik eta ez gaitasunetan eta ahalbideetan. Teoria hauen erabilera automatiko eta akritikoak eta haurtzaroari eta nerabezaroari dagozkien metodologia eta baliabide didaktikoen erabilerak asko mugatu dute HHren garapena.

Helduak ez ditu haur hezkuntzaren berariazko ezagupen eta trebeziak ikasi behar, ikasten ari den unean behar ditu, lehenagotik dauzkan estrategia eta tresnen arabera eta ez bere garaiko eskolaritzeaz eskuratutakoaren arabera. Era berean, gizartearen beharrizan eta ezau-garri berrien araberako behar du. Konpentsaziozko ikuspegi batetik, emakumezkoak etxe-koandre ona eta ama ona izaten ikasi beharko luke, horixe irakasten baitzen duela 40 urte, edo katixima ongi ikasi, hamaikatxo emakumek ikasi baitu irakurtzen haren bidez, edo kasurik hoberenean biderkatze-taulak abestuz ikasi.

Profesional askok eta L.O.G.S.E.ren III. tituluak ere helduen hezkuntzaren konpentsaziozko kontzepzioa gainditu duten arren, defizitean eta haurtzaroan eskuratu ez diren trebeziak eta ezagupenak konpentsatzeko beharrean oinarrituriko helduen hezkuntzaren irudia nabari zaigu oraindik ere. Gizarte Arazoen Ministraritzaren P.E.P.A. proiektua (1993) aurkezteko egin zen bideoa ere, nolabait, horren adierazgarri da, esan genezake antzematen den plan-

---

teamendu osoa eta hezkuntz orientabidea helduen irakaskuntzaren ezaugarri berezien araberakoak direla, baina hala ere, programa doakien zenbait emakumeri eginiko elkarrizketak entzun ondoren, emakumezkoen ikasteko arazoak umetan ikasterik ez izatetik baino ez datozela ematen du. Baina egia zera da, ezagutza, zientzia, teknika eta komunikazio-kondeak oso azkar aldatzen direla, eta horrenbestez, denok parte hartu behar dugula etengabeko trebakuntza-prozesutean, eta partehartze hori gaur egunetik etorkizunari begira gauzatu behar dela eta ez iraganetik. Helduen hezkuntzari konpentsaziozko ikuspegi batetik heltzen badiogu, logikoki, bere garaian heziketarik izan ez zutenek hezitakoan hura bukatu egingo da; hortaz, hemendik urte batzutara, eskolaren unibertsalizazioaz eta derrigorezko eskolatzeaz, helduen hezkuntzarako programak ez dira beharrezkoak izango.

## 1.2

### **HELDUEN ADIMENARI BURUZKO ZENBAIT IKERLANEK FROGATZEN DUTE HAREN ALDERDI BATZUK HAZI EGITEN DIRELA ADINAREKIN (SHAIE)**

Berrogeita hamargarren hamarkadan ekin zitzaaien adimenari buruzko luzetarako ikerlanei (gizaki berberarengandik une desberdinetan lortutako neurketak) eta haietatik ateratako ondorioek ordura arte nagusi ziren zeharreko ikerlanetatik (adin desberdinetako gizakiei une berebean eginiko neurketak alderatzen zituztenak) ateratakoen aurkakoak ziren.

Test desberdinen emaitzak alderatzen zituen Shaien ikerlan batek frogatu zuenez, zeharreko testean helduen adimenaren gainbehera ondorioztatzen zen bitartean, luzetarako testean adimenaren nolabaiteko hazkuntza agertzen zen jubilaziotik aurrera ere.

Gaur egun, akats askotxo leporatzen zaizkie luzetarako testei, esate baterako:

- Belaunaldien arteko desberdintasunak ez kontrolatzea. Gazteek, urte gutxiago izateaz gainera, ikasteko aukera gehiago izan dute eta egoera historiko desberdinak bizi izan dituzte. Alde nabarmena dago berrogeigarren hamarkadan jaiotzetik hirurogeita hamargarren hamarkadara jaiotzera, nire amaren aldean nik izan ditudan abantailak funtsezkoak dira, hari bere aitak ez zion ikasten utzi, bere nebak zaindu behar zituelako, nire amak, aitzitik, senperrenak egin zituen ni Unibertsitatara joan nendin.

---

lkerlan hauek erakusten dutenez, gakoa ez datza adimena oro har aztertzean, zeintzuk diren adinarekin gehitzen diren alderdiak edo zeintzuk murrizten direnak aztertzean baizik.

### 1.3

## KOMUNIKAZIO-IKASKUNTZAKO ESPERIENTZIAK

Ikaskuntza prozesua arrakastatsua izango bada, funtsezkoa da autokontzepua eta norbere-kiko balorazio positiboa. Historia guztian zehar, emakumezkoek gure generoa dela-eta jaso ditugun informazio, interpretazio eta pertzepzioak diskriminatzaileak eta zentzu txarrekoak izan dira, horregatik, ikaskuntza-prozesuetan parte hartzen dugunean zaila gertatzen zaigu gure gaitasunetan fidatzen. "Ni ergela naiz, nire semea ordea..." edo "nire senarra horren argia izaki" eta antzerakoak behin eta berriz entzuten dira emakumezko helduek parte hartzen duten ikaskuntza prozesuetan. Zentzu honetan, berdintsuen arteko interakzioa eta hezitzailearen zeregina garrantzizkoak dira erreflexioa eta elkarrizketa ekar dezaketena eta, pixkanaka pixkanaka, emakumezko helduok ikasgeletan, biltzarretan edo auzokoen bilere-tan parte hartzen dugunean izan ohi ditugun eskemak eta aurriritziak hausteko mesedegarriak izan daitezkeen eremuak eta komunikazio-prozesuei irekiteko.

Zenbat eta autoestimazio handiagoa orduan eta hezkuntz arrakasta izateko aukera gehi-go eta zenbat eta arrakasta gehiago orduan eta autoestimazio handiagoa izaten dela esan genezake. Zirkulu itxi bat bezalakoa da, onean norberaren garapena eta ikaskuntzaren mesedegarri dena, baina txarrean, gizakiaren hustasuna eta frustazio-mordoa sor ditzakeena. Horregatik, curriculum ezin da alderdi intelektualetan bakarrik oinarritu, aldi berean eta intentsitate berberaz, sentimenduak, emozioak, alderdi enpatikoak eta pertsonen arteko komunikazioaren oinarritzko elementuak ere oinarritzat hartu behar ditu.

Ikaskuntzaren defizitari buruzko teoriak ikaskuntzarako igurikapen negatiboak sortarazten ditu, halabeharrez betetzen diren profezia bilakatzen direnak. Irakasleek helduaroa ez dela ikasteko arorik egokiena uste badute, eta uste hori keinu eta hitz guztietan nabarmentzen bada, ikaslearen autoestimazio urriarekin batera, ikaskuntza prozesua ia berehala geldiaraziko duen blokeoa sortarazteko ahalbideak gehitu egingo dira. "Amparo ezin du gehi-go egin, muga jo du" edo "ahiturik nago, dagoeneko ez dakit zer egin" bezalako esaldiak nolabait baldintzatu egiten dute ikaskuntza prozesua eta ez dakarte autokritikarik edo baliabide berriak eta planteamendu teoriko desberdinak bilatzeko elementu interesgarriak.

---

Emakumezko helduek ikas dezaketelako usteak, aitzitik, baliabide didaktiko egokiekin eta parte hartzaileen kultur ondare desberdinekiko kontsiderazio zabal eta dinamikoarekin batera, ikaskuntzaren hobekuntza nabarmena dakar. Vygotskyk (hezkuntz sistemaren egungo aldaketa haren teorietan oinarritu da) frogatu zuenez, helduek gaitasun berberak dituzte, aldatzen direnak trebetasunak eta eguneroko arazoak konpontzeko erak dira, hauek bakoitza aritzen den gizarte testuinguruaren arabera direlako. Landako-emakume batek garatzen dituen trebetasunak eta hiriko emakume baten gara ditzaketenak oso desberdinak izan ohi dira, lehenengoari zaila gertatuko zaio hirian ez galtzea eta herri-garraioak erabiltzea, bigarrenak, aldiz, arazoak izango ditu landan jarduteko, baina horrek ez du esan nahi gaitasun berberak ez dituztenik, bakoitzaren ingurunearekin harremanak izateko estrategia desberdinak, haren ezaugarrien arabera alegia, garatzen dituztela baino.

---

2.

*Curriculumak emakumezko  
helduen adimenean eta  
haien nortasunaren  
garapenaren eraugarrietan  
oinarritu neskatoen garapenaren  
berariazko alderdien  
erabilera ikidinez*

2.1

**ADIMEN KRISTALIZATUA  
ETA ESPERIENTZIA**

Catell eta Hornek (1971) adimen jariakorra eta adimen kristalizatua deitu zituzten bi faktoretan sailkatu zuten adimen-trebetasuna eta, horrenbestez, helduen ikaskuntzarako bide berri oparoa ireki zen, oinarri fisiologikoa duen adimen jariakorra urteak igaro ahala behera egiten duen bitartean, esperientziari lotuta dagoen adimen kristalizatua, mantendu ez ezik, adinarekin gehitu egiten dela frogatu zutenean.

Arrazonamendu abstraktozko testak, oroimen-testak eta irudiak elkartzekoak erabiliz neurtzen den adimen jariakorra eskola-ikaskuntzari zuzenean loturik dago, baina oso lotura eskasa du kultur prozesuekin eta eguneroko bizimoduarekin, eta zentzu honetan adinarekin behera egiten du.

Neskato eta neskatilen hezkuntza adimen jariakorraren alderdietan oinarritzea logikoa bada ere, logikoa da, era berean, emakumeentzako curriculumak adimen kristalizatuan oinarritzea. Kontzepzio honetatik eratorritako curriculumak partehartzaile guztien esperientziatik eta haien kultur ondaretik abiatzen dira ikasbidean aurrera egiteko eta norbera jakintzaz hornitzeko interakzioaren bitartez. Ikuspegi honetatik, hezitzaileen kultura akademikoa ez da balio duen bakarra, eta ez dago gainontzekoen gainean, aitzitik, ikasgelan parte hartzen dutenen kontzepzio eta prozedura desberdinekin harremanetan jartzen da. Dendari batek zenbakiak ez baina beste sinbolo batzuk erabiliz matematika-eragiketak

---

egiten ikasi badu, prozedura hori ez da adimen urriago baten adierazgarri, beste era batena baizik. Zentzu honetan, haren esperientzia hartu beharko genuke abiapuntutzat, bere ezagupenak ezagupen akademikoetara transferitzeko eta horrela beste ikasbide batzutan barrena aurrera egin ahal dezan.

## **2.2**

### **GARAPEN-TESTUINGURUEI LOTURIKO ADIMEN PRAKTIKOA (SCRIBNER)**

Larogeigarren hamarkadan, aurreko ikerbideak adimen praktikorantz jo du; kristalizatuaren aldean, adimena garatzen deneko gizarte-testuinguruaren arabeko adimen-multzo ñabar bat dela kontsideratzen duena alegia.

Silvia Scribner, psikologia transkulturalak urratutako bidean aritu den egile garrantzitsuak, ezagutze-prozesuak aztertu zituen erabiltzen direneko testuinguru desberdinetan. Bere ikelan testuinguru laboralak aukeratu zituen, esne-enpresa bateko zenbait eginkizun burutzeko langileek erabilitako gaitasun intelektualen analisia esate baterako (Scribner, 1988). Hortaz, helduen adimena aztertzerakoan ez zen hura gertatzen den ingurune naturaletatik kanpo atera, laborategi baten moduan eta gainontzeko jardueretatik urrun. Eskola-ikaskuntza eta eguneroko ikaskuntza bereizi zituen eta eguneroko ikaskuntza batzuk eskuratzea, sarritan, eskolako ikaste-erari kontrajartzen zaien. Elikagaiak direla-eta, eskolaturiko emakumeek irizpide akademikoei edo zientifikoei jarraituz egin litzaketen sailkapen batean berdurak, barazkiak, lekariak..., bakoitzaren kaloriak eta abarrak agertuko lirateke, heziketa akademiko eskasa edo batere ez duten emakumeen sailkapena, ordea, seguruenik eguneroko prestatzen dituen janariei lotuagoak izango lirateke, edo bestela eurek edo euren familiek gogoko dituzten janarien arabeko zerrenda egingo lukete.

Ikerbide hau oso baliogarria suertatu da eskola-praktikan eta neskatoen eta neskatilen curriculumetan oinarritutako ikaskuntza prozesuak gaunditzeko eta adimen praktikokoan eta helduen ezaugarri berezietan oinarritutako prozesuak garatzeko.

Scribner-ek pentsakera teorikoa eta praktikoa bereizten ditu. Scribner-ek honela definitzen du pentsakera praktikoa: jarduera orokorretan garatzen den pentsakera, lan intelektual eta eskulana bereizi gabe haiek burutzeko xedez.

Oroimena adinarekin hondatzen zelako usteak larogeigarren hamarkadaren amaierara arte iraun du. Ikerlan berriek, ordea, hori ez dela beti betetzen frogatu dute. Helduen hezkuntzarako curriculuma oinarritzeko egin diren oroimen inplizituari, episodikoari eta semantikoari buruzko ikelanak aipa daitezke.

Oroimen semantikoa hitzen eta berauen esannahiaren ezagutzari dagokio, kontzeptuei, harremanei, hala nola, munduari buruzko ezagutza orokorrari, ezagutza hori beretu zeneko denborazko espazioari loturik ez dagoenean.

Oroimen episodikoak, aldiz, gertaeren informazioa dauka, baina testuinguruari eta bereztzeko uneari lotua, beraz, erreferentzia autobiografiko bati lotuta dago, gertaera edo esperientzi pertsonal bat da. Zentzu honetan, informazioaz gainera, informazio hori noiz eta non beretu den ere oroitzen da.

Oroimen episodikoa ahaztearen eta interferentzien pean erortzeko joera duen bitartean, oroimen semantikoa gehitu egiten da adinarekin.

Hemendik urte batzutara, seguruenik, gogoratuko zarete kontzeptu hauetaz, baina, aldi berean, zaila gertatuko zaizue noiz eta non zuenganatu dituzuen gogoratzea. Badakizula baina non irakurri edo ikasi duzun ezin gogoratzearen sentzazioa joenezake oroimen episodikoaren galeratzat; alabaina, bizitza aurrera joan ahala esperientzia eta ezagupen gehiago geureganatzen ditugun neurrian, oroimen semantikoa hazi egiten da, munduaz dakiguna ere hazi egiten baita.

Aurkikunde hauek alderdirik esanguratsuena, berriz, zera da prozesu hauetako bat bera ere ez dela nahitaezkoa. Oroimen episodikoak beheranzko joera badu ere, gainbehera hori geldiaraz daiteke oroimen semantikora transferitzeko ariketekin.

Chase eta Erikson-ek (1982) erakutsi dute gizaki batek, bi urtez aritu ondoren, azkar bistaratutako 82 digito ere gogora ditzakeela, gogoratze-estrategia gisa dakizkien atletismo-markak erabiliz. Praktikak ez du zenbakietarako oroimen handiagoa ematen, informazioa berreskuratzeko egitura une bakoitzean antolatzeko erraztasuna baizik. Informazio semantikoak eskaintzen du informazio episodikoa berreskuratzeko planak antolatzeko ezagutza.

---

Beste alde batetik, pertsona baten biografian funtsezkoak diren informazio episodikoek erraztu egiten dute informazio episodiko berriak (zenbaki nahiz hitz zerrendak) gogoratze-ko lana. Banku-txartelak erabiltzen ditugunetako askok gure jaiotze data edo garrantzitsua den eta, beraz, ahaztuko ez zaigun beste data bat erabiltzen dugulako gogoratzen ditugu sartzeko kodearen zenbakiak. Informazioa zenbat eta garrantzitsuagoa izan orduan eta zailagoa izango da hura ahaztea.

## **2.4**

### **EMAKUMEZKO HELDUEN NORTASUNA EGOERA ETA BEHARRIZAN BERRIEN ETA NORBERAREN ERRONKEN ARABERA ALDATZEN DA**

Adimenaren defizitari buruzko teoriak dauden bezala, maila psikoafektiboaren defizitari buruzkoa teoriak ere badirela esan dezakegu. Helduaroa beti jo izan da maila egonkortzat, maila pertsonaleko hazkunderik eta aldaketazko egoera garrantzitsurik gabekoa alegia. Freud-ek, adibidez, nerabezaroan jarri zuen nortasunaren garapenaren muga. Erikson-en Teoria Psikoanalitikoak eta Bizi-zikloaren Teoriak, ordea, pertsona helduak krisialdi desberdinak igarotzen dituela eta haiek gaingaitzen diren neurrian garapen pertsonala suertatzen dela frogatzen dute.

Erikson-eko zabaldu egiten du Freud-en teoria eta nerabezaroaz geroztik zenbait gatazka konpontzearekin zerikusia duten garapen-aldiak aipatzen ditu: helduaro gaztea: intimitatea/isolamendua, helaro betea: sortzailetasuna/gelditasuna eta heldutasuna: integrazioa/etsipena, eta Bizi-Zikloaren Teoriak gizakiaren bizitzako gertaera batzuk (langabezia, dibortzioa, seme edo alaba baten jaiotza, talde politiko edo ideologiko batetan egotea, etab.) aldatzeko eta ikasteko bultzagarri izan daitezkeela erakusten du.

Beste teoria batzuek, aldiz, ikuspegi dialektikoago batetik ikusten dute emakume nagusiaren nortasuna, bakoitzaren ingurune soziokulturalarekiko etengabeko interakzioan. Nagusien nortasunak egonkorrak izan ohi diren arren, zenbait gertaera kritikok ereduak hauts ditzakete, hala taldeenak nola norbanakoenak. Depresio Haundiak, esate baterako, eragin nabarmena izan zuen garai hartan nerabeak zirenen belaunaldian (Shai eta Willis, 1986).

---

Konfidantza, autoestimazioa, autonomia, ekimena, etab. adinarekin eta esperientziarekin finkatuz doazen nortasunaren alderdiak dira. Zentzu honetan, helaroa ulertzeko beste era bat da naguziaren bizitza prozesu dialektikotzat jotzen duena. Pertsonaren eta etengabe aldatzen ari den gizartearen artean ezartzen den dialektika alegia.

Zenbait gatazka edo krisialdi ikasteko eta norbera garatzeko motibazio-iturri gerta daitezkeelako ustea lagungarria gerta dakiguke pertsona nagusien hezkuntzarako curriculumak bideratzerakoan. Eskolara joatea, berez, garrantziko aldaketa da emakume askorentzat, hala gainontzeko harremani dagokienez, nola bere buruari dagokionez. Eskolara joateko apaintzen hasteaz gainera, seme-alabekiko eta senar edo lagunekiko harremanak ere aldatzen hasten dira.

## **2.5**

### **CURRICULUM EZKUTUA: GIZONEZKOA, ZURIA, EUOPARRA ETA KOMUNIKAZIO-IKASKUNTZA AKADEMIKOA**

Hirurogeita hamargarren hamarkadan zehar nagusi izan diren teoriak, funtsean marxista-estruturalistak, eragin handia izan dute helduen hezkuntzan eta, helburutzat emakumezko helduak "kontzientizatzea" eta opresio egoeratik askatzea zutela, ezagutzaren eta egia jabe omen den hezitzailea dute oinarri. Irizpide hauek kritika anitz jaso dute ikaslea transformazio-gaitzat eta irakaslea transformatzailatzat hartzeagatik. Jarrera honek erlazio-eredu bertikal bat eskatzen baitu eta, halaber, adostasunaren edo partehartzaile guztien eraketaren ondorioz ez baina hezitzailearen eta ez beste inoren ondorioz zertzen den gizarteari eta pertsonari dagokion eredu baten transmisio ideologiko eta politikoa. Guk, emakumezko hezitzaileak garen aldetik, gure ikastetxe edo elkarteetara datozen emakumezkoen aldean askeak garelakoan, gure bizimodua eta sexualitate-eredua zabaltzen ahalegin gaitzke, baina zuzenago jokatzeko, hezitzailearen abotsa eta iritzia besteena bezalakoa den elkarriketazko jokaera batetik abiatuta, emakumezko helduek beren iritzia eman, hausnartu, eskemak hautsi eta, hala baderitzote, aurriritzietatik askatu ahal izateko komunikazio-guneak sortu beharko genituzke.

---

Gaur egun, Habermasen Komunikazio-Ekintza deritzona bezalako teoriak lagungarriak gerta dakizkiguke, partehartzaile guztiek subjektu bihurtzen direneko eta, genero, kultura eta gizatalde desberdinen arteko berdintasunetik, erreflexio eta elkarrizketazko dinamika bat ezartzen deneko elkarrizketazko eta komunikazio intersubjektiboko prozesu batean oinarrituriko teoriak eta praktikak eraikitzeko.

Hezkuntz ekintza gehienetan curriculum ezkutuak beti lehenesten ditu nagusi diren gizataldeen interesak. Hortaz, gizonezkoa, zuria, europarra eta klase ertainekoa dena dugu pribilegiatuena. Komunikaziozko kontzepzioetik, aitzitik, egoera hau aldarazi nahi da, genero, arraza, adin edo egoera sozioekonomikoaren ziozko diskriminazioak galeraziz, curriculumean abots guztiak kontutan harturik. Zeren, curriculumean isilpean dagoen generoa emakumezkoarena dela egia bada ere, egia baita, halaber, hurrengo aldagaion arteko elkarloturak, hots, emakumezkoa, koloreduna, heziketa eskasa duena eta/edo beheko gizatalde ekonomikokoa, are egoera larriagoan jartzen duela emakumezkoa.

### 3.

## *Hezkuntzaren garrantzia egungo informazioaren gizartean*

### 3.1

#### INFORMAZIOAREN GIZARTEA

Gaur egun gizarte berri bat sortzen ari deneko prozesu bizi-bizi batean gaude. Industriaren gizartearen krisialdia hasi zenetik, industria ondoko gizartea deitu zaio egoera berriari, dagoeneko ez denagatik orain denagatik baino gehiago. Egin diren azterketa sakon eta garrantzitsuek (Naisbitt, 1990; Castells, 1986) erakusten dituzte gizartearen informazio honen ezaugarri berriak:

- a) gauzak produzitzeko eginkizuneranzko joera merkataritza eta diseinurako joera bilakatu da. Lehen langile gehienek produkzio sektorean ziharduten orain, aldiz, lan-indarra salmenta-sektorean erabiltzen da gehien bat eta herrialde aurreratuenetan diseinuan;
- b) aldaketarik nabarmenenak prozesuetan gertatzen dira ez produktuetan. Gauza berriak egitea baino garrantzitsuagoa da beste era batera egitea;
- c) informazioa da lehengairik funtzeskoena, lehenengo industri iraultzan eta bigarrean lurin-makina eta elektrizitatea hurrenez hurren gertatu ziren bezalaxe.

Adibide gisa, larogeigarren hamarkadan gertatutakoa aipa genezake, hots, etengabe sortu ziren informazio sektorean sar daitezkeen enpresa berriak, hala nola, aholkularitza fiskalak, kudeatzaitzak, diseinugileak, marketing adituak, hainbat jardueraren antolatzaile eta eragileak, etab. Horrez gainera, informazioaren sektorearen hazkuntza, industri sektorearena eta zerbitzuarena ez bezala, ez da informazioa kudeatzen duten enpresa berriak sortzearen ondorio hutsa izan, zeren sektore berri hau gainontzeko sektore zahar guztietara zabaldu baita. Abeletxeen kontrol informatikoa, muntaia-kateetako robotak eta ospitaleetako datu informatizatutak, beste batzuren artean, sektore honen eta iraultza informazionikoaren garrantzia gero eta handiagoaren adierazgarriak dira.

Gizarte berri honen eraketan, bestalde, baliabide intelektualak eta hezkuntza bereziki nabarmentzen dira. Informazioa eta ezagupenak bizitzaren arlo guztietara hedatzen dira eta hezkuntza informazioa prozesatzeko gaitasunak garatzeko prozesu gisa ulertzen da.

Era berean, gizarte hau demokratikoagoa eta berdintzaileagoa dela esaten da, pertsona guztiok daukagulako informazioa prozesatzeko gaitasuna eta produkzio-bideak gutxi batzurenak baino ez dira. Hala ere, denok dakigu zenbat ordaindu behar den eskola pribatu batzutura edo zenbait biltzarretara joateko.

Ekonomi sektore guztietan gertatu den prozesu honen ondorioz, iraultza informazionikoari lehenago ekin zioten herrialdeetan enplegaturiko biztanleriaren ehuneko berrogeitik gora informazioaren sektorean ari da ondoko taulan ikus daitekeen moduan:

### Informazioaren sektorean enplegaturiko biztanleria 1990ean

HERRIALDEA	%
Alemania (AEF)	40,0
Estatu Batuak	47,4
Frantzia	45,1
Erresuma Batua	45,8

Iturria: Manuel Castels eta Yuko Aoyama, egiten ari den ikerketa, Castellek aipatua The New Global Economy in the Information Age delakoan, The Pennsylvania State University Press, 1993.

## 3.2

## DARWINISMO SOZIALA

Gizarte-eredu berriak, hein batean, areagotu egiten ditu desberdintasun zaharrak eta berriak sortu ere bai. Enpleguaren teknifikazioa dela medio, eta kualifikaziorik gabeko (hau da, informazioaren jabe ez dena) eskulana gero eta gutxiago behar denetik, gizartea zatitzen ari da, zeren, ahalbide berriak lan-jarduna murrizteko erabili beharrean, gero eta gehiago baitira lanik gabe edo lan prekarioagoetan dauden pertsonak. Egoera honek gizartearen zatiketa dakar eta soziologi azterlanetan gizarte dual edo bi herenen gizartea (Gorz 1986) deituta gara. Gizarte horretan, lanarekiko harremanaren ondoriozko elite pribilegiatu bat dago (kontratu finkoak, ongi ordainduak), lanarekiko harremana inoizkako izanik, horren pribilegiatua ez den baina nolabaiteko eskuratzeko ahala eta lan egonkortasuna dituen beste sektore bat eta, azkenik, lan arloko dinamikatik bazterturik dauden sektorea dago, gehien daukanak gehiago balio duelako usteak diraueneko gizarte kontsumitzaile batekoa izatearen ondorio larriak pairatzen duen sektorea alegia.

Darwinismo sozialeko prozesuetan eragin handia duen beste faktore bat zera da, diferentziaren feminismoaren bezalako jarrerak, hots, emakumearen identitatea nabarmentzen

---

duten alderdien defentsa sutsuan oinarritzen direnak. Emakumearen gorputza, sexualitatea eta amatasuna dira esandakoaren adibide bat.

Feminismoa zaitu egin da, emakume-talde batzuek antzekotasunak nabarmentzen dituzte, beste batzuek, ordea, hirurogeita hamargarren hamarkadaz geroztik gero eta gehiago direnak, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak azpimarratzen dituzte. Aipaturiko lehenengoak informazioaren gizarte honetan gero eta handiagoak diren desberdintasunei aurka egiteko estrategiak planteatu dituzte; besteek, aldiz, emakumezkoen birtute bereziak diren aldetik "ama-jokaerei" eta "seme-alaben hezierari" eustearen garrantzia defendatzen dute. Identitateak, hala ere, ez dira generotik, arrazatik, adinetik edo orientabide sexualetatik bakarrik sortzen, gizarte-testuinguru historiko berezietan izanaren zentzutik baino.

Ezkerreko korranteek, zapaldurik dauden beste gizatalde batzuren interesak ez ezik, emakumezkoen esperientziak eta diskurtsoak eta haien bizimodu politiko eta kulturala ere jaso ditzaten borrokatu da berdintasunaren feminismoa. Diferentziaren feminismoak, aldiz, pentsamolde postmodernoko Derrida, Foucault eta Lyotard bezalako egileen eraginez, emakumezkoak gehien zapaltzen dituzten baloreak defendatzen ditu eta, aldi berean, berdintasunaren feminismoari etengabe eraso egiten dio, berau baita zapalkuntzako eta boterezko era desberdinen aurkako mugimendurik kritikoa.

Mendebaldeko gizarteetan bi herenen gizartea eta darwinismo soziala gero eta finkatua goak direla frogatu daitekeen bezala, lanaren nazioarteko banaketan eragin handia duten faktoreetako bat giza-baliabideen hezkuntz garapenaren maila dela ere frogatu daiteke. Unibertsitatea langabetuen fabrika dela edo emakume gazteak enplegutik baztertuenak direla bezalako usteak ez dira bene-benetakoak.

Eta adibide gisa, 1992ko hirugarren hiruhilabeteko E.P.A. delakotik ateratako datu hauek ikus ditzakegu: 92an, analfabetoen %9,9k eta lehen-mailako ikasketak zituztenen %38,9k baino ez zuten lan egiten, goimailako tituludunen artean, berriz, %70,8 lanean ari zen. Sektorre hauetako batean edo bestean izatea gero eta lotuago dago informazioa erabiltzeko aukera izateari.

Era berean, 1992ko laugarren hiruhilabeteko EPAren arabera (INE: 1993 16, 186), lanean ari diren emakume gazteen tasa %24,7koa den bitartean, E.P.A.n analfeto gisa agertzen diren emakumezkoena, adin aktiboa dutenena hain zuzen, %11,2koa da.

Egoera berri honen aurrean, hezkuntza arloan diharduten zenbaitek, hezkuntzaren ohizko edukinak teknologia berrietan eta lanbide berrietan oinarrituriko edukin bihurtuz, hezkuntza

---

ekonomi espezializazioaren zerbitzura jarri behar delako ideia defendatu dute. Baina, beste azterlan batzuek erakusten dutenaren arabera, teknologien erabilpenak erraztu egiten du lana eta gutxiengo batek baino ez omen ditu teknologia handiko lanak egingo. Zentzu honetan, ezagupenen konplexutasun gero eta handiagoan ez baina bilakaeraren erritmo azkarragoan oinarritutako kontzepzio dinamiko batetik abiatu behar du hezkuntzak. Trebetasun berriak azkarrago ikasteko gaitasun handiagoa behar da, eta horrek oinarritzko ezagupenezko heziketa egokia eskatzen du. Oinarritzko ezaupenezko heziketa diogunean, ez dugu esan nahi denetarik ikasi behar denik, baizik eta bai teknologia mailako eta bai enpresaren antolaketa mailako egoera berrietara egokitzen azkar ikasteko aukera emango dituguten trebetasun eta abileziak ikasi behar direla. (Flecha 1990).

Gaur egungo krisialditik irteteko, hezkuntz politikak aldatu behar dira eta ez, orain arte bezala, kaleratzeak erraztu langabezia areagotuz. Teknologia berriak ere ez dira lanagabekiaren sortarazleak. Estatu Batuak eta Japonia Europa baino aurreratuagoak dira teknologiarik dagokionez, baina Europak baino langabezia gutxiago dute. Eta Europa barruan, teknologikoki atzeratuagoak diren gurea bezalako gizarteetan nabari da langabeziarik handiena. Beste alde batetik, balioaniztasun handiagoa erantsi behar zaio heziketari, baldin eta, uste den bezala, pertsona baten bizitzan zehar lauzpabost lan aldaketa izango badira. (Castells, M. El País, 1994ko martxoak 22).

### 3.3

### DESNI BELATZE-FAKTORE BERRIAK

Irakaskuntzaren erreformaren funtsezko elementu bat zera da, ororentzako derrigorrezko heziketa-maila berdinen ikastaldia 14 urtetik 16 urtera luzatzea. Behin eta berriz aipatu diren onurez gainera, ia erabat ahaztu den ondorio bat ere badakar luzapen horrek. Pertsona guztiei ez dagokien neurrian, oraingoz 16 urte bete gabe dituztenei baino ez baitagokie, nabarmenki areagotzen du nagusien desberdinatsuna.

Orain arte, O.H.O.ren amaieran ematen ziren bi kredentzialak hartzen ziren derrigorrezko hezkuntz titulaziotzat. 1981ko zentsuaren arabera, hiru emakume helduetarik batek ez zen ez bata ez bestearen jabe eta, horrenbestez, ez zuen beste hezkuntz mailetara heltzerik ez eta beste gizarte arlo batzutan, lan merkatuan esate baterako, zenbait toki betetzeko aukerarik.

---

Orain, aldiz, derrigorrezko hezkuntz titulu berria Bigarren Mailako Graduatua (B.M.G.) da. Larogeigarren hamarkadan derrigorrezkoa zen titulazioa (eskola-graduatua, adibidez) zuten emakumezko heldu askok ez dute larogeita hamargarren hamarkadakoa. L.O.G.S.E. delakoak, bere bigarren mailako derrigorrezko hezkuntza eta dagokion B.M.G.az, akasdu gisa birkualifikatu du bere hezkuntza maila. Horrek aldaketa erabakiorrak dakartza, haiek lehenago hel zitezkeen hezkuntz eta gizarte maila batzutara orain helezinak izatea, esate baterako.

2.000. urterako biztanleriaren %80k gutxi gora behera ez dutela derrigorrezko hezkuntz titulazioa izango uste da:

- orain eskola-graduatua ez dutenen %60;
- B.B.B.ri edo L.H.ri lehenengo urtean utziko dietenak; eta
- derrigorrezko eskolatzeari hamasei urte bete baino lehen utzitakoak.

Desnibelatze-eraginaren ondorioak areagotu egiten dira desberdintasun kulturalaren zirkulu itxiaren dinamikaz. Informazioaren mundu honetan, non ezagupen gutxiago eta informazioa erabiltzeko gaitasun txikiagoa dituztenak bizimodu sozialaren arlo guztietan baztertuak diren, konparaziozko desabantailak gainditzeko aukera eman beharko lukeen hezkuntz jardueratik ere baztertuak dira. F.I.P. izeneko Planean parte hartu zutenei buruz Lan Ministeritzak (Enpleguko Zuzendaritza Nagusia 1989) ezagutzera emandako datuak kezka-garriak dira alde horretatik: Unibertsitateko ikasketak zituzten emakume landunek analfabetoek ikastaroetan partehartzeko izandako aukerak halako 30 bider gehiago izan zituzten.

4.

## *Norberaren kultur produktuak bultzatu jarraipen irizpidea gaindituz*

4.1

### **BEREIZKETAREN TEORIAK (BOURDIEU, 1979)**

Gizarte-sektore pribilegiatuak kultur produktuetatik zeintzuk diren baliogarriak eta zeintzuk mugatzen duten gizatalde desberdinen arteko bereizketa erabakitzeko irizpideak ezartzeko botere sinbolikoaren jabe dira. Gauzak honela, kultura hegemonikoaren adierazgarri den aldetik, curriculumak, gehienetan, gizartean pribilegiatuak diren taldeen balioak, jokabideak eta irizpide estetikoak transmititzen ditu, eskuarki herri-kulturararen kaltetan.

Informazioaren gizarteak, naguzitzen ari den darwinismo sozialaren ereduak eta postmodernismoak eta desberdintasunaren feminismoak bezalako pentsamoldeek bultzatutako identitatearen eta berezitasunen gorespenak praktika soziokulturalak bereizteko irizpidearen sendotzea sortarazi dute. Sektore pribilegiatuak euren kultur ohiturak aldatzen dituzte gainontzeko gizataldeek haiei heltzen dien neurrian. Horregatik sortzen dituzte elementu kultural berriak, euren pribilegiozko egoerari eusteko bereizgarri gisa. Norbait gizatalde jakin batekoa dela frogatzeko modu bat kultura menperatzailearen ezaugarri diren elementu kulturalak erakustean datza. Sektore hauek, euren statusari eusteko, euren boterea legitimatu eta gizartearen aldaketak eragozten dituzten praktika soziokultural berriak asmatu behar dituzte. Biztanle gehienek kanpoan lan egiten zutenean, sektore pribilegiatuak azal zuria gozesten zuten besteengandik bereizteko. Industriaren garapen handiarekin langileek ez ziren horren beltzaranduak, lantegietan eta bulegoetan lan egiten baitzuten, eta orduan hondartzako eguzkia bihurtu zen elitearen bereizgarri. Gerora, biztanle gehienek hondartzaratu ahal izan zutenean elurreko beltzarana goretsi zen.

Gure eragiketa soziokulturala unean uneko modei eta gizatalde menperatzaileen bereizketa-irizpideei loturiko kultur jarduera bilakatzea nahi ez badugu, garrantzizkoa da analisi honetatik abiatzea. Toki askotan sevillanak dantzatzen hasi dira, baina ez nortasun kulture-

---

ko elementu bat norberaren herrialdetik kanpo berreskuratzearen, baizik eta Madrileko jende politikak, dantza hori mekanizatuz eta herri-kulturarekiko sentimendu oro deuseztatuz, haiek dantzatzeari ekin diolako.

## 4.2

### BIZITZAREN MUNDUAREN KOLONIZAZIOA

Astialdiaren areagotzea eta informazioaren gizartera igarotzeak sortarazitako egoera berria direla medio, sistemak aisia betetzera zuzendutako kultur industria gero eta handiagoaren garapena ekarri du (Adorno). André Gorzek dioenez, "mistifikazioaren, ezjakintasuna iraunaraztearen, kulturaren suntsipenaren, erreflexuen kondizionamenduaren eta astialdia jolas antzuen kontsumo hutsera zuzendutako denbora pasibo eta huts bihurtzearen zerbitzura dagoen tresna da".

Zenbaitek "masen kultura" deitu diote, haiengandik berez sortutako kultur produktua balitz bezala, edo herri-kultura bailitzan, egia esateko, goitik ezarritako kultura delarik, gutxi batzuren mesedetan ezarria eta bizitza pribatua sistematizatu eta zientifizizatzeko ahalegin bat.

Kultur idustriak bi helburu betetzen ditu: jendea benetako arazoetatik aldendu eta ihesbideak eskaini norberaren interesekin zerikusirik ez duten balore eta jokaera arrotzak asumituz. Hortaz, kultur industria da, hain zuzen ere, sistemak bere hegemonia bermatzeko erabiltzen dituen funtsezko tresnetako bat, Gramscik zioen moduan: "hegemonia delakoa ordena bat da, non bizimodu eta pentsamolde jakin bat den nagusi, non errealitateari buruzko kontzeptu jakin bat gizaratean zabaltzen den adierazpen instituzionalen eta pribatuen bitartez, haren izpiritua erantsiz gustuari, moralitateari, ohiturei eta printzipio erlijioso eta politikoei, bai eta gizarte harremani ere, konnotazio intelektual eta moralei dagokienez bereziki".

Begi bistakoa da, halaber, auzo baztertuenetan nabari dela etxe bakoitzeko bideo eta bideojoko-kopururik nabarmenena. Kultur industriaren produktuen eta entretenimendu eta jarraipen hutsezko (sevillanak, ederragotzeko edo seduzitzeko teknikak ezagutzeko ikastarotak) irizpideen arabera eragiketa soziokulturalen bitartez, bizitzaren munduaren ingeniartzeko kolonizazioa gizakiaren baitako mamiraino heltzen da eta gizakiak homogenizatzen eta haien arteko harremanak mekanizatzen darama.

## 5.1

**HEZKUNTZ DARWINISMO BERRIA:  
HEZKUNTZA AUKERAKETA  
SOZIALERAKO TRESNA GISA**

Irakaskuntzaren erreformaren funtsezko abiapuntuetako bat dibertsitatea dugu. Curriculumaren konkrezio-maila desberdinez emakumezko ikasleen ezaugarri desberdinetara moldatzeko aukera dugu. Hala eta guztiz ere, orain arteko gogoetan ia aipatu ere ez da egin irakaskuntzaren erreforma hori zuzentzen zaion gizartea ezberdina ez ezik desberdina ere badela. Hutsune honek, berriz, dibertsitaterako egokitzearen itzalpean, funtsean desberdintasunerako egokitzea ekar dezake hura gaingintzeko ahaleginaren ordez.

Desberdintasuna nabari zaion gizarte baten orientabide nagusiak proiektu curricular ezberdinen moldaketa eta abiarazteak aurretiko desberdintasunak sendetsi eta finkatzeko joera du. Askotariko faktoreen (ekonomi ahalbideak, ingurunearen igurikapenak, gurasoen kultur maila, etab.) eraginez, eskaintako proiektu curricularrak oso desberdinak izango dira gizarte-klasea bezalako irizpideen arabera. Dibertsitatearen abiapuntu bera ere faktore horietariko bat bihurtzeko arriskua dugu.

Helburua emakume guztiak ikaskuntz maila berberera heltzea ez bada, helburua prozesu ezberdinekiko begirunean badatza, errealitatean hezkuntz maila oso desberdinak dauzkaten proiektu curricularren aukera ere positibotzat jo daiteke. Litekeena da, eliteko ikastetxe pribatuek irakaskuntza lehiakorretan jardurtea hezkuntz sistemaren eta, oro har, gizartearen goi-mailetan eta, aldi berean, auzo-eskolak ahaleginak egitea emakumezko ikasleek eskola-orduak ahalik eta baketsuen eta zerbait ikasten eman ditzaten.

Litekeena da informatika programazioa bezalako tailerrak funtsezkoak izatea aurrenekoetan, besteetan joskintza eta antzerakoak zabaltzen diren bitartean. Litekeena da, halaber, jarduera berbera aintzat harturik ere, aurrenekoetan lehiakortasuna nabarmentzea eta besteetan soziabilitatea.

Hala gertatuko balitz, umetatik hasita, egungo informazioaren gizartearen garapena homogenizatzen ari den ereduak ekartzen ari gataizkien desberdintasun berrietara egokitzen ari lirateke emakumezko ikasleak. Kualifikazio handiko profesionalen sektorea, soldata oparok eta begirune soziala dituenak, alde batetik, eta bigarren mailako bizi-baldintzak dituz-

---

ten egiturazko langabetuen sektorerara, bestetik. Eskala horren goien dauden mailetara hel-  
tzeko heziketa oso lehiakorra behar da. Beheko mailetarako egoera hori agresibitate barik  
onesteko aztura behar da.

## 5.2

## CURRICULUMA ETA TRANSFORMAZIOA

Curriculum ofizialak gizona, zuria, europarra eta klase ertainekoa denaren balore hegemo-  
nikoak transmititzen baditu ere, litekeena da, era berean, curriculumak irakaskuntz prozesuan  
parte hartzen duten pertsona guztien esperientzietatik eta diskurtsoetatik abiatuta oinarritu  
eta eratzea. Hezkuntzak birsorrerarako nahiz transformaziorako elementuak dakartza. Hez-  
kuntz testuinguru homogenotzaileetan ere emakumezko helduak eta ikasleak, oro har, erre-  
sistentzia-mekanismoak sortu eta komunikaziorako, erreflexiorako eta aldaketarako guneak  
sortzeko gai dira.

Zentzu honetan, helburua ez da kultur produktuetara edo hezkuntz ereduetara pentsamolde  
maskulino batetik heltzea, ez eta haien jokamoldeak imitatzea, baizik eta geure erlazio-iriz-  
pide bereziak sortzea eta gure baloreak eta bizitza ulertzeko modua zabaltzea. Gizonez-  
koak emakumezkoak baino argiagoak eta hobeak direla sinestarazi digute baiezipen horien  
gibelekoa eta curriculum ezkutua aztertu gabe.

Pedagogia kritikoaren ikuspegitik, eskola herri-eremu demokratikotzat hartzen da eta hezi-  
tzailea intelektual organikotzat (Giroux, 1990), elkarrizketa bultzatu eta erkide guztien inte-  
resak, hau da, emakume, gutxiengo etniko, gizatalde ezberdin, gazte eta zahar eta aba-  
rrenak, biltzen dituzten hezkuntz ekintza transformatzaileak eta curriculumak garatzeko  
aukerak bideratu behar dituen alegia.

## Bibliografía

- Benhadid, S.; Cornella, C.: *Teoría feminista y teoría crítica*, Valentzia, Alfons el Magnánim, 1990.
- Berger, P.L.; Kellner, H.: *Sociology Reinterpreted. An Essay on Method and Vocation*, Garden City, Anchor Press / Doubleday, 1981 (Espasa-Calpe, Madril, 1985).
- Bourdieu, P.: *La distinction: critique sociale du jugement*, Paris, Les Editions de Minuit, 1979 (Taurus, Madril, 1988).
- Castells, M.; eta beste: *Nuevas tecnologías, economía y sociedad en España*, Madril, Alianza, 2 lib., 1986.
- Cattel, R.B.: *The Discovery of Fluid and Crystallized General Intelligence*, Boston, Houghton Mifflin, 1971.
- Derrida, J.: *De la Grammatologie*, Paris, Editions de la Minuit, 1968.
- Encuesta de población activa. Primeros resultados. Tercer trimestre 1993*, Madril, Estatistikako Erakunde Nazionala, 1993.
- Encuesta de población activa. Resultados detallados. Cuarto trimestre 1992*, Madril, Estatistikako Erakunde Nazionala, 1993.
- Flecha, R.: *Educación de las personas adultas*, Bartzelona, El Roure, 1990.
- Flecha, R.: *La nueva desigualdad cultural*, Bartzelona, El Roure, 1990.
- Foucault, M.: *Histoire de la sexualité 1. La volonté a savoir*, Paris, Gallimard, 1976 (Siglo XXI, Mexiko, 1984).
- Foucault, M.: *Histoire de la sexualité 2. L'usage des plaisirs*, Paris, Gallimard, 1984 (Siglo XXI, Mexiko, 1986).
- Foucault, M.: *Histoire de la sexualité 3. Le souci de soi*, Paris, Gallimard, 1984 (Siglo XXI, Mexiko, 1987).
- García Madruga, J.A.; Carretero, M.: "La inteligencia en la vida adulta". Carretero, M., Palacios, J.; Marchesi, A. 1985. *Psicología evolutiva*. 3, Madril, Alianza, 1985.
- Giroux H.; Flecha, R.: *Igualdad educativa y diferencia cultural*, Bartzelona, El Roure, 1992.
- Giroux, H.: *Los profesores como intelectuales*, Bartzelona, Paidós/MEC, 1990.
- Gorz, A.: *Los caminos del paraíso. Para comprender la crisis y salir de ella por la izquierda*, Bartzelona, Laia, 1986.
- Gramsci, A.: *La alternativa pedagógica*, Bartzelona, Nova Terra, 1976.
- Habermas, J.: Política conservadora, trabajo, socialismo y utopía hoy. *Ensayos políticos*. Bartzelona, Península, 1988 (1983an argitaratutako jatorrizko lana).

- 
- Habermas, J.: *Teoría de la acción comunicativa. I. Lib. Racionalidad de la acción y racionalización social*, Madril, Taurus, 1987.
- Habermas, J.: *Teoría de la acción comunicativa. II. Lib. Crítica de la razón funcionalista*, Madril, Taurus, 1987.
- Iriagaray, L.: *Le temps de la différence*, Paris, Librairie Générale Française, 1989.
- La formación profesional en España. El Plan F.I.P. 1985-1989*, Madril, Lan eta Gizarte Segurantzako Ministraritzak, 1989.
- Lyotard, J.F.: *La condition postmoderne. Rapport sur le savoir*, Paris, Les éditions de minuit, 1979 (Cátedra, Madril, 1984).
- Naisbitt, J.; Aburdene, P.: *Megatrends 2000*, Londres, Sidwick & Jackson Limited, 1990.
- Nietzsche, F.: *La genealogía de la moral*, Madril, Alianza 10 berrearg. (1. arg., 1972), 1987 (Jatorrizko lana 1887an argitaratua).
- Schaie, K.W.: *Longitudinal Studies of Adult Psychological Development*, New York & London, The Guilford Press, 1983.
- Scribner, S.: *Head and hand: An Action Approach to Thinking*, Teachers College, Columbia University. National Center on Education and Employment. (ERIC Document development in social context), Cambridge, Massachusetts. Harvard University Press, 1988.
- Scribner, S.: Thinking in Action: Some Characteristics of Practical Thought. In Stenberg R.J. & Wagner R.K. (Eds.), *Practical Intelligence. Nature and Origins of Competence in Everyday World*, New York, Cambridge University Press, 1986.
- Segal, L.: "¿La izquierda de quién? El socialismo, el feminismo y el futuro". Blackburn, R (ed.) delakoan. *Después de la caída*, Bartzelona, Crítica, 1993.
- Tulving, E.; Schacter, D.L.; Stark, H.A.: "Priming Effects in Word-Fragment Completion are Independent or Recognition Memory". *Journal of Experimental Psychology: Learning, Memory and Cognition*, 1982.
- Wechsler, D.: *The measurement and Appraisal of Adult Intelligence*, Baltimore, The Williams & Wilkins Company, 1958.

---

**SOLEDAD MURILLO DE LA VEGA**

**Salamancako Unibertsitateko  
Gizarte Zientzien Fakultateko  
irakaslea**

*Emakumezkoen*

*lanaren*

*balorazioa euren*

*herkuntzaren*

*oinarri gisa*

*"Zentzugabekoa zera da, etxe-unitateak analisi  
makroekonomikotik at uztea, haiak osatzen baitute  
egituraren erdia"*

M.º Angeles Durán

*De puertas adentro*

Baloratzea neurtzea da, hots, errealitate bat eta beronen ezaugarriak azaltzeko gauza diren irizpideak mugatzea. Arazoa, ordea, neurri-baliokidetasunak dimentsio bakarrera mugatzen direnean eta, produkzio eta kapital metaketarako legeen arabera emaitza bakar batera, hau da, balioa eta diru erreal edo sinbolikoa gauza bera delakora biltzen direnean agertzen da.

Murrizketa hori, gainera, negazio-dispositibo bat eransten bazaio, hots, "moneta-sistemaz kanpoko edozein ekintzak ez du identitaterik" esaldiaz labur genezakeena, errealitatea oso mugatua gertatzen da, produkzioaren funtzionamendu praktikokoaren pean ezkutatua. Ekuazio honen arabera, trukaketa-erregulazio batetik at dagoen edozerk bere zentzua galtzeko arriskua du.

Etxe-arloak mekanismo bikoitz honen erasoak jasan du, ikusgai den ororen zirkulutik at geratu delarik, arlo honetan gertatzen dena ordaintzerik edo neurtzerik ez dagoelakoan. Honatx paradoxarik handiena, etxetik eratorritakoaz denok onuratu garela ukazina delarik, haren desprestigioa ez da atzoko kontua, urteak, mendeak direla sortua baizik; mendeetan zehar errotu baitira etxekoa naturari lotzen dioten diskurtsoak, natura bukoliko bati alegia, neurtzen hain zaila dena ezen hura neurtzen eta baloratzen ahalegintzea iraina litzatekeen, horrek berariazko lege naturala urratuko balu bezala. Agian, horrexegatik diote horren begirune handia "gizarte adierazleek", etxeko errealitateari jaramonik egiten ez diotela, bertan gertatzen den guztia iharduera eza bilakatzuz.

Atzera eginez gero, baztertze-estrategiak aspaldiko kontuak direla ikus genezake, jarduera eza jarduerari kontrajartzeko nozioa XIX. mendean sortu zen, Industri Iraultzaren garaian hain zuzen, etxeko ekonomia "fruitu gabeko" lantzat hartzen denean, orduantxe galtzen baitu bere artisau-eginkizuna ere, zeinetan produkzioak eta birprodukzioak toki bera konpartitzen baitzuten.

Produkzioa etxetik lantegira eraman zenean mamitu zen egungo lanari buruzko kontzepzioa. Etxea kontsumorako esparru gisa geratzen da, dagoeneko ez da ondasunak produzitzeko tokia; etxeko lana ikustezina bilakatzeko lana –dirutruk egiten dena–

---

konsistente bihurtu eta nagusitasun, prestigio eta diru-iturri bilakatzen den neurrian. Botere-baliokidetasun horiek, bestalde, ez dute zerikusirik etxeko lanarekin, berau doan egiten baita barne-barneko motibazio pertsonalen eta, beraz, neurtezinak direnen eraginez.

Historia errepikatu egiten da, emakumezkoak behin eta berriz erabili dira interes jakin bartzuren mesedetan. XVIII. mendean Fantziar Iraultzan parte hartu genuen arren, konstituzio-gutun baten bidez ukatu zitzaion emakumezkoari hiritar izateko eskubidea. Lan merkatuan sartzeko praktikak, oraindik ere, ukatu egiten dute emakumezkoaren parte hartzea, ez “bigarren mailako langile gisa”, lan merkatuan eskubide osoa duen subjektu gisa baino (segregazio bertikala eta horizontala nabarmena da mekanismo honetan. Ildo honetatik, emakumezkoen ordezkaritza politikoa baliokidetu gabe dago oraindik; “jarduera eza”ko irizpideak, gizartean zabalduak dagoen neurrian, ikusgarritasun publiko handiagoaren aurka jokatzeko du seguru asko.

Hala ere, definizioak neutralak dira eta beti mugatzen dute errealitatea lengoaiaren eraginkortasunaren jakitun direla. Etxeko “jarduera eza”ren definizioa, padoxikoa izateaz gainera, mugak ipintzen eta gizartearen begirunetik kanpo edo haren itzalpean daudenak seinatzen oso ongi dakien bereziketa eta bilketa pautak zorrotz bati jarraitzen dio; esate baterako, produkzio prozesuan –balioaren erreferentzia unibokoa– zuzenean parte hartzen duten langileak izango dira eraturako neurketa sistemetan “jardueradun”en protagonismoa izateaz gainera (EPA, Encuesta de Población Activa, deritzona horren erakusgarria da, etxekoandreak, “jarduera gabeko”en artean jartzen baititu), herri-esparrua kudeatu, planifikatu eta zuzenduko duten bakarrak.

“Jarduera-jarduera eza” delako banaketaren dela bide, beste “arrazoi on” bat etxeko denboraz askatzean datza: etxe-arloan ematen ez den denbora hartaz beste pertsona bat arduratzen delako. Horrela denbora-unitatea lehengoratu egiten zaio langile-ereduari, bere mesederako ordu gehiago eskaintzen zaizkiola.

Etxe-arloan sortutako zerbitzuak, haren antolaketatik eratorritako denboraren soberakina barne, merkatuan eskuratuz gero, garrantzizko gastu gehigarria beharko luketen zerbitzuak dira; horregatik galdetu beharra dago, zerbitzuok zergatik bihurtzen diren dohako eta gizarte-eraginik gabeko, amak, emazteak, neskalagunak edo alabak eginak direnean, hau da emakume batek eginak direnean.

Zeren etxekoa, zentzu hertsian, emakumezkoa esatearen baliokidea da. Etxe-arloa, eginkizunen itzulkortasunaz gainera, subjektu batek famili unitatean elkarrekin bizi izaten diren

---

hentasunak mugaturiko arloa da.

Azter ditzagun eginkizunak, definizioz malguak dira, eginkizun horietako bat betetzeko kontratazioaz –etxe-zerbitzua–, languntzaz –“laguntzen “dit”–, ordezkapenaz –emakumezko senideak edo adiskideak– balia daiteke. Baina, nolana ere, etxeko erantzunkizuna eginkizun hutsa baino zerbait gehiago da eta antolaketaren erantzule bakarrean egiaztatzen da. Etxeko dirua eta administratzeaz zein eginkizunak betetzeaz arduratu beharra daukan bakarra. Eginkizunak beteko badira, berriz, ezinbestekoa da programazio zehatz bat, horren ezean, inortxok ere ez du berez asunituko delako eginkizuna, ez baita antzematen beti eginda aurkitu den zerbait egiteko beharra.

Hala ere, eginkizuna eta erantzunkizunaren nozioa ez dira baliokideak. Erantzunkizuna da etxe-arloa definitzen duen nozioa. Erantzunkizuna ezarian ezarian hartzen da eginkizunen gizarte-atxikipenaren eta lanaren banaketa sexualaren arabera; beste modu batez esanda, emakumezkoen, beren generoagatik, zerbitzuari loturiko lana asignatu eta soldadari edo ospeari loturiko bestelako lanetatik aldentzen zaienean.

Era guztietako erantzunkizun edo ardurak neur daitezke denboraren arabera. Hitzak berak adierazten duen bezalaxe, arduraduna izatea dedikazio intentsiboa eskatzen duen antolamendu baten ardurak hartzeko gertutasun handia edukitzea da. “Erantzunkizuna” “atributu” bilakatzen da kargu publiko bati, gaitasun profesionalari, lotuta dagoenean. Lan munduan gehiegi goresen da erantzunkizuna eta, “erantzunkizuna izatea”ri dagokion ordu-kopuruaz jabeturik, saritu egiten du ekonomikoki.

Arau hau, aldiz, ez da modu berean erabiltzen etxe-arloan, guztiz alderantziz erabiltzen da, hots, erantzunkizuna deuseztu egiten da hura neurtzeko araurik edo mugatzeko esparrurik (publikoa) ez izatera. Emakumezkoa zerbitzuaren aldean geratzen da, atributuentzako tokirik ez dagoen behar-eskema baten sartua.

Etxe-arloak besteentzako denbora –prestakuntza edo aisia bihur daitekeena– esan nahi du eta, era berean, konpartitu gabeko erantzunkizuna, genero batena.

Denbora da gure kapital preziatuena, baina ez du negoziatorik onartzen, 24 ordu baino ez daude denontzat. Denboraren banaketa, alabaina, genero eraketak mugatuko du goizegi eta eraginkortasun handiz, hots, gizonezkoen eta emakumezkoen artean nahierara eskubideak eta betebeharrak mugatzen dituzten arauak. Helmugak eta esparru bereziak zeharri ditzekeen estrategia.

Genero femeninoa genero maskulinoa ez bezalako –eta haien osagarritzko– materialez hornitzen da. Femeninoa delakoan bestea mantendu eta zaintzeko jarrera txertatzen da. Ume-

---

tatik, eredu femeninoak argi eta garbi azaltzen dira: amak, izebak, amonak, barnean ari dira, apaindu eta edertu arren gizartearen begirunerik ez duen lurralde baten jabe dira, kontentsazio sinbolikoa balitz bezala.

Etxea emakumearen luzapena da, haren funtzionamenduaz arduratzen den emakumearen luzapena; anbiguotasunaren balioa apaingarrietan eta nabarmenkerian agertzen da, denontzako ikustezina den tokiari zentzu bat ematen dio.

Etxe-arloa famili arduren eta egoera zibilaren mugetatik kanpo ere nabari da; elkarrekin bizi diren bikoteengan, bi soldata izanik ere, desberdintasun handiak nabari dira etxeko erantzunkizunei dagokienez. Badirudi gizonezkoen eta emakumezkoen arteko eremu amankomun bat irekiz gero errazagoa dela zenbait eginkizun banatzea, baina erabat konplexua gertatzen dela banaketa berbera planteatzea erantzunkizunari dagokionez.

Genero desberdineko bi pertsona elkarrekin bizi direnean, honako jokaera gertatzen da: bikotekide bat maitasunezko beharrak betetzeari ekingo dio eta etxe-arloa antolatuko du, bestea, berriz, eginkizun horietatik aske geratuko da bere lehentasunen arabera, hau da, lanbidea eta heziketa-zikloa. Egoera kritikoetan –ume, zahar, elbarri eta abarreganako arreta edo zaintza– ez dago duda-izpirik zaintza nori dagokion jakiteko.

Unibertsala den jokamolde baten arabera, une larriren bat gertatzen denean, denek begiratzen diote famili zama gutxien dituen emakumezko senidea“ri, egoerari aurre gin diezaion eta beharrezko eginkizun eta laguntza guztiak antolatu eta haietaz ardura dadin. Delako emakumea, bere generoari eta bere eredu femeninoei zor zaien leialtasuna dela medio, izendapen hori onartzen lehena izango da, zeren, osterantzean, gatazkarik latzenari aurre egin beharko baitio, hots, berezko dohaiz jantzitako gizarte-izendapen baten razionalizazioari.

Lanaren banaketa sexualaren onurak, hala ere, askotxo dira geldituak izateko, hots, krisian dagoen Ongizate Egoera bati dagokion betebeharraren gabeziak arintzen dituzten etxe-zerbitzuak. Etxekotasunaren kontzepzioa- bestearenganako gertutasun osoa- produkzioz neur daitezkeen baina norberekeriarik ezari, norberaz ahazteari lotuta dagoen femenino delakoren gorenko balorazioan nahita diluituriko hainbat zerbitzu ezkutatzen duten zelofan ederrez estalia izan da, etxeari lanik eta erantzunbeharrak gabeko berotasuna atxikitzen dion gizarte-erregelaren arabera, dohaiaren, opariaren hurbilago dagoen erritualean.

Emakumezkoek eskaintzen dituzten “borondatezko maitasun”en apaingarri eta banbalinen ostean, lanaren banaketa sexuala dago, zeinetan maskulinoa gerokoari lotuta baitago, in-

---

guruia konkistatu, kudeatu eta legeztatzeko gai. Birsorrera deskalifikatzen duen moduan, produkzioak kalifikatu egiten du.

Arau hau onartzen denetik, emakumezkoa familiarterko harremanetara zokoratua gertatzen da eta, aldi berean, gizonezkoek herri-arazoetan parte hartzea legitimatzen da.

Emakume izatea etxe-arloa eratu edo planifikatzeari atxikita dago, ezikusia izatera kondenaturik egoteari. Etxe-arloari buruzko azterlanetan ere, batzutan, antzematen da produkzio-birsorrera dikotomiarekiko sopikuntasuna, zortzi orduko jardunaldi bati dagozkionak izan arren, kanpoan eginiko lanei "etxetik kanpoko lanak" esaten zaienean, esate baterako.

Sailkapen honen zentzua ez da neutrala, emakumearen identitatea sortzen deneko esparru bat aipatzen baitu, gainontzeko esparruak "kanpo" delakoan kokatzen dituela. Herri-esparrua, lanari dagokiona, herri-esparru gisa mugatua izateko gaitasuna galduko balu bezala, emakumearen bertarazte-maila edozein izanik ere. Etxe-arloak zentzu gehiago du gainontzeko esparruen aldean.

"Etxetik kanpoko" esatean, herri-arloa esparru alternatibo gisa agertzen da eta etxe-emakume asimilazioa sendotzen da; halaxe gertatzen da "famili zamak" delako nozioarekin ere, aldebakarrekoak eta beti emakumezkoek atxikiak direlako. Haien ordez "famili erantzunkizunak" esaten bada, definizioek zenbateraino erakusten dituzten errealitateak pentsatu behar dugu, izan ere, "famili erantzunkizuna" definitzen badugu, gizonezkoek zein emakumezkoek aplikatu behar zaie, horrez gainera, alde bakarrera ez zuzentzen saiatu beharra dagoela (aukeraketa-prozesuek hobeki zaindu beharreko zeharkako diskriminaziozko marko bat osatzen dute).

Lengoiaren ekintzek eraten dute errealitatea eta modu jakin batez izendatzeak garrantziko ondorioak dakartza, etxeko zereginak, beste esparru batzuren aldean, halako hierarkia baxuago batean legitimatzea adibidez.

Birsorrera produkzioari kontrajarri zaio; birsorrera, ez "ekintza bilologiko" gisa, erabateko hazkuntza ahalbide dezakeen maitasunezko eremu baten berriraketa gisa baizik, gehiengotan bistakoak direlakoan alde batera uzten diren zerbitzu inmaterialaetako bat da. Horrela balioztatzen da, sozializazioa bezalako oinarritzko prozesuetan, maitasunezko arretaren beharrezana; hala eta guztiz ere, prozesu hori isolatu egiten da, bere testuingurutik eta haren sortzaile den pertsonarengandik kanpo azaltzen da, berezkoa bailitzan. Negaziozko maniobra hau dela medio, ikusezintasuna areagotu egiten da eta maitasunezko ekintzen gutxiespena, subjektiboa objektiboa baino gutxiago balioztatzea, gizartearen arau bihurtzen da.

---

Etxe-arloaz inortxo ere ez da arduratzen, gai ugaritako adituak dira, etxe-arloa ez da ikasgai izan, gutxietsia izan da. Zerbitzu nozioari horren atxikita dago ezen dohakotasunaren, ikusezintasunaren eremuko den. Arlo honetaz arduratzeak ere, azterlan berri-berrietan izan ezik, ez du baliogarritasun zientifikorik eduki.

Etxeko jardueraren areagotzea gero eta nabarmenagoa izango da, jasaten ari garen ekonomi krisialdi sakonaren arabera. Enpresetatik kaleratutako lehenak, saritutako bajez onuratuak edo halakorik gabe, emakumezkoak dira; egun-zatizko kontratuak emakumezkoen mesederako omen dira, baina lanaren banaketa sexualaren legitimazio nabarmenaren adierazgarri dira. Lan bikoitzak ez du eraginik gizonezkoengan, etxeko erantzunkizunak, ordea, enplegurako politika paternalistak baldintzatzen ditu.

Oraindik ere, gure bizitzaz eta gure nahiez jabetzen diren "arrazoi" onen –patriarkalak esango luke Celia Amorósek– arabera, hainbat bideratze-dispositibo nabari dira.

Jaiotza-tasa dela-eta, belaunaldien arteko elkartasunera dei eginez, behin eta berriz eta etengabeki agertarazten zaigun "alarma" harrigarria gertatzen da alarma-emaleei eta erabiltzen dituzten argudioei dagokienez. Gazte mantentzaileen alde agertzen direnek berberak ez dakite zer den generoen arteko elkartasuna. Hau guztiz onartezina izango litzateke beste era bateko azterketan.

Har dezagun proposamen ospetsua –zeuek munduratu eta zeuek bakarrik mantentzateke–, emakumearen ordez gizonezkoa jarri gero, gezurrezkoa izango zen, pribazitatearen aurkakoa. Arau hau, aitzitik, subjektu omen diren norbanakoei baino ez dagokie, naturaren horren hurbil dagoen emakumea, aldiz, birsortzaile-izaerari atxikita dago. Hortik kanpo, bere zereginarekiko leialtasunik eza gaitzetsia izango litzateke edozein arlotan.

Gizartearen diskurtsoan birsorrera biologikoa areagotzeko eskakizuna errazegi agertzen dela dirudi, konpartituriko erantzunkizunik ezak emakumezko langilea hautabide batzuri edo besteri jarraitu beharrean jartzen duela aintzat hartu gabe.

Bion artean banaturiko erantzunkizunak baino ez du berdintasuna bermatzen, ez erazko errealitate gisa, baizik eta, eskubide eta aukera berberak, lanbide zein maitasunezko esparru eta helburu berberak dituzten gizonezkoen eta emakumezkoen elkarbizitzarako benetako hautabide gisa.

---

**M.º CARMEN LATORRE ATANCE**  
H.H.I.ko irakaslea Valenziako  
San Marcelino Auzoan

*Emakumeen-*

*tzako*

*oinarrizko*

*irakaskuntzara-*

*ko esperientzia*

*alternatiboa*

## 1.

89-90 eta 90-91 ikasturteetan zehar, emakumezkoentzako irakaskuntz esperientzia bat zuzendu nuen Valentziako "San Marcelino" Helduen Ikastetxean, Eskola-Graduatua lortzeko taldeekin.

Esperientzia hau sortu zenetik iragan den denboraren ikuspegitik, eta emaitzak ezagutu ondoren, zergatik eta nola egin zen lan hau azaltzeko lerro hauek idazteari ekiten diot.

1990eko maiatzean Europako H.H.ko Bulegoak Gironan antolatu zituen Jardunaldietan parte hartu nuen, emakume-taldeekin Helduen Hezkuntzan izandako esperientziei buruzko Jardunaldietan hain zuzen, eta horrela jakin nuen beste herrialde batzutan ere bazirela planteamendu bereberekin lan egiten zuten emakume taldeak, hasitako ekinbideari jarraitzeko motibazioa areagotu egin zitzaidala. Aipaturiko jardunaldietako txostenak "Educación de base para mujeres en Europa" izenburupean argitaratu dira (El Roure argit. 1991).

Jardunaldiotan aurkeztu nuen txostenaren hitzaurrea berrartzen dut, hartan agertzen diren ideiak nire lanaren hazia baitziren eta oraindik indarrean daudela uste baitut.

"Mugimendu feministak zenbait ate ireki dizkie emakumezkoei eta emakume askoren bizi-modua hobetzea ekarri duten gizarte-aldaketak ere sortarazi ditu, baina, batez ere, kontzientzia ireki du eta agerian jarri ditu emakumezkoen artean mendeetan zehar hain arruntak izan diren pasibotasun eta menekotasunezko jarrerak.

Jarrera hauek eta munduan egoteko era hau eskema politiko, sozial eta ekonomiko jakin bat baino haragokoak dira, inkontziente-mailan erroturik daude belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren sinbolo, balore eta jarreretan oinarriturik, hala agertarazi da hainbat ikerlan teorikotan ere, mutiko edo neskato jaiotzeak nortasunaren eraketan funtsezkoa dela esatean bat datozela.

Beharrezkoa da, beraz, eskemak birsortzen dituzten jokamolde horren errotuei eragiten dieten mekanismo sakon horiek lantzea gizarte-mailan eta, batez ere, emakumeen artean. Emakumezkoen artean bereziki diot, zeren zereginen banaketan menekoak suertatu baitzaizkie eta, hurrengo belaunaldien amak direnetik, beren eskuetan, edo hobeki esateko, beren gorputzetan izango baitituzte pertsona berri baterako eta zibilizazio berri baterako aldaketaren printzipioak.

Beste alde batetik, eta gizarte-desberdintasuna dela medio, beheko klaseei ukatu zaie ofiziala deritzon "kultura" eta beheko klase horien barruan emakumezkoei bereziki, bete nahiko lituzketen lanpostuetara heltzeko behar den prestakuntzarik gabe daudela. Alde honeta-

---

tik, garrantzikoa da, norberaren gaitasunen arabera, gure garaiaz ahalik eta hobekien gozatzeko beharrezko den jakintzaz jabetzeko teknika instrumentalen eta ezagupenen irakaskuntza.

Helduentzako oinarritzko hezkuntzan eman beharreko curriculum berrikusi eta hartzaile-taldearen berezitasunetara egokitu beharra dago.

Emakumezkoaren hezkuntzan aldaketa kualitatibo hau burutzeko, taldeak heziketan duen garrantzia azpimarratu nahiko nuke. Norberaren bizitza-proiektua eta gizarte barrukoa aurkitzeko itzulbidea ez da nahitaez bakarrik egin beharrekoa. Emakume-talde batean parte hartuz, gertaera asko amankomunak direla ikusten da, eta horrek indarrak ematen ditu lortu nahi ditugun helburuak erdiesteko eta momentu latzetan aurrera egiteko. Norberak dauzkan baliabideak erabiltzen ere irakasten du.”

Lantalde hauetan parte hartu duten emakumezkoek beren bizitzetarako garrantzizkotzat jotzen dute esperientzia hau eta gehienek emakumezkoen aldeko elkarteren batean jarraitzen dute.

Nazio honetan, beste askotan bezalaxe, hainbat eta hainbat mendetan zehar hierarkiazko sistema sexual bat nagusi izan delarik, menekoek, kasu honetan emakumezkoek, ez dute berriazko erreferenterik, ukapenaz geratu zaiena baino, hots, “gizonezkoena ez dena” eta herri-esparruan sartzean emakumezkoa maskulinizatzen ari dela kritikatzeko da. Interesgarria da, beraz, bizitzaren ikuspegi feminista batean oinarritutako irakaskuntz programak erabiltzea maila desberdinetan eta talde desberdinekin.

Ilido honetatik doa nire ekarpena, eginiko lana laburbilduz eta emakumezkoek, euren artean, adierazpenak egin eta egungo egoeraz nahiz euren sexuarekiko arazo amankomunez jabetu ahal izateko esparruak oraindik ere erreibindikatu behar direla azalduz. Eskolak ez du errealitate honetatik kanpo egon behar. Alderantziz, heldu egin behar dio eta emakumezkoek, beren beharrianak aintzat harturik, hala bakoitzaren garapen eta gozamenerako, arlo sozio-laboralean sartzeko baliogarria den kultura emango dien hezkuntza bat jasotzeko aukera eskaini.

## 2.

# Esperientziaren kokapena

San Marcelino deritzon Helduen Ikastetxea 1987ko irailean sortu zen Hezkuntza Kontseilari-tzaren H.H.I. Programak bultzaturik, auzorako bi irakasle izendatu zirela.

1989ko abenduaz geroztik, eta berriazko tokien aldeko hamaikatxo eskaera egin ondo-ren, ikastetxearen behin-behineko kokalekua Valentziako San Marcelino auzoko José Sirera kaleko 4an dago. Langileak gehien bat bizi direneko inguraldeko auzo batean alegia.

Ikastetxea sortu zeneko datuen arabera (1986ko zentsutik ateratakoak), San Marcelino au-zoko biztanleak 10.484 ziren guztira, berorietako %49,3 gizonezkoak eta %50,7 emaku-mezkoak eta titulazio akademikoari dagokionez honela banatuak:

	%
Ez daki irakurtzen	2,3
Ikasketarik gabekoa	36,8
Lehen mailako ikasketak	36,9
O.H.O.	9,8
B.B.B.	7,4
L.H.	4,1
Erdi-mailako ikasketak	1,7
Goi-mailako ikasketak	0,8
Zehaztu gabekoak	0,2

Datu hauek San Marcelino auzokoak ziren, baina, ondoko auzoetan ere helduentzako ikas-tetxerik ez dagoenez gero, eskolara inguruko auzoetako biztanleak ere joaten direla esan behar da, Cruz Cubierta eta Carteros auzoetakoak batez ere.

Ikastetxeko ikaslerik gehienak emakumezkoak dira, 89-90 ikasturtean matrikulaturikoen ze-rrendan ikus daitekeen bezala:

TALDEAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Alfabet.	11	2	13
Irak. berr.	18	2	20
Oinarr. hezk.	73	5	78
Eskola-grad.	96	6	102
Tailerrak	44	2	46
Guztira	242	17	259

## 2.1

## ZERGATIK EMAKUME-TALDE BAT?

Eskolak bi urtez jardun ondoren, ikasle gehienak emakumezkoak zirela ikusi zen, etxeoandreak batez ere, kultur maila eskasa eta gizarte-funtzio urria zutenak, etxeari eta familiari emanak baitira, emakume gisa bi eratako bazterketa jasaten zutela, arrazoi sozial eta sexualengatiko bazterketa, alegia.

Eskolara joateko motibazioari dagokionez, "mugen zabalkuntza" aipa genezake. Zehatza go esanda, euren hiotzez: "etxea txiki geratzen da", "segurtasunik gabea sentitzen naiz nire seme-alabek galderak egiten dizkidatenean", "zerbait egin nahi dut, baina ez dakit zer", beste emakume batzurekin hitz egiteko beharra daukat", "graduatu titulua lortu nahi dut lana bilatzeko".

Beste alde batetik, asumiturik dituzten gizarte-erantzunkizunak direla medio, ez dute eurentzako astirik eta zerbaiterako astia lortu nahi badute, gehienetan ohizko betebeharrak betetzeari utzi gabe bilatu beharko dute.

Eskolara dakarten kultura zabala da ama eta etxeoandre gisa izandako esperientziak, berarek daramatzaten rolerkin, kontutan hartzen baditugu, baina, urria da, bestalde, ikasketei dagokienez, eta okerragoa zera da, gehienetan eskolako lanei konfidantzaz ekitea eragotzen dien autoestimazio eskasa izan ohi dutela. Talde mistoetan sexuaren araberako partehartze desberdina antzematen zen.

Eskolan, kultura androzentrikoaren eraginez, gehienetan egunerokotasunerako beharrezkoa den jakintzarekin bat ez datozen edukinak programatzen dira ofizialki. Gauzak honela, aurrez esandakoarekin batera, emakumezkoen bizitzaren eta eskolan programaturiko edukien arteko disoziazioa gertatzen da.

Horregatik berrikusi beharra zegoen eta dago emakumezkoen ikasgela batean (H.H.I.eko talderik gehienek emakumezkoek osatuak dira) eman beharreko irakaskuntza. Programa berriak haien eskakizunetatik, esplizitu nahiz implizituetatik, abiatu behar du.

Gauzak horrela, 89-90 ikasturtean talde esperimental bat atondu zen ondokoetan oinarritutako irakaskuntzarekin:

- Taldea osatzen zuten emakumeen interesetatik abiatzea.
- Emakumezkoaren mundua baloratu eta dauzkan esperientziak aintzakotzat hartzea.
- Eskolak eskaintzen dituen baloreak berrikusi eta femeninotzat jotzen diren baloreak (intuzioa, sentimenduak, etab.) sartzeari.
- Lortu nahi diren helburuetara egokituriko metodologia bat erabiltzea.

- 
- Eskola, ikasturteak amaitzean bukatzen den zerbaite bezala ez baina emakumezkoa gizartearen aktiboki sartzeko baliabide gisa hartzea.
  - Komunitateak eskaintzen dituen baliabideak (erakundeak, antzokiak, zinemak, liburute-giak, etab.) aprobetxatzea ikustaldiak eginez, hitzaldietara joanez, etab., eta ikaskuntza ez mugatzea eskolara.

## **2.2**

## **TALDEAREN ERAKETA**

### **2.2.1**

### **AURRETIKOAK**

Alde batetik, eskolan bertan emandako aurretiko bi ikasturteen ondorioz, banekien ikasleen artean emakumezkoen portzentaia handia zela eta, lehenago ere aipatu dudana bezala, haien beharrezak eta interesak ez zirela programazio ofizialera biltzen ere bai. Elkarri ez egokitze hau, ordea ez da irakaskuntza-mota jakin baten ondorioa soilik, eskolari datxekion egiturarena baino.

Ohartu nintzen, halaber, emakumezkoak besterik ez zeuden ikasgeletako harreman-giroa ere berezia zela, desbidualagoak zirela eta talde mistoetan ez bezalako elkarriketak sortzen zirela.

Beste alde batetik, auzoko Helduen Eskola abiatu zenean (87-88 ikasturtea), litezkeen ikasleak Ikastexera erakarri beharra eta geneuzkan baliabide eskasak jokatuz, irakaskuntza arautuekin batera gizarte eta kultur animaziozko arlo bat programatu genuen, irakasleen "trebetasun"ei egokituriko tailerrekin, "Gorputz Adierazpen"eko tailerra barne. Tailer honen bitartez, gorputz dinamika eta harremanak lantzeko arloa eratu nahi izan zen, hala taldea osatzen zutenen arteko harremana, nola norberarekiko harremana, hazkunde pertsonala deritzonaren ikuspegitik.

Pedagogia humanistan oinarritutako tailer honetan, ariketa eta teknika gestaltikoak erabiltzen ziren, bai eta antzerkiko adierazpenetik, yogatik eta talde-dinamikatik eratorritako beste hainbat ere.

Adin eta sexuaren aldetik ikasle go oso heterogenoa izan arren, hura garatu zeneko bi ikasturteetan zehar nabarmendu zen nolako garrantzia duen hezkuntza sisteman pertsonak beren osotasunean kontutan hartzeak, bakoitzaren beharrezak aintzakotzak hartuz eta garai ba-

---

koitzaren berariazko gizarte-gabeziak azalduz, eskolak konpentsaziozko mekanismoak ekar ditzan ahal duen neurrian.

Hau da, garaiko bizimoduagatik harreman-arloa betea bazen eta lanek nolabaiteko gorputz mugimendua eskatzen bazuten, logikoa zen buru-gaitasunak eta ezagutza abstraktoa garatu ahal izateko espazio bildu eta isila eskaintzen duten "eskolak" antolatzea. Gaur egun, informazioa nekagarria izateaz gainera hainbat tokititatik iristen zaigun tenorean, bizimodua sedentarioagoa eta pertsonen arteko hartuemanak, hirietan batipat, gero eta eskasagoak direnean, zentzugabekeria litzateke eskolan ezagupenak ematen, sedentarismoa indartzen eta komunikazio-beharrak aintzat ez hartzen saiatzea.

Tailerraren emaitzak argiro erakusten dute pertsonen arteko harremanaren garrantzia, ze osasungarriak diren jarduera ludikoagoak, pertsonari hertsiago loturiko harremanak, desinhibiziorako ekintzak, espontaneitatea areagotzekoak, etab., parte hartzen zuten pertsonen bizi-jarreraren aldaketa positiboan antzematen zen bezala. Zenbaiti terapeutikoa gertatu zitzaien beren depresiozko prozesuetan.

Horrela sortu zen emakume-talde bat eratzeke asmoa, non Adierazpen Tailerrean eginiko lana programaren funtsezko oinarria izango zen.

### 2.2.2

### TALDEAREN HASIERA

89-90 ikasturtearen hasieran, Ikastetxean matriculatu nahi dutenekin izaten elkarrizketan, ekinbide honetaz hitz egin zen emakumeekin. Talde esperimentalaren osatzeko asmoa zegoen eta erdi-mailako ordutegia zuen graduatu-mailako batean gauzatu zen, bertaratuko ziren emakumeak ez mugatzeko (zeren zenbaitek, seme-alabak dituztela, derrigorrez joan behar baitute lehen edo azken orduan etxetik kanpo lan egiteagatik).

Ikasketek balio berbera izango zutela adierazi zitzaien, Graduatu-Titulua berbera baitzen, aldaketak ikasgelan baino ez zirela egingo eta lana ez zela gutxituko, aitzitik, era desberdinean lan egingo zela eta interesatzen zaizkigun gaiak jorratuko zirela, inork ezarri gabek.

"Emakumezko graduatu"en taldea aukeratzeko irizpideak mugatu ziren, laburbilduz:

– Askatasunez aukeratzea. Hots, ordutegia egokia zelako hartara apuntatzea ez zen nahikoa.

- 
- Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Aurrez programaturiko edukinak eman, lan jakin batzuk egin eta zenbait kontrol edo ebaluazio gainditu behar direneko ikasgela batera joatea edo irakaslea, funtsean, taldearen koordinatzaile-eragilea eta jarduera desberdinetarako aholkulari pedagogikoa izan zen ikasgelara joatea arras desberdina zela azaldu zitzaien.
  - Taldearekin elkarlanean aritzeko gertu izatea, haren helburu gisa taldeko emakume guztien aurrerapenarekiko kezka eta ardura proposatuz, “ni delakotik gu delakora igarotzea” esaldiaz adieraz litekeen jarrera alegia.

### 3. *Ikasturtearen oinarrizko egitura*

Ikasturtearen lanak eguneroko sorkuntzazko alderdi bat zuen, taldea bera jomugak finkatuz joan zedin. Alderdi hau, atal honetan azaltzen diren oinarri pedagogiko batzutan sartuta dago.

Lan honen ikuspegiaren oinarrizko ideiak pedagogia humanistatik atera dira, hots, hartarako zirkunstantzia egokiak direnean edozein gizakik bere gaitasun guztiak garatzera jotzen duela dioen pedagogiatik.

Emakume talde honekin, berriz, zirkunstantzia egoki horiek bilatzen eta zenbait sineskeria urratzen ahalegindu ginen batez ere.

#### 3.1

#### HELBURU OROKORRAK

Ikasturtearen programazioan, Ikastetxean graduatu-mailari ezarritako helburu orokorrez gain, emakume taldeari ondoko helburu bereziak ere ezarri zitzaizkion:

- Beren sexuari dagozkion arazo amankomunetatik abiatuta, edozer adierazteko eta egungo egoeraz jabetzeko eta, aldi berean, bizitzaren ikuspegi femeninoagoa zuzen programa bat bultzatzeko aukera ematen zien emakumezkoentzako espazio bat eratzea:
  - Emakumezkoak bildu ahal izateko toki bat eratzea ikasgelatik kanpo.
  - Sexismotik eratorritako arazoak aztertzeke aldiak mugatzea ordutegian.
  - Emakumezkoak kontutan hartu ez ezik, beraiengandik egina izan behar duen hezkidetzako programa bat lantzea.
  - Emakumezkoen adierazpenei (hitzezkoa, idatzia, gorputzezkoa) arretatsu begiratzea, hala nola egungo egoeraz kontzientziazteari.
  - Ikaskuntza autonomo, iraunkor eta oparo baten nahia ernaltzea. "Ikasten ikasi" delako helburua litzatekeena.

#### 3.2

#### METODOLOGIA

Emakume taldearekin lan egiteko proposatu zen metodologiaren ezaugarriak hauek ziren:

- Aktiboa: ikasleek hezkuntz prozesu osoan parte hartzen zuten. programagintzan, ikasgaien bilaketan, lanen erakustaldietan, ebaluazioan, etabn.

- Memorizatu beharreko edukinen aldean, ikaskuntz tresnen eskurapena lehenesten duena.
- Emaitzak ez ezik, ikaskuntz prozesuak ere kontutan hartzen dituena.
- Kritikoa: Subjektiboaren eta objektiboaren arteko bereizketa landuz eta NItasunaren eraketa sendotuz.
- Osoa: Hau da, pertsonaren osotasunera zuzendua. Arlo hau Gorputz Adierazpeneko tailerlean landu da bereziki, ikasturteko gaitzat hartuz. Horrela, hartu beharreko ezagupenez gainera, parte hartzen dutenen sentimenduak eta jarrera-aldaketak ere balioztatzen nahi dira.
- Emakumezkoenak omen diren baloreak bultzatzen dituena, hala nola: Intuiziozko eza-gutza, lankidetzak, malgutasuna, gogoeta egiteko gaitasuna, errezeptibitatea eta bizimodu desberdinekiko ulerpena.
- Benetakoak izanik kanpoko errealitatearekin (liburuak, ekintzak, zinema..., adibidez) alderagarriak diren elementu gisa harturik, norberaren nia eta besteen nia abiapuntutzat hartzen dituen autokontzientzia-metodo bat erabiltzen duena. Alderatzeko horrek ahalbidetuko ditu gogoeta eta aldaketa ekar dezaketen elementuak sartuz joateko kritika.
- Norbererantzunkizuna eta norberebaluazioa bultzatzen dituzten egoeren sortarazlea.
- Maistra rola gero eta ezkutuagoa izango da ikasturtean aurrera joan ahala. Haren lana, funtsean, taldea koordinatu eta motibatzeari lotuko zaio. Ez da lan makala, alajaina!
- Eskola-erlotik kanpo ere lan egitea, komunitateak eskaintzen dituen kultur baliabideak erabiliz: museoak, liburutegiak, musika, antzerkia, zinema, irratia, hitzaldiak, etab.
- Talde-dinamikazko teknikak erabiltzea talde batuan sartzen laguntzeko, beraz ikaskuntzarako joera areagotu eta finkatzeko baliatuz.
- Banakako jardueren eta taldeko nahiz ikasgelakoen artean, etsaigoa ez baina lankidetzak eta norberekeria ez baina elkarrenganako laguntza bultzatzen dituen lan dinamika garrantzuko da.

### 3.3

### PROGRAMAZIOA

Emakume talde esperimental hau abiatu zenean, programazioan ere parte hartuko zutela aurrikusia zegoen, zer ikasi nahi zuten eta zertan erabiliko zituzten ikasketok adieraztea. Garrantzizkotzat jotzen zuen motibazio-lana egitea, nekez nahi izango baita ezagutzen ez dena, eta beste alde batetik, eskola-gaietan helduek, batzutan, umetako oroitzapenak iza-

---

ten dituztela, H.H.I.eko ikastetxeetara eramaten dituztenak; orduan ikasitakoa berrikasi nahi dute, ezagupen haiek gogoratu, edo bestela, oroitzapen txarren eraginez, errefusatu egiten dituzte oinarrizko ezagupen jakin batzuk.

Aurreko guztia aintzat harturik, lehenengo motibazio-eginkizuna euren ikaskuntzaz jabea-raztearena izan zen, zein arlo lantzea nahi zuten, zeintzuk lan zitezkeen eta komenigarriak nahiz beharrezkoak ziren beste batzuk argituz.

Talde osoak onartutako irizpide hauetatik abiatu ginen:

- Egungo bizimodura erraz moldatzeko beharrezkoak diren edukinak bildu: Komunikabi-deei jarraitzea, oinarrizko agiriak betetzen jakin, datuak aurkitu, ordainagiriak ulertu, no-minak, liburu batez mintzatzen jakin, etab.
- Gaurko gaiez informatzen duten edukinak bilatu, iraganaren birsorkuntza eruditoaren aldean geroaren eraikuntza (konpromezu bat eskatzen duten ezagupenak) hobesten duen ikuspegi bat aukeratuz.

Irizpide honi jarraitzeko arrazoiak haiek ziren: oinarrizko irakaskuntzetan funtzionalitate lehenera garamatzen denora mugatua, eta edukin baliagarriak ikasiz ezagupen abstraktuagoetara jotzeko motibazioa izango dela pentsatzea.

- Bizitz proiektu autonomoaren sorkuntza bultzatzen duten lanak izan ditzala. Hots, “besteen” arabera jasotako hezieraren eragina arindu eta hura osatzeko, emakumezkoei euren buruari galdera egiten (Nor naiz? Zer nahi dut?) laguntzen dien jarduera guztiak.
- Etxeko lana benetako lantzat hartu eta baloratu.

Irizpide hauekin funtsezko lau arlo eta zeharreko bat ezarri ziren:

- Matematika arloa.
- Komunikazio arloa.
- Gizarteratze edo esperientzien arloa.
- Gorputz adierazpenaren arloa.
- Emakumearen arloa (zeharrekoa).

Ikasgelako lehen saioak taldekideak ezagutzeko, taldearekiko igurikapenak konpartitzeko eta interesak azaltzeko erabili ziren. Hortik abiatuta, arlo desberdinen programazioa osatuko zuten edukinen zerrenda erabaki zen taldean. Ahal izanez gero, edukinak orokorki eta disziplinarrean landuko ziren.

Interesak matematikako programaziora aldatu eta bertan egokitzeko taldeak eratu ziren, jarraian agertzen diren galderari buruzko hausnarketari ekin ziotenak:

- Nolako eragina dute zenbakiak gure eguneroko bizimoduan? Edozein egun hartuz, noiz erabiltzen ditugun zenbakiak, neurriak, etab.
- Noiz agertzen zaizkigu ebatzen ez dakigun matematikazko egoerak?
- Aurreko galderari emandako erantzunetan oinarriturik, zeintzuk dira ikasturtean zehar joratu nahiko genituzkeen gaiak?

Lehenengo galderaz egunean zehar hainbat eta hainbat ariketatxo matematiko egiten ditugula ohartu ziren eta, horrela, euren eguneroko bizimoduan horren arrotzak ez zirela-eta, haiekiko beldurra galtzen hasi ziren.

Bigarren galderak, berriz, erantzun desberdinak izan zituen eta berorien artean seme-alabei eskolako-lanak egiten laguntzeko nahia nabarmendu zen, zenbait gai aukeratzera eragina izan zuena.

Ezagutu nahiko lituzketen gaiei buruzko galderari emandako erantzunekin, berriz, edukinen zerrenda egin zen.

Taldeakideen interesen arabera programa eta beste ikasturte batzutarako ofizialki proposaturikoak funtsean ez ziren horren desberdinak. Hortaz, zalantzak sor daitezke ikasleek programagintzan parte hartzearen garrantziaz. Baina, erreflexiotxo bat eginez gero, proposamenari eutsiko diogu hainbat arrazoiengatik:

- Euren interesen arabera bada, euren programatzat hartuko dute eta gaiekiko motibazioa hasieratik lortuko da.
- Taldeak proposaturikoa testuliburuetan programaturikoaren antzekoa dela ikusten badute, bibliografia erabili behar dutenean liburuak ez direla hain arrotzak sentituko dute.

Emakumeek aukeraturiko gaietako batzuek sekuentziazio logiko bat behar zuten, haien oinarri ziren beste batzuk tartekatuta behar zirela zergatia azalduz.

Interesatzen zaien ezagupena eskuratu ondoren, eta ez lehenago, ezagutzen ez dugunaren zamak distortzionatzen ez gaituenean, hain zuzen, eskola tradizionalan ikasten diren bitartean bakarrik balio duten eta gerora, arlo berezi batzutarako soilik behar direlako, ez erabiltzeagatik ahaztu egiten diren gaiak ikasten zirela eta oraindik ere ikasten direla aipatu eta horretaz hitz egin ahal izango dugu taldean.

### 3.3.2

### KOMUNIKAZIO ARLOA

Lengoiaren programazioari dagokionez, taldearen igurikapenak biltzen laguntzeko, emakume bakoitzak ikasi nahiko lituzkeen zerrenda egin zuen. Edukinaren aldetik oso ezberdinak suertatu ziren zerrenda hauekin eztabaida-talde txikietan bildu ziren. Talde bakoitzak proposamen bana egin zuen, amankomunean jarri eta programa egituratu zen.

### 3.3.3

### ESPERIENTZIEN ARLOA

Lengoiaren arloan bezalaxe, ikasturteko gaien artean agertzea nahi zutelako, bakoitzak idatzitako gaiak bildu ziren. Talde txikiak eratu, bakoitzak hobesten zituenak eztabaidatu eta talde bakoitzeko zerrenda bat egin zen. Amankomunean jarri eta aztergaien zerrenda bat eratu zen.

Halaber, programaturiko gaiak lantzeko taldeak ere antolatu ziren.

Talde bakoitzak bi gai prestatu behar zituen ikasturtean zehar eta gainontzeko ikaskideei ezagutzear emateaz arduratuko zen. Taldeak gaiekiko interesen arabera eratu ziren.

Taldeen ikerketak zabaltzeko zenbait aditurengana jotzeko proposamena sortu zen.

Aztegiaiez gainera, talde osoak onartu zituen bi proposamen ere izan ziren:

- Zinemara joan eta ikusitako filmeari buruz hitz egitea.
- Interesgarriak iruditzen zitzaizkien gaiak (Sexualitatea. Emakumea, lana eta familia. Seme-alaben heziera. Zer da fededun izatea? HIESa. Depresioa...) eztabaidatzeko mahainguruak antolatzea

### 3.3.4

### GORPUTZ ADIERAZPENA

Arlo honetan, gorputz adierazpeneko teknikak erabiliz, hala nola hezkuntz testuinguruan baliogarriak diren psikoterapia humanistako bestelako teknikez ere baliatuz, bai taldearen garapenari eta bai norberaren hazierari eta heltzeari begira lan egin zen.

Lan honetarako hurrengo helburuok ezarri ziren:

- Norberaren espontaneitatea bultzatzea.

- Mugimenduari buruzko analisia. Erreflexioa eta praktika aldi berean. Gorputza menearatzea.
- Bizi izandako esperientzien lanketa sortzaile pertsonala.
- Pertsonen arteko komunikazioa baloratu eta hura sortarazteko teknikak lantzea.
- Estereotipo sexistak azaldu eta haiek agerian jartzeko baliabideak eskaini.
- Eskola eta gizarte ez-androzentrikoak ekar ditzakeen aldaketa-bidean emakumeen arteko lankidetzaz bultzatzea.
- Dihaduguneko bizimoduak ezagutzea gure bizitzaren hobekuntza ekar dezaketen estrategiak erabiltzeko.
- Laxapenerako espazioak eta eguneroko ohikeriak haustekoak ere eskaintzea.
- Eten eta geure kabuz pentsatzen ikasteko astia ematea geure buruari.
- Gorputza eta burua integratzen lagun diezaguketen ekintzak egitea.
- Espazio ludikoak konpartitzea taldean.

### 3.3.5

### EMAKUMEAREN ARLOA

Emakumeari buruzko azterlanen arloa, gai berezi bezala lantzeko asmoa izan zen, baina laster konturatu ginen ez zela aski, haren edukina arlo guztietan nabari baitzen. Emakumezkoen arazoak arlo desberdinetan eta, halaber, gizartean nagusi den ikuspuntua ez bezalakoa den emakumeen ikuspegia aintzakotzak harturik, ikasturtean zeharreko arlo gisa lantzeraz bultzatu gintuen.

Horrela bada, berariazko lan batzuk egin ziren eta beste zenbait gainontzeko irakasgaien bitartez. Lehenengoak funtsezkoak suertatu ziren emakumezkoen egoera arlo desberdinetan ikertzeko motibazioan, hala nola gainontzeko hezkuntz arloetako edukinetan dagoen sexismoari antzemateko.

Emakumearen gaia aztertzeke programazioa emakume taldea sensibilizatu beren arazoekiko ikuspegi zabalagoa ezagutu ahala eratuz joan zen.

Emakume gehienek rol berezi bat jokatzeko ohitura horren errotua daukatenez gero, nolabaiteko sexismoaz ohartu ere ez dira egiten, "natural"tzat jotzen dute.

Aurreneke ariketa emakumea izatea zertan datzan eztabaidatzea izan zen, eta aurrerantzean ere irudi horri eutsi nahi ote diogun ebaztea, eta horrela, gure inkontzientean

---

erroturik daudenez gero, gure bizimoduan dauden baina errekonozitzen ditugun egoerak agerian jartzea.

Gure jarduera mugatzen duten pentsamoldeak errekonozitu nahi ditugunean, mesedegarria da gure mintzaira aztertzen ikastea, haren bidez adierazten baitugu pentsatzen duguna. Elkarturiko hitzak, mintzatzean erabiltzen ditugun metaforak, esateko adorerik ez dugulako esan gabekoa..., sortzen ditugun pentsamenduak, gure bizitza mugarrizten dituztenak alegia, errekonozitzen laguntzen diguten jarraipideak dira.

Horrelako hizkuntz analisia eskaintzen diguten ariketen bitartez, gure ideiak, aurriritziak eta estereotipoak, jaso dugun kultura sexistari dagozkionak alegia, agertarazi ahal izan genituen.

Taldearen iritziz ideiala litzatekeen emakumeari buruz hausnartu genuen eta hartarako bidea urratzen hasteko beharraz jabetu ginen. Abiatzen ginen errealitatea ere aztertu genuen. Emakumeei dagokien arloa hobeto aztertzeke beharra agertu zen eta taldean ekin genion lehenengo ikergaiaren programazioa egiteari, hurrengo atalotan sailkatuz:

1. Zer den emakumea taldearentzat.
2. Nolako emakumea erdietsi nahi dugun.
3. "Españiar emakumearen eredu argazkia". Bereizkeria sexistari antzematea mintzairan, etxean, lan munduan eta eskolan. Emakumea "Emakumeen abotsa"ren bidez.
4. Emakumearen eskubideak. Emakumea Legean.
5. Emakumea historian.
6. Mugimendu feministaren historia.
7. Emakume ospetsuak.
8. Emakumea eta literatura.
9. Gizarte-aldaketari begira emakumezkoak ekar ditzakeen baloreak.

Gai hau izango litzateke aurrena jorratu beharrekoa ikerketa partehartzailearen metodoaz. Beronen bitartez, proposatu genituen edukinak ezagutzeaz gainera, prozesu metodologiko batez lan egiten ere ikasiko genuke.

Arlo desberdinetako programa egin ondoren, lanen elaborazioa eta aurkezpena errazteko oinarritzko ikaste-teknika batzuk eman ziren ezagutzera.

Ikasturteen balorazioa bi atalez osatu zen:

- Edukinen ebaluazioa, iraunkorra ikasturtean zehar.
- Partehartzaileen jarreraren eta bakoitzaren bilakaeraren ebaluazioa.

Jarreraren ebaluazio iraunkorra izan zen eguneroko lanaren euskarrietako bat. Ebaluazio hori, edukinez jabetzeari ez ezik, prozesuetan partehartzeari ere bazegokion, jarduera bakoitzaren aurrean zera galdetzen geniola geure buruari, zer lortu nahi dugu?, lortu al dugu?, zer egin dugu horretarako?, nola sentitzen gara?. Banakako lanen aurrean, berriz, norberalorazioa ere garrantzizkoa zen, ikaskideen aurrean, berriz, taldearen ebaluazioa.

Zaila gertatu zen, hala ere, besteek norberaren lanaz egindako balorazioari (irakaslearenari batez ere) garrantzia kentzen ikas zezaten. Ongi ikasia zuten eskolaren epai-eginkizuna eta behin eta berriz eskatzen zuten beren lanekiko balorazioa.

Beraiek, ordea, orohar ez zuten izpiritu kritikorik, edo hain zuzen ere, kritikak adierazteko beldur ziren, norbait miduko zutelakoan. Puntu honi ere bereziki ekin genion ikasturte osoan zehar: kritika egokia egiten ikasteari alegia, lanaren azterketa batetik, hobe daitekeena ikusteko, eta lanaren egilea bestetik, bereiziz. Lan bati buruzko iritzia agertzeak ez dakar egileari buruzko iritzia; okerrak ezagutu beharra dago haiek zuzentzeari ekiteko.

Batzutan, ordea, ebaluazio-prozesuetan denbora gehiegitxo ematen genuelako ustea izan nuen; alabaina, urrunetik begiratuta ondo emandakotzat daukat. Irakaskuntzan, ziklo gestaltiko gisa harturik, garrantzizkoa da amaiera edo errekapitulazio-atala ez ahaztea, eskuratutako informazioa sintetizatzen duen eta hurrengo irakaskuntzaren euskarri izango den funtsezko puntua baita. Horrela hartzen genituen une haiek, eta informazioa diodanean ez naiz informazio akademiko hutsez ari, sentimenduez, jarrerrez,... eta abarrez baino.

#### 4.

## *Lan prozesua. Funtsezko arlo desberdinei buruzko oharrak eta balorazioa*

#### 4.1

#### MATEMATIKA ARLOA

Talde hauetako emakume gehienek "errespetuz" eta ia beldurrez agertzen ziren matematikaren aurrean. "Zaila" adjetiboa nabarmentzen zen ikasgelan sartu aurretik. Aitzitik, balio handiko irakasgaitzat dute.

Zenbaiten jarrera nekez aldatu zen matematika ikasterakoan, "nik ez dakit", "nik ezin dut" edo "nik ez dut balio" direlako eraginez haien ahalmenak kateaturik baitzeuden.

Jarrera-aldaketa honetan bi faktoreren eragina nabarmendu zen:

- a) Zeharka, beste gai batzuk ikasteko ohitura bultzatzen zen neurrian, errazagoa zen arreta sortzea eta estrategia desberdinak erabiltzea. Adierazpen-taldean lanak ere, autoestimazioa hobetu eta norberaren segurtasuna sendotzekoa, eragina izaten zuen kontzeptu berriren bati edo gaien azalpenari ausardiaz aurre egiterakoan.
- b) Zuzenean, matematika-klasea aldatzeko lagungarria suertatu zen, denboraz eta baliabide egokiez edozein gai ikas daitekeela ikusi baitzuten. Baina batez ere, ikasteko eragozpen handiagoak zituzten emakumezkoentzat, taldearen laguntza izan zen mesedegarriena, ikasorduetatik kanpo lantalde bat eratu baitzen, non ikasle aurreratuenak beraiekin biltzen ziren lanak berregiteko.

Ikasturtea amaitu zenean, matematikarekiko jarrera orokorra bestelakoa zen, hots, beldurra uxatua zela, ikasteari jarraitzea garrantzizko zela eta ondorengo urteetan ere hala egin nahi zelako ustea.

Garrantzizkoa deritzot, bestalde, emakume talde batentzako matematika lana prestatzerakoan, matematika kontzeptuak azaltzeko lagungarriak diren adibideak ongi aukeratzeari. Gehienetan, irakasle asko hala uste badute ere, ez direla aseptikoak azaldu beharra dago, matematika ere sexista izan daitekeelako, nabarmentzen diren egoeren eta berauek azaltzeko eraren arabera. Ariketa egokiak bilatuz, errazago baloratzen dira emakumezkoa bere hezieragatik seguru senti daitekeen espazioak eta, horrenbestez, hobeto uler ditzakegu eta garrantzia handiagoa eman haiek diharduteneko espazioei.

---

Eragilearen eginkizuna garrantzizkoa izango bada, irakaskuntza-prozesuen mesedegarri beharko du, baina, batez ere, emakumezkoek egiten ari diren ariketen aurrean sentitzen dutenari so egon beharko du, okerreko erantzunei jaramon handiegirik egin gabe. Oso ezberdinak dira: "gaizki egin duzu" esatea edo "ez zaitez kezka, okerrak eginez ere ikasten da" esatea, "zu ikas dezakezuna baino inportanteagoa zara. Ez etsi. Gogoia baduzu, nahi duzuna ikasteko adina denbora izango duzu" delako ideia etengane eta egoki denean azpimarratuz. Hala eta guztiz ere, bidezkoa denean gure mugak aitortu beharra dago, atearik itxi gabe, baina eragozpeez jabeturik. Garrantzizkoa da ikaskuntza orok denbora behar duela azpimarratzea eta ikasbidea norberak urratu behar duela, bide hori inork ere ezingo duela gure ordeztu egin.

## 4.2

## KOMUNIKAZIO ARLOA

Helduen irakaskuntzan lan egin ondoren, emakume taldeei bereziki dagokienez, talde hauen berriazko lengoaiaren zenbait ezaugarri aipa daitezke. Lengoaia zentzu zabalean hartuta.

Aipa daitezkeen aurreneko ezaugarria zera da, jendaurrean adierazpenak (euren gauzen kontakizunez gaindi) egiteko segurtasunik eza, taldearen begiradapean sentitzen direnean. Berdin dio literatur testu bat irakurtzeak nahiz norberarena, zein ikasitako zerbait gainontzekoei ezagutzera emateak.

Norberarekiko segurtasunik eza antzematen zaion beste ezaugarri bat zera da, besteek egiten dutena norberak egiten duena baino hobea dela pentsatzea eta lanen bat, idatzia nahiz ahozkoa, aurkezterakoan, atxaki, zalantza edo norberarenganako gutxiespen batekin hasia. Sentimendu hauek ez dira berez sortuak, noski, sozializazioaren ondoriozkoak baizik, eta gaindi daitezkeen arren, atsekabea sortzen dute eta kaltegarriak suertatzen dira ikaskuntz prozesuan zehar.

Ikaskuntza osasungarri baterako oinarriak egokiena buru-osasun ona dela esan genezake, eta emakumezkoen kasuan, horretarako beharrezkoa da autoestimazio sistema egokitzea. Alderdi aipagarriak dira, bestalde: ikasteko jarrera ona eta interes handia, zabalik baitaude eta, horrenbestez, gai asko gertatzen zaizkie erakargarriak, gozozaleari gozotegiaren erakuslehioa gertatzen zaion moduan, eta oro har, beharrezko lanak egiten saiatzen dira, nahiz eta, gehienetan astia lo egiteko orduetatik atera behar izaten duten. Oso arduratsuak

---

dira, nahiz eta, behar duten denbora ez emateko atxakia familian aurkitu ohi duten emakumezkoak ere izaten diren, euren ere garrantzitsuak direla eta euren heziketa zabaltzea ona dela sinesgaitza suertatzen zaielako, agian.

Emakumezko helduek osaturiko talde hauen beste ezaugarri bat zera da, ezagupen-oinarri oso ezberdinak dituztela. Hori dela eta, komenigarria da jakinak iruditzen zaizkigun hainbat kontzeptu jakintzat ez jotzea eta esplikatzea erabili behar direnean. Horrela bada, garrantzizkoa da taldean ideiak elkartrukatzea erraztuko duten komunikazio teknikak lantzea. Adibidez, eztabaidaren bat denok ikusi dugun arren (egun ohizkoak dira telebistetan), gutxi hausnartu dute eztabaida arina eta oparoa izateko aravei buruz.

Hortaz, arlo honetan ere, berriro diot lan prozesuen errekonozimendua oso garrantzitsua dela, batzutan jarraitu beharreko urratsak azalduz, beste batzutan, aldiz, eginiko lan baten aurrean nola egin den aztertuz.

Emakume-taldeetan oso garrantzitsua da ahozko adierazpenari emandako astia, partehartze demokratikoaren arauak gordez.

### 4.3

### GIZARTE ARLOA

Aurreneko gaia ikasle guztiekin batera egin zen, edukinaren interesaz gainera, ikerbidea garatzeko adibide gisa ere baliogarria suertatu baitzen. Berriro diot ikasleei nola egin behar diren sekuentzialki erakutsi gabeko lanak eskatzea ez dela egokia (irakaskuntz prozesu guztietarako balio du). Irakaskuntzan, sarritan, emaitzen ebaluazioa azpimarratzen dugu prozesuaren didaktika baino gehiago, nire ustez okerreko jokaera dena, irakaskuntzaren hutsune asko sortzen baititu.

Aldi berean, mintzairari dagozkion oinarrizko ikaste-teknikak eman ziren ezagutzera: azpimarraketa, liburuen fitxaketa, eskema desberdinak egiteko erak, laburpenak eta lanen aurkezpena. Horrela, gaiak lantzean haiek erabili beharra zeukatenez gero, argi eta garbi ohartzeko ziren edukinok ikastearen baliogarritasunaz.

Lanen aurkezpenari dagokionez, ikasturtean aurrera egin ahala hobekuntza nabarmena izan zen. Horrek berriz ere erakutsi zidan ezen jarduera desberdinetan nolabaiteko goi-helburu "exijitza" erronka motibatzaile bihurtzen zela.

Ikasgeletan aurreneko gaia prestatzen ari zen bitartean, taldeak ados jarri eta aukeratutako gaiak autonomia osoz eratzen zituzten. Talde bakoitzean sortutako arazo bereziak aztertzen

---

ere eman genituen zenbait klase. Horrela betetzen ari ginen "ikasten ikatea" zelako helburua.

Lanak gertutatukoan, talde bakoitzak ikasgelan azaltzen zuen bildutako informazioa. Gai nontzeko ikasleek sortutako zalantzak argitzeko galderak egin zitzaizkien. Azalpen-emaleek une horretan erantzunik emateko gauza ez zirenean, galdera idatzi eta informazioa osatzeko ikerketari jarraitzeko konpromezua hartzen zuten. Jorratu beharreko gaiak denek ezagutzen zituztenez gero, ohizkoa zen talde batek beste bati materiala uztea lan egiteko.

Ikasturtearen amaieran, gizarte arloko lana balioztatzean, emakume guztiak aipatu zuten ze estimulagarria suertatu zitzaizkien taldeko lana, nahiz eta batzutan zaila gertatu.

Balorazio positibo hori hurrengo puntuotan oinarritu zuten:

- Ohituta ez zeuden lan intelektual bati ekin behar izan zioten eta horrek ikasten jarraitzeko kezka sortarazi zuen beraiengan. Berrito gogorarazten dut gaiak beraien aukeratuak zirela.
- Bakoitzak eginiko lana ikaskideen aurrean azaldu behar izateak, urduritasuna sortu arren, norberekiko segurtasuna areagotzeko lagungarria gerta zitzaizkien. Izan ere, aldaketa nabarmena izan zen ikasturtearen hasieratik amaierara bitartean, eta zenbait taldek eskolako beste talde batzuren aurrean ere erakutsi zuten beren lana. Zenbait emakumek, gainera, beren lana azaldu zuten egunean protagonista sentitzearen garrantzia aipatu zuten.
- Gai nontzeko emakumeek ikasketen aurrean agertzen zuten jokoak (urduritasuna, zalantzak, poza ikasitakoagatik, etab.) ezagutzeko, euren bezala zirela ikusten zuten eta beren burua hobeto onartzen ikasten zuten.
- Ikasten jarraitzeko motibazioa eskuratu zuten (interes bereziko gairen bati buruzko aparteko lan banakoak ere izan ziren), ikasteko iturri desberdinak ezagutu zituzten eta denbora emanaz eta ahaleginduz nahi dutena ikas dezaketelako sentimendua nagusitu zitzaizkien.
- Taldeko lankidetzari esker, berriz, erabil zitzaizkien materialak eta baliabideak biderkatu egiten zirela sentitu zuten.
- Informazioa bilatu behar dutenean, gizakiak pertsonalki sartzen dira ikaskuntzan.

Halako lanari ekitekoan aurkitu zituzten eragozpenei dagokienez, hurrengoak aipatu zituzten: Etxeko lanen poderioz, taldean biltzeko denbora gutxi zutela. Talde barruan nabari zituzten maila desberdinak, hots, kultura arlokoak zein lanari ekiteko irizpide desberdinak, hala nola, lanaren aurreko eskakizun-maila desberdinak.

---

Ikasturtean zehar eginiko eztabaidei dagokienez, emakume gehienentzat jarduerarik gogo-koena zela esan daiteke. Bi eratako eztabaidak izan ziren, batzuk programatuak, aurrez do-  
kumentazioa bilatzen zela; bestek, berriz, berez sortuak, batzutan ez horren sakonak, bai-  
na bizi-biziak.

#### 4.4

#### GORPUTZ ADIERAZPENA

Gorputz adierazpenaren arloa, tailerraren antolaketari dagokionez behinik behin, gainon-  
tzeko arloak ez bezalakoa izan zen.

Arlo honekin lortu nahi ziren helburuak azaldu zitzaizkion taldeari, eta zalantza guztiak ar-  
gitu ondoren, edukin desberdinak landu ziren, emakumezkoek ezartzen zuten erritmoari ja-  
rraituz eta agertuz zihoazen zirkunstantziak kontutan hartuz.

Tailer honen metodologia ekintza-gogoeta delakoan oinarritua zen, hainbat jolas eta arike-  
ta eginez eta ondoren gure jokaerak erakusten zuena aztertuz, hartaz hobeto jabetuz.

Aurreneko saioan, taldekide guztiek onartu zituzten arau batzuk prestatu ziren, lanean ko-  
katzeko mugak ezartzeko.

Saio bakoitza eguneroko kezkak "hausteko" jarduera batekin hasten zen, emakume bakoit-  
zak bere buruari emandako espazio bat sortzeko, unea arreta bereziaz bizi izateko (he-  
mengoa eta oraina ikuspegi gestaltiko batetik landuz).

Klaseak zenbait atal zeuzkan. Oinarrizko eskema hau izaten zen:

- Elkartzen gara.
- Gure sentzazioez kontzientzia hartzen dugu.
- Gorputz prestaketa.
- Programaturiko edukinei buruzko ariketak.
- Laxapena.
- Gogoeta, amankomunean jarritz, emakume bakoitzak saio horretan bizi izandakoaz as-  
katasunez mintzatzen zela.
- Amaiera.

Ariketa-motaren arabera, lana banaka, bikoteka, talde txikietan edo klaseko taldean egin-  
beharrekoa zen, mugimendu eta laxapen faseak dinamikoki tartekatzen zirela.

Tailerra koordinatzen zuen irakaslearen rola oinarriak hauek ziren:

- Jarduerak proposatu eta lanarekiko joera pertsonala estimulatu.

- 
- Ariketei eta beroriekin lortu nahi diren helburuei buruzko zalantzak argitu.
  - Taldea helburuetarantz gidatu.
  - Partehartzaile bakoitzaren une pertsonalen aurrean begirunez jokatu eta jokarazi.
  - Alderdi patologikoak eta emozioak bereizten jakin eta haiek ekidin, jakinez adierazpen klase bat dela eta ez psikoterapiako saioa.

Talde hauetan parte hartu dutenen balorazioa oso handia da. Gainontzeko arloen balorazioaren aldean azpimarragarria, hala norberaren heziketari dagokionez, nola talde batu eta solidarioa lortzeari dagokionez.

Lerro hauek idazten ari naizen bitartean, gogoeta hau datorkit: Psikologiak zientzia gisa diharduenetik, gizakiaren jokabideari eta haren gaitasunak eragozteko edo garatzeko mekanismoei buruzko aurrerapen handiak ekarriko ditu. Badakigu nola erabiltzen diren ekarpen horiek enpresa munduan, komunikabideetan, publizitatean, etab., eta hala ere, eskola gehienetara bagoaz, behaviorismoaren aurreneko aurkikuntzak baino ez ditugu ikusiko. Garrantzikoa deritzot eskola "gaurkotu" beharrari eta psikoanalisiak, psikologia humanistak eta psikologia transpertsonalak pedagogiari eginiko ekarpenak pertsonen hezkuntzan sartzeari. Tailer honetan abiapuntu horretatik sartu ziren aplikazioak oso mesedegarriak suertatu dira.

Esperientziaren bi ikasturteetan lortutako emaitzak honela laburbil ditzakegu:

- Lanarekiko interes eta motibazio handiagoa.
- Ikasgelako talde oso batua eta elkarrenganako solidaritate handikoa eratu zen.
- Gehienengan sortu da beste ikasketa batzuk egiteko gogoia.
- Ez zen eskola-ihesik gertatu, helduen hezkuntzan sarritan izaten direnak, bestalde. 89-90 ikasturtean 28 emakume hasi ziren eta 26k bukatu. 90-91 ikasturtean, berriz, 26 emakume matrikulatu ziren eta denek burutu zuten ikastaroa.
- Irakaslearen eta ikasleen artean harreman desberdin bat izan zen, estuagoa eta kreatiboagoa.
- Emakumeen diskriminazioarekiko sentiberatasun nabarmenagoa.
- Euren buruarenganako konfidantza eta balorazio handiagoa.
- Ikastetxeari dagokionez, partehartze handiko taldeak izan dira, bai antolaketa-mailan eta bai jardueretan ere.

Talde esperimentalak ziren aldetik, lan talde hauen berezitasunei dagokienez, hurrengook aipa daitezke:

- Emakumeen partehartzea euren hezkuntz curriculumaren taiuketan.
- Emakumeen egungo beharrianetara moldaturiko oinarrizko hezkuntzako curriculum baten garapena.
- Euren egoeraz eta berau sortarazten duten zergatiaz jabetu eta gogoeta egiteko aukera ematea emakumei.
- Malgutasuna bakoitzaren beharrianetara egokituriko ordutegietan eta programetan ikasgela barruan.
- Heziketa osotua.
- Euren burujabetasuna garatu nahi duten emakumeek osatutako taldeen sorkuntza bultzatzea.
- Beste zentro batzutara egokitu ahal den ereduazko esperientzia izatea.

Ezinezkoa da, bestalde, ikasturte horietako lana orri batzutan isladatzea eta, beraz, ez ditut lanaren zehaztasun guztiak azaldu nahi izan. Horregatik, irakurtzen duzuenean, zenbait ohar falta direla ohartuko zarete, hala nola, jardueren azalpenak, egunero sortzen diren arazoaren konponbideak eta esperientziari benetako berotasuna eman zioten emakumeen pasadizoak eta adierazpenak.

---

6.

## *“Mujer y Cultura” elkartearen eraketa*

Aurreneko ikasturte esperimentalak amaitu zenean, eta taldearen batasuna eta hasitako lanari jarraitzeko gogoak ikusirik, elkarte bat sortzea erabaki genuen sexismorik gabeko heziketan lan egiten eta auzoko beste emakume batzuren kultura bultzatzen jarraitzeko. 1990.eko urrian legezko izaera aitortu zitzaion San Marcelino auzoko “Mujer y Cultura” elkarteari.

90-91 ikasturtean zehar eta bigarren talde esperimentalak ari zen bitartean, “Aula de la mujer” deituriko tailer bat koordinatu nuen, non ikasgeletan aurrez jorraturiko zenbait gai zehatzago aztertu eta elkartutako emakumeen lan autonomoari ekiteko estrategia didaktikoak abiarazi ziren. 91-92 ikasturteaz geroztik, Helduen Eskolarekiko loturarik gabe dihardute, nahiz eta bata bestearekiko lankidetzak izan.

---

ROSA LERTXUNDI LIZASO

H.H.I.ko irakaslea  
Hernanin (Gipuzkoa)

*Ikasleek beren  
buruaz duten  
ideia eta  
istimoa  
hobetzeko  
H.H.I.ari  
ematen digun  
eskarmantua*

## 1.

### 1.1

### HERRIA

Hernani bere inguruarekin ondo komunikatuta dago. Bere biztanflegoak aldaketa garrantzitsuak izan ditu azken urteotan, industriaren krisiaren eraginez.

Hernaniko industri garrantzitsuena papera eta altzairuarena izan denez, une honetan eskualde honetako herririk zigortuenetakoa da. Langabezia tasa asko igo da eta honi lotuta datozen beste zenbait arazo ere azaldu dira: aldez aurreko erretiroak, kualifikazio berrien beharra, jende gaztearen langabezia, ...

Egoera hau nahiko txarra ez balitz, aipa dezagun baita ere Hernanin, alkoholismoa eta beste sustantzien drogomenpekotasuna neurri kezkagarrian ematen direla, batez ere jende gaztearen artean, eta guzti hau arrisku serioa dela, herriaren egitura soziala eta familiarra alferrikaldu egiten duelako.

1991.eko erroldan azaltzen denez, Hernanin % 54k gehienez "Estudios Primarios" zeritzona besterik ez du.

Euskerari dagokionez, erdaldunak % 36 dira, Gipuzkoako media baino zerbait gutxiago. Kultur eskaintza nahiko zabala da baina zaila da neurtzea egokia, kalitate onekoa eta jende guztiarentzat eskuragarria den edo ez.

### 1.2

### IKASTETXEA

Hernaniko H.H.I. ikastetxeak zortzi urte darama irekita, ez da oso handia eta aurtan 243 ikaslerekin lan egiten du. Zazpi irakasle gara eta zentroa goizeko 9tatik gaueko 9tara irekita dago. Ikasle hauetatik % 60a emakumeak dira, % 30a 16 eta 20 urte bitarteko gazteak eta % 43,5a 20 eta 45 urte bitartekoak.

Gehienak hernaniarrak dira, baina Urnieta, Astigarraga eta Donostiatik ere etortzen dira. Erdaldunen kopurua oso altua da, batez ere maila bajuenetan, industralizazio garaiko etorkinak.

Ikastetxe hauetako edozeinek eskeintzen duenaz gain, Hernaniko HHlan Informatika, Euskera, Ingelesa eta Esku-lanak ikasteko aukera dago.

---

92-93 ikasurteak, taldeak osatu dira LH1eko titulazioa lortzeko froga libreetara aurkeztu nahi dutenentzat.

Azkenik, aipatu ikastetxe honetara 16 urtetik gorako pertsonak datozela, okupazio eta eskola maila ezberdina dutenak, zer esanik ez motibazioa.

Guzti honek garrantzi handia duenez ikastetxearen antolaketa eta Hezkuntza Proiektua ikaslego honen ezaugarri hauek markatuta egongo dira.

## 2.

# *Fergatik proiektua*

### 2.1

#### EGOERA AZTERTU

Eskola honetan bereiztu daiteke ikasle multzo bat, ezaugarri hauekin:

- 25 edo 30 urtetik 60 urte bitartekoa da.
- Gehienak emakumeak dira, % 81.
- Gehienak etxeko andreak dira edota inoren etxeko lanetan dihardute.
- Eskola maila bajukoak dira: alfabetatze, irakurle berria, "zertifikado".
- Ia denek seme-alabak dituzte.
- Eskolara etortzeko motibazio garrantzitsuena garapen pertsonala dute.

Ikasle hauengan, ikasturtez ikasturte, zenbait jarrera, balio, arau eta jokabide berdinak somatu ditugu. Hona hemen batzuk:

- Jokutzen duten "rol-ak" oso eskema sexista jarraitzen dute.
- Beren buruarekiko duten istimo eskasa adierazten dute, batez ere emakumeak.
- Bizimodua inguruko senideen premien arabera antolatzen dute (guraso zaharrak, senarra, seme-alabak...).
- Kezka nagusia etxeko arazoak dira eta uko egiten diote gizarte-arazo eta egoera orokorra aztertzeari eta inguruan antolatzen diren ekintzetan parte hartzeari.
- Ez dakite seme-alabak nola hezi, alabak batez ere, hauek bestelako bizi modua izan dezaten.

### 2.2

#### IRAKASLEEN HAUSNARKETA

Erreforma bidean gaudenez une egokia izan daiteke hau, zenbait esperientzia abiaratzeko. Talde honetako pertsonen osotasunezko heziketa lortu nahi badugu ezin ditugu hain argi azaltzen diren behar hauek.

Denok argi daukagu hezkidetzak paper garrantzitsua joka dezakeela egoera honetan eta ados gaude ODCak zehar lerro honi buruz dioenarekin, alegia: ez dela aparte landu behar den arloa, eta beste arloetako ikaskuntzak diseinatzerakoan beharrezkoa dela aldez aurretik helburu hezkidetzailleak kontuan hartzea. Arlo bakoitzaren edukia (gertakari eta kon-

---

tzeptuak, prozedurak eta jarrera, balio eta arauak) eratu dezaketen zenbait oinarritzko eza-gupenetatik abiatzea, gako orokorrak eratuz, hauek hezkidetzaille izan daitezten.

Planteamendu honekin ados bagaude ere Helduen Hezkuntzaz zerbait gogorarazi beharrean gaude.

- Aipatu dugun ODC hau haurren hezkuntzaren arabera garatuta dago. Oraindik Helduen Heziketarako ODCa ez zaigu aurkeztu.
- Pertsona helduak, helduak garenez gure balio sistema egina daukagu eta ezin dugu pentsatu umeak bezela hezi behar gaitezenik arlo honetan.
- H.H.I. ko ikasleek egunean zehar haurrek baino denbora gutxiago ematen dute eskolan eta etortzea borondatezkoa denez ezinezkoa da alde aurretik jakitea zenbat ikasturte egingo dituzten eskolan.

Bestalde:

- Gaur eguneko haurrak eta helduak bi belaunaldi oso ezberdinetakoak gara. Gizartearen balio sistema aldatu egin da, beraz gure abiapuntua ere bai.
- Ikasle heldu hauek hezitzaile lana egiten dute etxean seme-alabekin. Nolako eragina izan dezake haur batengan etxean arau batzuk eta eskolan bestelakoak ikasteak ?
- Helduak gai izan gaitezke, umeak baino errazago, dugun jarrera aztertzeke.

Guzti honekin planteatu nahi duguna zera da, zehar lerroen tratamendua ez dela zertan berdina izan behar aurren heziketan eta helduenean eta, agian, pena merezi duela denbora eta toki konkretu bat hartzea zenbait arlo aztertu eta lantzeko ikasle helduekin.

Azterketa hau egokia eta aberasgarria izango dela ziurtatzeko, ikasleek beren buruaz duten ideia eta istimoa hobetzetik hasi beharko genuke.

---

3.

## *Hernaniko gizarte ongintzarako patronatua. Osasun eta prebentzio Saila*

Erakunde honekin Hernaniko HHI-k duen harremana aurreko urteetatik dator.

Helduen Heziketari buruz jarrera egokia dutenez laguntza ederra jaso dugu beti.

Oraingo honetan ere aholku eta kolaborazio bila hurbildu gaitzaizkie ideia hau gauzatzen hasteko.

Osasun eta Prebentzio Sailak aurkituko ditu txostenemaileak eta HHI-ko irakasleek, hauen lagungarri bezela, dinamizatuko dituzte taldeak. Gastuak erdibana ordainduko dira.

4.

## *Helburuak*

- Norbanakoaren erabateko garapena lortzera lagundu-ko duen Heziketa bat eskeintzea.
- Bere autonomi eta identitate pertsonalak osatzen dituzten jarrera eta balio jasotzea eta dagozkien kapazitateen berrikusketa eragitea.
- Guzti honekin, pertsona bakoitzaren eskubideen onespenean oinarritzen den gizarte bat sortzen laguntzea. Diferentzi biologikoak, kulturalak, etb... aberasgarriak izan daitezen eta ez hierarkizazioak egiteko zergatia.

## 5.

## *Eraketa*

Gehienbat emakumeak badira ere behar hauek azaltzen dituztenak egokia ikusten dugu emakumeak eta gizonak batera izatea lan-taldean. Bakoitzak bere ikuspegia eta besteen kontrastatzeko aukera izango du eta esperientzia aberasgarriagoa izango da denontzat.

### 5.1

### EDUKIAK

Bost gai aukeratu ditugu:

- a) Emakumea eta gizona: Eboluziozko etapak.
- b) Komunikazioa: Gakoak eta eztabaidak.
- d) Bikotearen harremana.
- e) Familia: arduren banaketa bakoitzaren gaitasunen arabera.
- f) Inguruko pertsonetikiko harremana.

### 5.2

### IRAUPENA

Gai bakoitza bi orduko saioan hamabost egunetik behin landuko da.

### 5.3

### METODOLOGIA

Saio bakoitzean izango dira:

- Gaiaren azalpen argi eta laburra.
- Talde txikiko lana:
  - Eguneroko bizipenen dramatizazioa.
  - Eztabaida zuzendua.
- Talde osoan, ondorioen azalpena.

---

## 6.

## *Balorazioa*

Ezin dugu esan emaitza harrigarrik ikusi dugunik, baina bai, esperientzi honetako partaide guztien balorazioa positiboa izan dela.

- Ikasleek beren egoera pertsonala aztertzeko eta dauzkaten gauza onak baloratzeko aukera izatea oso egokitzat jo dute.
- Txostenemaileen iritzian oso talde dinamikoa osatu da eta azaldu diren egoerak baliagarriak izan dira.
- Irakasleontzat positiboa izan da proposatutako helburuak neurri batean lortu direlako eta bide batez beste arloetako lanean eragin positiboa izan duelako.

## 7.

## *Etorkizunerako plangintza*

Oraingo bigarren hiruilabeterako antzeko esperientzi bat antolatu dugu bi talderekin, baina, 16tik 22ra urtekoei zuzendua.

Argi daukagu ez gaia, ez lana, ez direla bukatu eta haria galdu gabe jarraitu behar dugula hezkuntz hezkidetzaila garatzen.

---

TOTOIA GARCÍA MARROQUÍN  
Basauriko (Bizkaia)  
H.H.I.ko Ikastetxea

*H.H.I.ko*

*ikastetxearen*

*antolaketa*

*emakumezkoen*

*beharrizanak*

*ere kontutuan*

*izanik*

Gure Autonomi Elkartearen ez da egundaino Helduen Hezkuntza emakumezkoen errealitate-tik eta beharrezanetatik aztertzeke Jardunaldirik antolatu. Emakume eta irakasle izanik, benetan pozten gaitu Erakunde horretatik irakaskuntzaren kalitatea hobetzera eta euren bizitzan ibilbide luzea egin eta gero "liburuetara iristen diren" emakumezkoen zuzendutako hezkuntz ekintzak zabaltzera datozen ekinbideak bultzatzeak. Gero eta gehiago dira, arlo pribatura, etxera hain zuzen, zokoratzen dituzten sistemari eta baloreei aurre eginez, euren egoera hobetu eta lan munduan eta gizartearen sartzea erabakitzen duten emakumeak.

Atsegin zaigu, halaber, gure esperientzia Basauriko H.H.I.ko ikastetxearekin eta Jardunaldi hauetan dauden bestelako talde eta pertsonekin konpartitzea, zeren hemen egingo diren ekarpen eta gogoetetatik aterako baititugu gure erronka eta egitasmo berriak, gure eginkizuna hobeto betetzen lagunduko digutenak.

Lehenengo eta behin zera esan nahi dugu, H.H.I.ko ikastetxeetara doazen gehienak emakumezkoak direla kontutan izanik, hezkuntzaren arduradunek (Administrazioa, zuzendaritza-ekipoak...) eta ikastetxeetako irakasleek emakumezkoen beharrezanetara egokituriko ekintzak eta programak abaiarazi behar dituztela - edo beharko lituzketela- eta, era berean, helburutzat hartu hezkuntza honek, emakumezkoen bazterketara daraman balore-sistemaren birsortzaile ez izateaz gainera, birsorrera hori galerazi, desberdintasunak salatu eta errealitate hori aldarazteko jokabide eta jarrerak garatzeko aukera eman dezala.

Ekinbide honetan hezkuntzan diharduten guztiek parte hartu behar dute, irakasle batzuren nahia eta borondatea ez baita nahikoa izango. Ikastetxearen antolaketa egokia izango bada, emakumezkoen igurikapenei erantzuteko gauza izan beharko du, hots, emakumezkoen berezitasunak kontutan hartu beharko ditu. Honetan datza gure txostenaren edukina.

*ikastetxeetan: zein emakumez ari gara?*

Helduen Hezkuntzan dihardugun irakasleok badakidu ikastetxera datozen emakumezkoak gizonezkoak baino askozaz gehiago direla. Emakumezko hauen motibazioak sarritan aztertu dira (gizarte-promozioa, seme-alabei laguntza ematea, umetan ikasterik izan ez zutena ikastea, etxetik ateratzea, enpleguren bat bilatzeko prestatzea...). Oro har, adinaren arabera, hezkuntz premia desberdinak dituztela esan genezake, lan munduan sartzeko aukera emango dien oinarrizko prestakuntza bat eskuratzetik beren hezkuntz prozesua gaurkotzera eta gizarte-harremanak zabaltzera bitartekoak alegia.

Dena den, ikastetxeetako lan proiektuak mugatzerakoan, emakumezkoen kolektiboa oro har kontutan harturik ere, hura zuzentzen zaion taldearen ezaugarriak kontutan hartzea garrantzizkoa da, zeren neska gazteek osaturiko talde bati komeni zaiona ez da beti komenigarria izango emakume helduez osaturiko taldearentzat, eta berauen artean ere motibazio eta igurikapen desberdinak izaten dira: ez adinaren arabera bakarrik, beste faktore batzuri dagozkionak baizik, hots: ikasketa-maila, enplegua bilatzen ari diren ala ez, errenta-maila, etab.

Hiru multzo handi sailka daitezke:

- Gazteak/nerabeak, eskolatzea amaitu duten arren Eskola Graduatuaren titulazioarik erdietsi ez dutenak. Euren gurasoekin bizi dira eta haien menpe daude, lan bat bilatu nahi dute eta bizimodu independenteago bati lotu.
- 50 urtetik 65 urtera bitarteko emakumeak, euren heziketaz kezkatuak, gizarte-harremanak hobetu eta zabaldu nahi dituzte.

Eta azkenik, talderik handiena, azken urteotan arreta berezia eskaini dioguna, hots, 30 eta 45 urte bitarteko emakumezkoek osatua, lehen mailako ikasketak egindakoak (askotan burutu gabek), lanbide-kualifikaziorik gabekoak, etxetik kanpo lan egitekotan baldintza desegokietan dihardutenak (senarraren soldataren osagarri gisa), ezkonduak, eskola-adineko seme-alabak dituenak. Hona hemen, laburbildurik, inoren menpe dagoen emakumearen profila, ia dena falta zaion arren, bere heziketa hobetu eta bere izaera egokitu nahi duena.

---

Emakume hau da etxetik ateratzeko erabakia hartzen duena, egunero hiru orduz ez bada ere, aukera eta kezka berriak eskainiz eta bere zentzu kritikoa areagotuz pentsamoldea ezarian-ezarian aldaraziko dion esperientzia bati ekiten diona.

Emakumeekiko hezkuntz proiektuak hobezinak dira norberaren haziera lortzeko, inoren arabera bizi izatetik norberaren identitatea aurkitzera igarotzeko. Prozesu hau posible izateko, esperientzia atsegingarria gertatu behar zaie emakumezkoei eta, horretarako, haien bizimodua eta ardurak eskolak eskaintzen dituen programetatik oso urruti ez egoteko ahalegi-na egin behar dugu. Programok, emakumezkoek bizitzaren arlo askotan izandako esperientzia errespetatu beharko dute, ikaskuntza berrien iturri bihurtuko da eta; era berean, emakumezkoek euren buruaz duten iritzi kaxkarra autoestimazioaren areagotze bilakatzen saiatu beharra dago, horixe baita kolektibo honentzako helburu nagusia.

## *Hezi, zertarako? Beharrezko aldaketa*

1976an Nairobín egin zen UNESCOren XIX. Konferentzia Orokorrean emandako definizioaren arabera, Helduen Hezkuntza gizakia askatzen duen prozesu bat da eta prozesu horren helburu nagusia gizakiaren garapen osoa da; harrez gero, edukin jakin batzuren transmisioan oinarrituriko hezkuntzaren kontzepzio zaharra ahulduz joan da. Gaur egun oso onartua dago ezen ezagupenak (disziplinak) eskuratzea baino garrantzizkoagoa dela bizitza osoan zehar ikasteari eusteko gaitasunak eta ohiturak garatzea. Garrantzizkotzat jotzen da, halaber, gizarte-baloreen garapena, eginkizun kolektiboetan parte hartzea, taldeko lana, autoerrealizazioaren bilaketa, etab.

Azkenik, hezkuntz sistemaren erreformak eta L.O.G.S.E. delakoan bilduriko orientabide berriek ahalbidetzen dute lan mundura zuzendutako heziketari, norberaren garapenerako heziketari eta gizartean parte hartzeko heziketari lotu behar zaien Helduen Hezkuntzarako eredu berri baten garapena. Hemendik aurrera, helduentzako hezkuntz egitarauak "helduen ezaugarrien, igurikapenen eta interesen arabera prestatuak izango dira". Hortaz, ikastetxeetara doazenen, emakumezkoak gehien bat, hezkuntz premiei benetan egokituriko programak egin eta ikastetxeok horrela antolatzeke aukera dugu honez gero.

L.O.G.S.E.ren 51. art. an agertutako helburuetatik urrundu gabe, emakumezko helduekiko hezkuntz proiektu ororen azkenengo helburua pertsona emantzipatuak lortzea dela uste dugu, hots, pertsona kritiko eta autonomoak, beren bizitza zuzentzeko eta gizartearen dinamikan aktiboki parte hartzeko gai diren pertsonak.

Badakigula egitarau honek urrutira jotzen duela, baina ez dugu etsiko –helburu gisa behinik behin–, zeren, gure ustez, senarraren soldatapean dauden eta gizarteak gutxien dituen lanetan diharduten emakume hauetako gehienentzat ezinbestekoa baita jarraitzen ari diren hezkuntz prozesuak intelektualki ez ezik jarrera eta trebetasun-mailan ere gaitzeko, gutxi garrantutako alderdiak bultzatzeko eta, orain arteko bizitzari eta eskarmentuei balioa emanez norberaren esperientziatik ikasteko baliabideak eskain diezaizkiela.. Prozesu hau luzeagoa da, agian, baina baliotsuagoa eta sakonagoa ere bai.

Aipaturiko hezkuntz helburuak lortzeko, ez da nahikoa emakumezkoaren arazoei buruzko zenbait jarduera antolatzea. Unean-uneango ekintzek ez dituzte emakumezkoen hezkuntza eta kultura arloko gabeziak eta akatsak konponduko. Behin-betiko alde batera utzi behar

---

dugu oraindik ere ikastetxe gehienetan erabiltzen den eredu akademizista, Irakasgai-disziplinen inguruan atondutako egitarauak eta edukinen transmisioan oinarritutako irakaskuntza ez dira jadanik baliogarriak.

## *Oinarrizko Curriculum Diseinu Berria H.H. Iko ikastetxeetan*

Gure Autonomi Elkarteko O.C.D. berrirako mugatu diren ezaugarriak direla eta, emakumezkoen beharriaz egokituriko egitarauak molda daitezke.

Curriculum Diseinu Berriak hurrengo ezaugarriok izango ditu:

- Berariazkoa: hezkuntz eskakizun anitzetara eta gizarte-beharrizan desberdinetara egoki daitekeena. Horrela bada, emakumezkoentzako curriculum berezi bat muga liteke.
- Zabala: ikastetxeek beren inguruko baldintzetara eta bertako helduen ezaugarri eta berezitasunetara egokitu ahal izateko modukoa.
- Esperientziazkoa: helduen bizitz eskarmentuak izan behar du curriculumaren oinarri eta gidaria.
- Malgua: hezkuntz ibilbide desberdinetatik titulazio berberera heltzeko aukera eman behar du.
- Osotua: hezkuntzaren hiru arloetako (oinarrizkoa, lanbide prestakuntza eta gizarte-partehartzea) oinarrizko alderdiak bildu beharko ditu.

Ikus dezakegunez, emakumezkoen zuzendutako egitarauak gauzatzeko aukera benetakoa da. Dagoeneko ez dago irakasgai jakin batzuk eman beharrik, ez eta ikasturteetan derri-gorrezko gai batzuk jorratu beharrik ere. Gure ekimenaren, nahiaren eta dedikazioaren menpe egongo da ikastetxeetako jarduera eta egitarauak ikasleen, kasu honetan emakumeen, beharriaz eta igurikapenetara hobexeko edo txarrago egokitzea.

Beste alde batetik, Hezkuntza Sailak emandako orientabideen arabera, irakasle-taldeari dagokio edukien aukera eta sekuentziazioa, jarraian adierazten diren hiru esperientzia-arloen inguruan antolatu behar direnak:

1. Gizarte-trebeziak eta Ingurunearen analisisa
2. Komunikazioa.
3. Zientzia-teknologia.

Zientzi ezagupenak eta jakintza ez dira guregandik urruntzen, baina hemendik aurrera, helduen esperientzia-esparrutik, aurrez daukaten jakintzatik abiatu irakasteko gauza izan behar dugu (irakasleok), euren oinarrizko beharriaz inguruan, hau da, komunikazioa, in-

---

gurunearen ezagutza, egiteko teknikak eta gizartean jardun eta parte hartzeko trebetasunak jorratuz irakasteko gai.

Helduen Hezkuntzarako O.C.D. berriari buruzko gogoeta honi amaiera emateko, agiri ofizialetan idatzitakoa eta irakasle gisa aspalditik egiten ari garen planteamenduak, behingoz, bat datozela esanez buka dezakegu. Iragan urteetan oinarrizko kolektiboetatik galdatutako orientabideen arabera lan egiteko askatasun osoa dugu.

## *Ikastetxeetan jarduteko proposamenak*

A) Emakumezkoek bakarrik osaturiko taldeak antolatu behar ditugu ala talde mistoak aukeratu?

- Ikastetxe txikietan (3-5 irakasle) zaila da halako aukerak egotea, Taldeak ikasketa-mailaren arabera ezartzen dira eta, pertsona-kopurua oso txikia izaten denez, nekez antolatu ahal izango dira maila bereko bi talde ordutegi berberaz. Ikastetxe hauetan, beraz, taldeak mistoak izango dira nahitaez.
- Ikastetxe handietan, aldiz, aukera hori gerta daiteke, zeren, emakumezkoen kopurua gizonetzkoena baino handiagoa izaten denez eta, oro har, maila bereko taldeak ordutegi berberaz eratzeko adina ikasle izaten denez gero, bata mistoa eta bestea emakumez osatua izan daitezela erabaki liteke.

Hortaz, hor dago aukera eta komenigarria iruditzen zaigu bide horretatik jotzea: horrela, emakumezkoen interesen arabera hezkuntz prozesu garatu eta benetan kezkatzen gaituzten alderdiak sakonago jorratzeko aukera izango genuke. Valentziako San Marcelino auzoko H.H.I.ko ikastetxean izandako eskarmentua -M- Carmen Latorrek Jardunaldi hauetan azalduko duena- oso mesedegarritzat jo daiteke: emaitzek erakusten dute proketuak asmatu duela.

Hortik aurrera, hasierako galderari ematen diogun erantzuna ez da erabatekoa. Komenigarria iruditzen zaigu ahal denean emakume-taldeak eratzea, baina gogoan daukagu, halaber, talde mistoak ere mesedegarriak suerta daitezkeela: bi sexuetako pertsonak toki berbera konpartitzea, elkarrekin hausnartzea, taldean lan egitea, etab.... onuragarriak gerta daitezke ohiturak eta jarrerak aldarazteko eta bi sexuen arteko ulerpena areagotzeko.

Hori guztia aintzakotzat harturik, bi eretako taldeak tartekatzearen aldekoak gara. Bi erak erabiliz gero, bakoitzaren abantailak eta akatsak aprobetxatu ahalko dira hezkuntz prozesuan.

Horrela, esate baterako, ikasle-kopuru handiena biltzen den txanda honela sailka genezake:

- Graduatu mailako talde misto bat (astean 3 egun).
- Graduatu mailako emakume-talde bat (astean 3 egun).
- Heziketa modulu mistoak (astean egun 1).
- Ikastaro eta tailerrak, mistoak batzuk, emakumezkoentzat besteak (astean egun 1).

---

edo bestela:

- Graduatu mailako bi talde misto.
- Emakumezkoentzako heziketa moduluak.
- Heziketa modulu mistoak.
- Ikastaro eta tailer mistoak.
- Emakumezkoentzako ikastaro eta tailerrak.

Hau da, aukera ugari dago eta behin-betiko antolakuntza ikastetxean matrikulaturikoen ezaugarrien menpe egongo da, baina, dena den, garrantzizkotzat jotzen dugu arazoak emakumezkoen ikuspuntutik aztertu eta jorrazteko biltokiak (taldeak, ikastaroak, tailerrak...) sortzea, emakumezkoek adierazpenak egin eta berariazko arazoez kontzientzia hartu ahal izateko biltokiak alegia.

B) Ikastetxeko giroari eta jardunari dagokienez

- Barne-agirietan (P.E.C., R.O.F., ikasleen fitxak...), txartel eta argibide-orrietan, elkarrizketetan eta harreman pertsonaletan lengoia sexistarik ez erabili.
- Testuetan, irakasleen azalpenetan, proposaturiko jardueretan, ikasgeletako jarrera eta iruzkinetan irakatsitako baloreak sexismorik gabe transmititu.
- Emakumezkoaren berdintasuna eta gizartearen begirunea lortu nahi dituztenen aldeko jarreraren garapena. Halako taldeen egitarau eta ekintzak ezagutarazi. Herriko emakume-taldeen harremanetan jarri eta ikasleak haiengana daitezen ahalegindu.
- Ikastetxeko liburutegian emakumezko idazleen liburuak egon daitezela bermatu. Emakumezkoek idatzitako liburuak eta emakumezkoentzat idatzitakoak.
- Emakumezkoa baztertu edo diskriminatzen duten liburu eta idazlanak, hala historikoak, nola zientzia, filosofia edo literaturakoak, gaitzetsi.
- Hezkuntz edukinetan hurrengooi dagozkionak sartu:
  - Emakumeen eskubideak.
  - Feminismoa. Feminismoaren historia.
  - Maitasun-mundua: maitasunaren izaera, sentimenduak, amatasuna, sexualitatea...
  - Emakumea eta osasuna.
  - Lanaren mundua: lan egiteko eskubidea, etxeko lana, emakumezkoen lana Historian zehar.
  - Emakumea eta gizarteak: emakumeak egungo gizartean.
  - Emakumeak eta Literatura.
  - Emakumeak Historian. Emakumeen historia.

---

– Eta abar luze bat.

Eta azkenik, gogoratu beharra dago komenigarria ez ezik beharrezkoa ere badela duela orain hamar urte baino lehenagotik hainbatek (Instituto de la Mujer delakoa, Emakunde, Emakumeen Liburudenda Elkartea, talde feministak, talde pedagogikoak, etab.) argitaratu dituen eta argitaratzen ari diren liburuak, liburuxkak, gomendioak, unitate didaktikoak, bideoak... ikastetxeetan egotea. Egokia litzateke, halaber, aipatutakoek argitaratzen dituzten katalogoak ere edukitzea aukeraketa errazteko.

Ikastetxea, ahal den neurrian behinik behin, baliabide pedagogiko egokiez feminizatzea oso mesedegarria gertatuko zaigu. Bai horixe!

---

**ANA MAÑERU MÉNDEZ**

**Helduen Hezkuntza  
Iraunkorrerako Egitasmoaren  
(P.E.P.A.) arduraduna.  
Emakumearen Erakundea.  
Madril.**

“ *De otra*  
”  
*manera* .

*Helduen  
hezkuntzarako  
koadernoa*

---

Ikasgelara ikasi nahian doazenen eta disziplinetan bildu eta sailkatu dauden ezagupenen arteko bitartekari eraginkorrak izan nahi dituzten irakasleek egunero ikusi ohi duten bezala, erabiltzailearen interes eta beharrietara egokituriko material didaktikoak sortu behar dira ikerketaren bidez.

Hala ere, irakasle-funtzioaren eraketa-prozesua nolakoa izan den kontutan harturik, sarritan, ikerketa eta irakaskuntza bata bestearengandik aldendurik aurkitzen ditugu, batez ere Unibertsitateetatik kanpoko irakaskuntzetan. Testuinguru honetan, irakasleari oso zaila gertatzen zaio "ikasle arrunt" batentzat baliogarria omen delakoan onartzen dena, hots, benetakoa ez den arren estatistiken bidez mugatuta dagoena, irakasteaz gainera, zerbait gehiago egin ahal izateko astirik eta tokirik aurkitzea.

Gauzak honela, kalitatezko hezkuntz prozesua garatzeko ezinbestekoak diren hainbat gauza ahazten dira. Eta berorien artean, gizonezko eta emakumezkoekiko jarrera berbera nabarmentzen da, talde biok eredu bereberetan sartuta baleude bezala, hots, esperientzia eta ezagupen ororen erreferente orokorra eta funtsezko ardatz bezala hartzen den eredu maskulinoan alegia. Nola edo hala sexu-aldagaiaren eragina duten bestelako faktoreak ere, arraza, gizarte-klasea, iritzi politiko eta erlijiozkoak, ohiturak, ingurunea, norberaren historia eta aurretiko ezagupenak alegia, ez dira aintzakotzat hartzen, eta horrenbestez osatzen da doakien taldeetako bakoitzaren eskakizunetara moldatu gabeko hezkuntz eskaintzen desagokitasuna.

Ikaskuntzarako, edo beste edozertarako, sexu ezberdinekoa izatea garrantzizkoa ez balitz bezala, emakumezko ikasleak gizonezkoen taldean integratutakotzat jotzen direnean gertatzen da lehen orokorpena, hots, emakumezko ikaslerik eta beraien esperientziak eta nahiak, ezagupenak eta errealitatearekiko ikusmoldeak dituen emakumerik ez balego bezala, mintzairaren erabilera sexisten bidez gauzatu eta bideratzen den orokorpena.

Bigarrenik, ikasgelara aldatzen dira gizartean nagusi diren hitza, espazioa eta denbora banatzeko erak eta balioztatze irizpideak. Horrela bada, emakumezkoek galerazi egiten zaie izendatzeko ahalmena, beren gorputz eta ingurunearen jabe izateko aukera, berorien jabetza beste batzuren baita, eta euren burua nahiz beste emakume batzuk subjektu aske eta autonomo gisa ezagutzeko aukera ere bai. Helburuen mugapena, jarrerazko, prozedurazko eta kontzeptuzko edukinen aukeraketa, material didaktikoen elaborazioa eta metodologi proposamenak, bestak beste, sistema patriarkalean nagusitutako pentsamolde eta jokabideetan oinarriturik egiten dira.

---

“De otra manera” deituriko material didaktikoak, beraz, aipatu diren alderdiak aintzakotzak harturik eta erabilgarriak gerta dakizkiekeen ezagupen eta jakintza erdiesteko tresnak eduki nahi dituzten emakumezkoen ikuspegitik eginak dira.

Material hauek, Gizarte Arazoetarako Ministraritzak eta Hezkuntza eta Zientzia Ministraritzak elkarlanean, Emakumearen Erakundearen eta Hezkuntza Iraunkorreko Zuzendariorde-tza Nagusiaren bitartez, aurrera daramaten Helduentzako Hezkuntza Iraunkorrako (1990-1995) Egitasmoaren jarduketaren barruan argitarazten ari dira. Egitasmo honen bidez, oinarrizko ikasketak osatu nahi dituzten emakumezkoen hezkuntz esparru egokia eskaintze-ko borondate politiko argia erakutsi dute bi Erakundeok eta, batez ere, aspaldidaniko hez-kuntz irizkeriak eta ohikeriak hausten dituen proketu bat egin eta garatu beharra dagoela ulertu eta hala egiteko konpromezua hartu dutela.

# Lanaren egitura

## 1.

Proiektua haibat material didaktikoz osatua da, hurrengo faseoi dagozkionak:

- Oinarrizko alfabetatzea.
- Alfabetatze-ondokoa.
- Bigarren mailako Hezkuntzako titulua lortzeko prestakuntza.

## 1.1

### ALFABETATZE - FASEA

Maila honi dagokionez, ikasleek ikastaroetan parte hartzera bultzatzeko hainbat materiala prestatu dira; aipagarriak dira, besteak beste, ikastetxe, udal eta bestelako herri-tokietarako poster eta informazio-liburuxka bat, "Elkarrekin ikas dezakegu" izenburuaz, eta bideo bat, izenburu berberaz, berauek ikastaroaren hasieran erabiltzen dira, hots, alfabetatze-ikasgelara doazen emakumezkoak euren esperientziak adierazi eta ikasitakoa beste emakume batzuri transmititzen dienean, horrela beste emakume batzuk ere antzerako prozesura erakartzeko.

Ikasgelako lanari begira, berriz, emakumezko irakasle talde batek prestatutako unitate didaktikoak argitaratu dira, berorien helburu nagusia alfabetatzea da, zentzu zabalean hartutako alfabetatzea alegia, hots, ezagutza eta maitasuna garatzeko prozesuak bultzatzea eta munduaren ezagupenerako eta interpretazio autonomorako tresna baliogarriak eskaintzea barne hartzen dituena. Prozesu hauek, bestalde, emakumezkoen autoestimazioaren aldeko giroa eskatzen dute, haien ohizko errealitatetik, eguneroko bizimodutik, esperientzietik, gizarteari ekartzen dizkieten ezagupenetatik, ideietatik eta baloreetatik eta, halaber, aipatu prozesuetan protagonista gisa parte hartzeko metodologia aktibotik abiatzea alegia. Ikastaroetara doazen emakumezkoen bizimodua, oro har, familiaren inguruan eta etxeko zereginetan gauzatu da eta haiekin bizi izaten direnen beharrezanaren menpe egon ohi dira. Arlo hau, arlo pribatua da, zenbaitek "barrukoa" deitu diona, "kanpoko" deitzen dioten herri-arlotik bereizteko, emakumezkoen gehienetan debekatu egin zaiena. Emakumezkoek herri-arlotik kanpo egoteak, hartako mekanismoak eta hura interpretatu eta artikulatzeko lengoaiak ez ezagutzea ekarri die. Hortaz, lege-gaiak, produkzioaren gizarte-antolamendua, ekonomia eta politika arlo arrotzak gertatzen zaizkie, ezarian-ezarian ezagutuz joan behar diren arau eta erregelak indarrean daudenean arloak.

---

Unitate didaktikoen edukinak honakook dira:

1. Unitate Didaktikoa: Nire bizitza
  - 1.1. ikasgaia: Nire nortasuna
  - 1.2. ikasgaia: Nire familia
  - 1.3. ikasgaia: Nire gorputza
  - 1.4. ikasgaia: Nire lagunak
  - 1.5. ikasgaia: Egiten dakidana
2. Unitate Didaktikoa: Etxetik erosketara
  - 2.1. ikasgaia: Etxean
  - 2.2. ikasgaia: Erosketa otarra
  - 2.3. ikasgaia: Nire sukaldeko errezetak
  - 2.4. ikasgaia: Zaborrak eta ekologia
  - 2.5. ikasgaia: Kontsumoa, janariak garestiak al dira?
3. Unitate Didaktikoa: Distantziazatik agintzeko eragingailuaz
  - 3.1. ikasgaia: Irratia
  - 3.2. ikasgaia: Telebista
  - 3.3. ikasgaia: Egunkariak
  - 3.4. ikasgaia: Aldizkariak
  - 3.5. ikasgaia: Ikusi, entzun eta parte hartu
4. Unitate Didaktikoa: Gu emakumeok
  - 4.1. ikasgaia: Sexualitatea.
  - 4.2. ikasgaia: Lana
  - 4.3. ikasgaia: Eskubideak
  - 4.4. ikasgaia: Nire zaletasunak

- 
- 4.5. ikasgaia: Guk espero dugu...
  5. Unitate Didaktikoa: Etxetik kanpo
    - 5.1. ikasgaia: Hurbileko ingurunea
    - 5.2. ikasgaia: Osasun zentroa
    - 5.3. ikasgaia: Elkartegintza
    - 5.4. ikasgaia: Auzoan barrena
    - 5.5. ikasgaia: Hauteskundeak, emakumeek hautatzen al dute?
  6. Unitate Didaktikoa: Gure historia
    - 6.1. ikasgaia: Modak ehun urte bete ditu
    - 6.2. ikasgaia: Gudua eta bakea
    - 6.3. ikasgaia: Pertsona bakoitzak boto bana
    - 6.4. ikasgaia: Emakumeen historia berreskuratuz
    - 6.5. ikasgaia: Gehiago jakiteko.

Irakasleentzako orientabideak unitate didaktiko bakoitzaren eta ikasgai bakoitzaren sarrean azaltzen dira. Hala eta guztiz ere, irakasleek talde bakoitzaren ezaugarri bereziak kontutan hartu behar dituzte bidezko egokitzapenak egiteko, zeren proposatzen direnak ikasgela bakoitzean malgutasunez erabili beharreko iradokizun orokorrak baino ez baitira.

Ikasgai guztiek dute antzerako egitura bat lanerako proposamenen sekuentziari dagokionez, proposamen horiek eguneroko bizimoduari buruzko irudiekin agertzen direla. Lanerako proposamen edo fitxak banaka edo taldeka egin beharko dira, edukinaren arabera, eta haiek aurkezteko hurrenkera aldatu ahal izango da, bakoitza prestatzeko beharrezkoak diren aurretiko ezagupenak eta haren zailtasun-maila kontutan hartuz.

Berariazko metodologia ondoko printzipioei lotzen zaie batez ere:

- Partehartzaileen esperientziatik abiatu.
- Aurretiko ezagupenak eta ikasleen aurrerapenak balioztatu.
- Elkarrizketa eta partehartzea bultzatu.
- Taldekako lana sustatu.

---

Planteatzen den prozesuan, halaber, eginiko aurrerapenen autoebaluazioa ere sartzen da, irakaskuntzaren sendogarri izango den eta beharrezkotzat jotzen diren egokitzapenak ahalbidetuko dituen irakaslegoaren balorazioarekin osatuko delarik.

“De otra manera” delakoaren 1., 2. eta 3. liburua dagozkion fase hau “Gehiago jakiteko” ikasgaiak amaitzen da, ikasgai hau, berriz, norberaren lan autonomia erraztu eta irakasleek ikasgelan jardura desberdinak garatzeko iradokizun edo pizgarri gisa erabil daitezkeen argibide interesgarrien bildumatxo bat da.

## 1.2

## ALFABETATZE-ONDOKO FASEA

Fase honetako ikasgelako lanari begira, “De otra manera” delakoaren 4. liburua prestatu da. Liburu hau Ministraritzak biok batera argitaratuko du 94-95 ikasturtean erabiltzeko.

Ondoren, aipaturiko liburuaren hitzaurreko zati bat azaltzen da, berorretan egileen eta liburua bultzatzen duten erakundeen asmoak eta material didaktikoaren planteamendu orokorra adierazten dira.

Irakurtzen eta idazten –gizakiaren sormenaren, pentsamendua eta esperientzia erregistratu eta interpretatzeko ahalmenaren zerbitzura dauden bideratze-teknikak– ikasteari helduaroan ekiten zaionean, ikaskuntza orori datzekion zailtasunaz gainera beste eragozpen batzuk ere izaten dira. Eragozpenok, aipatu tekniken jabe ez direnekiko gutxiespen orokorrari lotuta daude, pertsona hauek, autoestimazioa urratu dutela, segurtasunik gabe ekiten baitiote ikaskuntzari. Hau guzti hau areagotu egiten da emakumezkoen kasuan, emakumeen bizimoduak berriaz eragotzi baitu, eta oraindik ere eragozten baitu, haiek irakurketara eta idazketara hurbil daitezkeen, teknika horiek askatasunez, atseginez eta norberaren eta inoren probetxurako erabiltzeko.

“De otra manera” delako liburu-saldoaren laugarren liburuaren helburu nagusia teknika hauek eskuratzeko prozesuak motibatzean datza, horretarako emakumezkoen iritziei eta bereak kulturari eginiko ekarpenei eta, beraz, ikasleek beraiek eginikoei, balio handiagoa eman eta euren hitzei zor zaizkien denbora, tokia, agintea eta egiletasuna aitortuz. Horregatik lantzen dira emakumezkoen idazlanak eta behin eta berriz gonbidatzen zaie ikasleei testu berrien idazle bihurtzera. Horregatik, halaber, jorratzen dira emakumeen bizitzarako interesgarriak diren gaiak, hots, gizarte oro egituratzen duten ardatzak izan arren, beroriek izan ezean edozein giza-antolamendu deuseztatu egingo bailitzateke, gizartean

---

maiz isilpean gordetzen direnak edo garrantzirik gabeko arazoak edo "emakumezkoenak" balira bezala gutxiesten direnak.

Material didaktikoa erabiltzeko, aipaturiko helburua lortzeko lagungarriak gertatzen diren ekinbideak proposatzen dira.

Lehenengo eta behin, elkarrizketa erraztu eta bakoitzak dakiena eta iritziak elkartrukatzeko bide ematen duen irudi bati loturiko unitatearen izenburua irakurtzen da. Irudi bakoitzari loturik 74 testu nagusi aukeratu dira, ikasgai bakoitzeko bana, denak emakumezkoek idatzitakoak, egile desberdinen sormena eta iritzia, ikasgeletan erabili ohi diren testu-bildumetan agertu ere egiten ez direnena ere, ezagutarazteko. Hortaz, irakurri eta idazten duten emakumeak erakutsi nahi zaizkie prozesu honi ekiten dioten emakumeei, askotan isilpean egoitera kondenaturiko edo gutxietsiak izan diren emakumezko idazleei hitza emanaz eta irizkeriaren eraginez ezin eztabaida zitezkeen gaiak zalantzan jartzen dituzten iritziak azalduz.

Testuak kaligrafiazko letraz idatzita azaltzen dira irakurterrazagoak izan daitezzen, eta berrietako bakoitzean esaldi erraz bat nabarmentzen da lanari ekiteko. Berorren tankera eta edukina aztertu ondoren, ikasle bakoitzaren ezagupenen arabera, ezarian-ezarian, delako esaldia testuan sartzeko urratsak emango dira. Behin testua irakurri eta ulertu ostean, idazleari buruzko datuak azaltzen dira, idazlanaren testuinguruari buruzko ezagupenak zabalitzeko.

Ohizko solasaldietan erabiltzen ez direlako, ulergaitzak gertatzen diren hitzen esanahia hiztegia lantzeko atal berezian azaltzen da. Testu bakoitza kontutan harturik, konplexutasun desberdineko lanerako proposamenak eskaintzen dira, edukinaren arabera banaka edo taldeka burutuko direnak.

Batzutan, jorratzen ari den gaiari dagozkion beste zenbait datu interesgarri ere sartzen dira eta irakurmen eta idazmen handiagoa duten ikasleentzako jarduera osagarriak eskaintzen dira. Ikasgai bakoitzaren amaieran, idatz ezazu zeure testua deritzan izenburupean, idazteko toki bat dago, batzutan sinboliko hutsa, norberaren idazlanak egiteko koadernoetan zabal daitekeena. Horrela, ikaslearen iritziak, gaiaz uste duena eta dakiena idazteko aukera eskaintzen da eta bere sormenaren garapena bultzatzen da.

Azkenik, bibliografia aurkezten da irakurtzen eta idazten jarrai dezaten eta jorratutako gaia hobeto ezagutzeko.

Materiala, aurreko liburuak bezala, irakasle talde zabal baten eta hezkuntz prozesuak oinarrizko heziketarik gabeko edo maila horretako gabeziak dituzten emakumezkoen intere-

---

sei eta beharrizanei egokitzen adituak diren batzuren ekarpenak oinarritzat harturik prestatu da. Talde horrek, helduen hezkuntzako ikasgeletan garatutako esperientziak eta hezkuntz maila honetako irakasleen ekarpenak aintzakotzat harturik, hitzak, irudiak, ideiak eta helburuak banan-banan mihiztatuz lan egin du.

Testuak, berriz, bilaketa neketsu eta zail baten ondorioz aukeratu dira, tokirik ezean hainbat testu eta egile, atseginez sartuko genituzkeenak, kanpoan utzi behar izan ditugula. Horregatik azpimarratu nahi dugu material honek ez duela itxia izan behar, baizik eta beste egile eta lan batzuk, argitaratuak nahiz argitara gabekoak, unitate bakoitzean sartuko diren ikasleen beraien idazlanak bezalakoak, sartzeko iradokizuna.

Edozein testu bezalaxe, liburu honek ere irakurketa anitz ditu, irakurlearen arabekoak alegia; izan ere, testu bat irakurtzen dugunean, berridatzi egiten baitugu dakigunaren, gure esperientziaren eta hura interpretatzerakoan hartzen dugun ikuspegiaren arabera. Zentzu honetan, liburu zabala eta irekia da, sakontasun eta konplexutasun-maila desberdinez berratondu eta jorra daitezkeen gai asko biltzen ditu, emakumezkoen bizimoduaren eta, oro har, alde batera utzi ohi diren eskarmentu eta ezagupen femeninoetatik begiraturako gizar-tearen alderdi anitz erakusten ditu, eta talde bakoitzak bere errealitate konkretuaren eta bere beharrizanen eredura mugatuko dituen edukin berriei heltzeko aukera ematen du.

Metodologiari dagokionez, "De otra manera" deritzan material didaktikoen bilduma, ikasgela ikerkuntza-gune, ezagupenak elkartrukatzeko eta ikasteko biltoki bihurtzen duen elkarrizketa pizteko pentsatua da. Biltoki horretan ikasleek eta irakasleek parte hartu behar dute, berariazko ezagupenak, esperientziak eta banakako nahiz taldeko interesak dituzten pertsona helduak direla kontutan izanik. Elkarrizketa horretan baldintza hobeak denok ikasi ahalgo dituzte gauza berriak, nahiz eta abiapuntu desberdinak izan, eta jakina, irakasleak ezagutz tresna gehiagotara batetik, eta datuen memorizazioa, bestelako iturrietara jotzeko ahalbidea eta ezagutzen ez duena bibliografietan, liburutegietan, prentsan, liburuetan, txostenetan eta bestelako agirietan errazago bilatzeko baliabidea errazten dituzten formalizazioa eta sistematizazioa, bestetik, heltzeko aukera eman dioten baldintzetan hobeak dauzkala.

Aipatu beharra dago, bestalde, gizarte-legitimaziorik gabe ere, emakumezko ikasleek badutela jakintzarik, eta berorietatik abiatu beharra dagoela eta beti gogoan izan haien ikaskuntz prozesu osoan zehar. Baieztapen hau adierazpen hutsa izan ez dadin, beharrezkoa da ikasgelan honetaz etengabe hausnartzea, beldurak eta aurriritziak deuseztatzea eta ho-

---

rretaz mugarik gabe hitz egitea, jakintzarako aurrerabide kolektibo baten eta gure inguruko munduaren interpretazioaren oinarria den aldetik.

Ikasgelako denbora eta espazioa malgutasunez antolatu behar dira, horrela ikasleek, une-an-unean, beren hezkuntz beharrizanei egokituriko eta ordutegia, tokiaren antolamendua, edukinen aukeraketa eta baliabide didaktikoak direla-eta izan ditzaten interesen araberrako erabakiak hartu ahal izateko.

Garrantzizkoa da, halaber, bata bestearenganako begiruneari etengabe eutsi behar zaiola azpimarratzea, batez ere norberaren alderdiak, sineskerak, interesak, bizipenak eta maitasunak jorratzerakoan.

Taldeko lanaren bitartez elkarlana bultzatu nahi da eta, beste alde batetik, ikaskuntza hobea ahalbidetzen du, zeren ezagupenen elkartrukaketa eta edozein egitateri begiratzeko ikuspuntuak zabaltzen dituzten iritzien kontra-jartzea errazten baititu.

Unitate didaktikoen edukinak honakook dira:

#### 1. Multzoa: Gu geu

- 1.1. Emakume nagusien birbalorazioa
- 1.2. Ama eta alabaren arteko harremanak.
- 1.3. Publizitatea.
- 1.4. Edertasun-ereduen tirania.
- 1.5. Osasun-hondamena zilueta baten itzal gezurrezkoagatik
- 1.6. Emakumezkoen sexualitatea.
- 1.7. Sentitzeko beste era bat.
- 1.8. Amatasuna emakumeen ikuspegitik.
- 1.9. Aisia eta astialdia: gorputz ariketa eta kirola egitea.
- 1.10. Osasuna zaintzea eta bizi-kalitatea.

#### 2. Multzoa: Denbora eta espazioa

- 2.1. Norberaren espazioaren beharra
- 2.2. Emakumeen bizimodua inoren menpe
- 2.3. Arlo publikoa eta arlo pribatua
- 2.4. Etxe-arlotik irten
- 2.5. Emakumezkoen espazioak

#### 3. Multzoa: Menpekotasuna

- 3.1. Gizonezkoei eta emakumezkoiei atxikitako zeregin desberdinak
- 3.2. Norberaren irudia.

- 
- 3.3. Emakumezkoen identitatea.
  - 3.4. Afektibitatea eta maitasuna.
  - 3.5. Menpekotasuna/Askatasuna
  - 3.6. Erasoak.
  - 3.7. Indarkeria sexuala.
- 4. Multzoa: Iragana
    - 4.1. Gure arbasoak (emakumezkoak).
    - 4.2. Emakumezkoen ikustezintasuna historian.
    - 4.3. Gure historiaren ezagupena.
    - 4.4. Emakumezkoak ehiztari-biltzaileen gizarteetan.
    - 4.5. Emakumezkoak mundu klasikoan.
    - 4.6. Emakumezkoen lana Erdi Aroan.
    - 4.7. Emakumezkoen bizimodua Aro Modernoan: ezkontza.
    - 4.8. Emakumezkoen bizimodua Aro Modernoan:komentua.
- 5. Multzoa: Eskubideak
    - 5.1. Mugimendu feministaren aurrekariak.
    - 5.2. Sufragioa.
    - 5.3. Partehartze politikoa.
    - 5.4. Emakumezkoen historiaren berreskurapena.
- 6. Multzoa: Hezkuntza
    - 6.1. Rol transmisioa.
    - 6.2. Sexu eta generoaren arteko nahasmendua.
    - 6.3. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko zatiketa.
    - 6.4. Hezkuntzaren zeregina.
- 7. Multzoa: Lana
    - 7.1. Lan ikustezina: maitasunezko laguntza.
    - 7.2. Etxeko lana.
    - 7.3. Ordaindutako lana.
    - 7.4. Bi lansaio.
    - 7.5. Lanbideek ez dute sexurik.
    - 7.6. Lanbide guztietara heltzeko modua.
    - 7.7. Emakumeen lana Espainian.

- 
8. Multzoa: Zientzia
    - 8.1. Sorgin sendagileak.
    - 8.2. Emakumezkoen ikerlanak.
    - 8.3. Emakumezko zientzilariak.
    - 8.4. Androzentrismoa.
    - 8.5. Ikerkuntza feminista: emakumezkoen azterlanak eta emakumezkoen buruzkoak.
  9. Multzoa: Artea
    - 9.1. Genero-perspektiba.
    - 9.2. Apaingarrizko arteak.
    - 9.3. Musika.
    - 9.4. Argazkigintza.
    - 9.5. Zinea.
    - 9.6. Pintura.
    - 9.7. Literatura.
    - 9.8. Eskultura.
    - 9.9. Arkitektura eta hirigintza.
  10. Multzoa: Politika
    - 10.1. Botere itunak.
    - 10.2. Emakumezkoak eta boterea.
    - 10.3. Emakumezkoen erreibindikazioak.
    - 10.4. Emakume-elkarteak.
    - 10.5. Emakumezkoak guduen aurrean.
    - 10.6. Emakumezkoek politikara dakarten ikuspegia
  11. Multzoa: Aukera berdintasuna
    - 11.1. Berdintasuna prozesu demokratikoetan.
    - 11.2. Espainiako Konstituzioa.
    - 11.3. Bestelako diskriminazioak.
    - 11.4. Berdintasuneranzko bideak.
    - 11.5. Norberaren identitatearen bila.
  12. Multzoa: Etorkizuna gaur hasten da
    - 12.1. Komunikabideak.
    - 12.2. "De otra manera". Helduen hezkuntza.
    - 12.3. Utopiak.

---

#### 12.4. Nahiak.

Fase honetan etengabe ari zaie bultzatzen ikasleei testugintzari ekin diezaioten, eta horrenbestez, 1995ean haiek eginiko testuak bilduko dira helduen hezkuntzako ikasgeletan erabili ahalko den antologia bat prestatzeko. Horrez gainera, ikasgeletara doazen emakumezkoen osasunari buruzko ikus-entzunezko bat ere egin da "La menopausia" izenburuz, eta urte amaierarako maila hau osatzen duten beste bi ikus-entzunezko egiteko asmoa dago, "El trabajo remunerado y no remunerado de las mujeres" eta "La práctica política de las mujeres" deituko direnak hain zuzen.

### 1.3

#### **BIGARREN MAILAKO HEZKUNTZAKO GRADUATU TITULUA LORTZEKO PRESTAKUNTZA-FASEA**

Egun Hezkuntza eta Zientzia Ministraritzak aurrikusitako moduluei dagozkien 16 unitate didaktiko diseinatzen ari dira aipaturiko titulazioa lortzeko. Emakumezkoen eskarmentu eta interesetatik abiatuta landu diren unitate hauek sekuentziazio orokor batean sartuta daude eta gerora modulu bakoitza osatzeko beharko diren gainontzeko unitate didaktikoak oinarritzeko ereduak dira.

## Bibliografía

- ANDERSON, Bonnie; ZINSSER, Judith: *Historia de las mujeres: una historia propia*, 2. lib. Bartzelona, Crítica, 1991.
- BOM, WILL: *Abrirse paso. Orientación laboral y profesional para mujeres*, Bartzelona, El Roure, 1994.
- Colectivo del Libro de Salud de las Mujeres de Boston: Nuestros cuerpos, nuestras vidas*, Bartzelona, Icaria, 1984.
- De otra manera. Cuadernos de educación de adultas*, Madril, Hezkuntza eta Zientzia Ministrarritza eta Gizarte Arazoetarako Ministrarritza, Madril, 1992-1994, 4. lib. (1. lib.: 1992, 2. eta 3. lib.: 1993, 4. lib.: 1994).
- De puertas adentro*, Madril, Emakumearen Erakundea, Kultura Ministrarritza, 1987.
- Guías de Salud (I, Anticonceptivos y Sexualidad; II, Maternidad/Paternidad. El embarazo; III, La interrupción voluntaria del embarazo; IV, Las enfermedades de transmisión sexual; V, La menopausia; VI, La consulta ginecológica; VII, Mujer y Sida; VIII, Adolescencia; IX, Mujeres Mayores)*, Madril, Emakumearen Erakundea, 1987-1994.
- La educación de adultas*. Serie Cuadernos de Educación No Sexista, Madril, Emakumearen Erakundea, 1993.
- La educación no sexista en la reforma educativa*. Serie Cuadernos de Educación No Sexista, Madril, Emakumearen Erakundea, 1992.
- La mujer en cifras*, Emakumearen Erakundea, Madril, 1992.
- II Plan para la Igualdad de Oportunidades de las Mujeres (1993-1995)*, Madril, Emakumearen Erakundea, 1993.
- PNUD: *Desarrollo humano. Informe 1991*, Bogotá, Tercer Mundo, 1991.
- Podemos aprender juntas*, Madril, Emakumearen Erakundea, 1991
- Propuestas para evitar el sexismo en el lenguaje*, Madril, Emakumearen Erakundea, 1989.
- RICH, Adrienne: *Sobre mentiras, secretos y silencios*, Bartzelona, Icaria, 1983.
- RIVERA GÁRRETAS, María Milagros: *Textos y espacios de mujeres*, Bartzelona, Icaria, 1990.
- RUBIO, Esther: *Desafiando los límites del sexo/género en las ciencias de la naturaleza*, Madril, Hezkuntza eta Zientzia Ministrarritza, 1991.
- STRÖMQUIST, N.P.: "Challenges to the Attainment of Wome's Literacy" *Women and Literacy: yesterday, today and tomorrow* delakoan, Stchockholm, Swedish National Commission for UNESCO, 1992.

---

## **Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Egitasmoaren material didaktikoei buruzko oharra:**

1., 2. eta 3. liburuak Pilar García Garcíak eta Paloma González Setiének koordinatu dituzte. Idazleak, berriz, Rosario Contreras Gómez, M.º Angeles Cremades Navarro, Pilar García García, Milagros Montoya Ramos eta Esther Rubio Herráez izan dira.

4. liburuaren koordinatzaileak Ana Mañeru Méndez, Magdalena Santana Molina eta Marta Holgueras Pecharromán (Emakumearen Erakundeko Egitarauen Zuzendariorde Nagusia) izan dira. Testuen, irudien eta lanerako proposamenen aukeraketa egin dutenak, berriz: Antonia Carré Pons, Marta Holguera Pecharromán, Paloma González Setién, Conxa Llinás Carmona, Ana Mañeru Méndez, Isabel Pérez Molina, Cristina Ruiz Guerrero, Magdalena Santana Molina eta Rosa Segarra Martí.

“Podemos aprender juntas” eta “La menopausia” deituriko bideo-lanak Emakumearen Erakundeak produzitu, Gloria Serrato Azatek idatzi eta egin eta Paloma Gómez Setiének koordinatu ditu.

---

**M.º ANGELES LÓPEZ RUIZ**  
**H.H.I.ko Zerbitzburua.**  
**Hezkuntza eta Zientzia Saila.**  
**Andaluziako Junta. Sevilla.**

*Helduen*

*Hezkuntza*

*Andaluzian.*

*M.A.R.E.P.*

*egitaraua*

---

Gaur egun, Europan, Helduen Hezkuntzaren berrikuspen sakona nabari da garai berrien atarian gaude eta, garai berri hauetan berebiziko garrantzia izango dute biztanleriaren zahartzeak, emakumea gizartean eta lan munduan gero eta gehiago agertzeak, teknologi aldaketek eta gazteriaren langabezi tasa gero eta handiagoak.

Gauzak honela, Europako helduen hezkuntzari eta Merkatu Baturako perspektibei buruzko diagnostiko bat prestatzen ari dira, hezkuntza gizartearen eskakizunetara moldatzeko. Aurreneko ondorioen zain gaude.

Europan ia denok gatoz bat hezkuntzak, oro har, eta helduen hezkuntzak bereziki, Elkartearen garapenaren merkatu orokorrean izan duten eragin eta garrantzia aitortzerakoan. 1989. urteaz geroztik lehentasunezko gaien artean dago.

Aldaketa hauek aintzakotzat harturik, hezkuntza iraunkorra eta hezkuntza baliatzailea heretsiki loturik ageri zaizkigu, gure garaiko binomio egoki bat bezala. L.O.G.S.E.k, bere bigarren artikuluan ezartzen du hezkuntza iraunkorra Hezkuntz Sistemaren oinarrizko printzipioa izango dela.

Une honetan, Andaluziako Helduen Hezkuntza ere hezkuntza iraunkorraren testuinguruan zertzen da eta momentu bideanitzeko, kritiko eta zabal batean gaudela esan genezake.

Andaluzian, analfabetismoaren gutxitze-zifrak oso txikiak badira ere, analfabetismo funtzionalari dagozkion eskakizunetaz beterik dagoen gizartean jardungo badute, oraingo oinarrizko heziketa eskasa duten pertsona asko daude, produkzio-mailako, ekonomi eta teknologi aldaketak direla medio, beren bizitzako arlo garrantzitsuenetako igurikapenak eragotziak ikusten dituztenak.

Helduen Hezkuntzarako Egitaravari 1983an ekin zitzaion 36 ikastoki eta irakaslerekin. Gaur egun, 2.187 irakasle ari dira eta 618 ikastetxetan.

Jakintza, trebetasunak, baloreak eta jarrerak etengabe eskuratzeari "hezkuntza" esaten diogu.

Norberaren garapenaren bidez gizartearen garapenera heltzeko hezkuntz eredua da. Lehentasunak dituen, solidarioa, kulturartekoa, sortzailea, ikerketa-ekintzazkoa eta, jakina, honek metodologia egokia eskatzen du.

Gure Curriculum-Diseinua elkarloturik dauden hiru arlo zabaletan egituratzen da: Heziketa Instrumentala, lanerako heziketa eta norbera garatzekoa.

Gaur egun Helduen Hezkuntzari buruzko Lege bat dago Andaluzian, 1990ean onetsia eta bost Dekreturen bidez arautua.

---

Zein arazo edo gai jorratu behar dira nagusiki, helduek ekonomiaren krisialdiaren ondorioei aurre egiteko, jardun publikoan parte hartzeko eta gizartean produktiboki aritzeko behar dituzten ezagupenak eta trebetasunak eskura ditzaten?

Ekin nahi diogun Curriculum-Diseinu berriak eman behar dizkigu horretarako hautabideak. Gaur egun zenbait sektore eta egile nabarmentzen dira.

Horrez gainera, gazte eta helduen hezkuntzari zentzu bat aurkitu behar diogu, hura dibertsifikatu, zabaldu eta aurrearretazkoa eta ez konpontzailea izan dadin lortu ahal izateko. Asmozko ekinbide bat sortarazi behar du, hezitzailea iraunkorra, erreferentetzat Andaluziako kultura anitz eta askotarikoa duena.

Andaluziako Helduen Hezkuntzako Egitaraua hasi zenetik, duela hamar urte, milio bat pertsonatik gora joan dira ikasgeletara. Hauetako zazpiehun mila emakumezkoak dira.

Zertan nabari izan da emakumezkoen partehartzea Andaluziako Helduen Hezkuntzan?

Helduen Hezkuntzako Zentroak oreka honen konpentsatzaile dira eta, nire ustez, emakumearen aldeko adierazpen iraunkorra ere bai. Haietan egunero gertatzen da emakume askoren protagonismo kolektiboa, hitz askoren esanhia ulertuz, beren errealitatea eta identitatea hobeto ulertzen eta interpretatzen baitituzte: ni neu pertsona bezala, ezezagunak zitzaizkidan izateko eta egiteko ahalbide berriekin, nire baitako bakardadean, zergatik etsi?, bizitzan zergatik egokitu ote zait eginkizun hain petrala?, maiz pentsatu dudana.

Emakumezkoaren arazoei hezkuntza iraunkorraren ikuspuntutik aurre egiteak benetako desberdintasun bat, jakina edo oharkabea, baina onetsia, zertzen duten elementu diskriminatzaileen azterketara hurbiltzea dakar.

Helduen Hezkuntzako Ikastetxeetan hezi eta promozionatzen dira emakume hauek, hezkuntza eta kulturaren ondasunetan gero eta gehiago integratzen direla.

Emakumeak Helduen Hezkuntzako Ikastetxean sartzeko baldintza berberak dituenetik, umetan agian ukatu egin zitzaion eskubide bat erdietsi du.

Aldi berean, gizarte-rolaren aldaketa bati lotzen zaio. Emakumeak ikastetxe hauetan heziketari ekiten dionean, nolabaiteko aldaketa, nabarmena ala ez horren nabarmena baina aldaketa azken finean, gertatzen da bere famili eta gizarte-bizitzan; oraintsura arte berari gebenduriko eta gizonezkoek monopolizaturiko arloetan ere parte hartzen hasten da, familian eta gizartean dagozkion erantzunkizunen banaketa berria ezagutzen du.

Hezkuntza iraunkorra bere erantzunkizunak hobeto asumitzeko tresna bihurtzen da.

Helduen Hezkuntzako Zentroetan, berorietako hezkuntz prozesuetan beti aurkitzen dira krisialdi guztietako aurreneko biktimak ez izateko erantzunak, heziketa mailakoak noski.

---

Oinarrizko heziketarik eza eta analfabetismoa, batez ere, izan da emakumea zenbait lanetatik aldentzearen zergatietako bat.

Beste alde batetik, iraganeko zirkunstantzia historiko eta politikoen arabera, emakumearen lekua etxea zen eta garai hartako lan arautegian, oro har, emakumezkoak ezkontzean lanari uzten ziotela aintzakotzat hartzen zen. Azken urte hauetan, aldiz, berdintasunari buruzko legeria asko garatu da, baina hala ere, eguneroko bizimoduan zailagoa da desberdintasuna gaingitzen.

Lan munduan sartzeko aukera gutxi ditugunez gero, emakumearekiko menpekotasun ekonomikoa nabari da,

Baina, hala kultura eta erlijiozko ohitura batzuren, nola ekonomiaren eta gizartearen eraginez emakume askok oraindik ere nozitzen duten menpekotasunetik irtengo bagara, gogoan izan behar dugu hezkuntza soilik ez dela aski, baizik eta, gu geu eta gizartea ere bai, egoera honetaz ohartzea ere ezinbestekoa dela.

Funtsezkoak dira, halaber, erakundeen erantzun politikoak eta, horrenbestez, Andaluziako Juntak, Emakumearen Andaluziar Erakundearen eta Hezkuntza eta Zientzia Sailaren bitartez, ahaleginak bateratu, Europako N.O.W. ekinbidean sartu da protagonismoa zeuei emakumeoi aitortzen dizuen M.A.R.E.P. egitarau honekin.

Hezkuntza eta gizarte mailako ekintza garrantzitsuak burutzeko, Erakundeen baterako ahalgina behar da.

M.A.R.E.P. egitaraua erakunde edota administrazio desberdinen ekintza bateratuaren ondorioa da. Europako Komunitateen Batzordeari esker gauzatu da, izan ere, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko benetako aukera-berdintasuna lortzeko bidean aurrera eginez, Egiturazko Fondoan (F.S.E. eta F.E.D.E.R.) esparruan, emakumezkoen lanbide heziketa eta enplegua bultzatzeko ekinbide komunitario bat aplikatzea erabaki baitzuen, hots, N.O.W. deritzana.

Europako Gizarte Fondoak, beraz, 1. helburukotzat jotzen diren Andaluzia bezalako eskualdeetako ekintzen %65 finantzatzen du eta emakumezkoak lan merkatuan aukera berdinekin sartzeko lortzeko estrategiak prestatzeko orientabideak eskaintzen ditu.

Europarekiko koordinazio hau, hala ere, Hezkuntza eta Zizentzia Saileko Andaluziako Helduen Hezkuntzarako Egitarauaren eta Gizarte Arazoetarako Saileko Emakumearen Andaluziar Erakundearen arteko koordinazioari esker gertatu da.

Emakumezkoen laneratzeko aukerak haien heziketa-eskariari lotuta daude. 1983az geroztik, hau da, Andaluziako Helduen Hezkuntzarako Egitarauari ekin zitzaionetik, zortziehun mila emakume baino gehiagok jo dute berorretara, aldi berean, gero eta gehiago dira Unibertsitatean ari diren emakume andaluziarrak, hortaz, argi dago gizarte-maila orotako emakumeek parte hartu nahi dutela herriaren produkzio-garapenean.

Ikastetxe hauetan matrikulaturiko ikasle guztietatik %72,4 emakumezkoak dira.

Beste alde batetik, heziketa-maila hau gehien eskatzen dutenak 25 urtetik 45 urtera bitartekoak direla esan genezake.

#### IKASTETXEETAN MATRIKULATURIKO EMAKUMEAK

	%
16 urtetik 25 urtera bitartekoak	23,6
25 urtetik 45 urtera bitartekoak	42,8
45 urtetik 65 urtera bitartekoak edo hortik gorakoak	33,9
<hr/>	
Euren iritiz etxekoandreak direnak	50,98
Luzaroan langabe daudenak	24,71
Bestelako lanbidea dutenak	24,31
<hr/>	

---

Biztanle hauetako asko lanbide-kualifikaziorik ez izateagatik edo sos eskasa izateagatik edota litezkeen eskaintzei heltzeko ekimen eta heziketarik ezagatik geratu dira lan munduan sartu gabe.

Hezkuntz ereduak edo curriculum-diseinuak elkarloturik dauden hiru arlo ditu: Heziketa instrumentala, norberaren garapenerako heziketa eta lanerako heziketa.

Ikasleek ikerketa-ekintzazko metodologia baten bidez burutzen dute prozesu hau eta, horrenbestez, ezagupenak, ikasitakoak, baloreak eta trebeziak norberak aurkitu eta finkatzen ditu taldeko jardunaren bidez.

“Ikasten eta ekiten ikasten da”, norberaren heziketarako autonomia gero eta handiagoaz eta ingurunea eraldatzeko kontzientzia solidarioaz jabetuz.

Eskola Graduatuko titulua erdiesten dutenean, gehienek adierazten dute aurrerantzean ere ikaskuntzari jarraitu nahi diotela.

M.A.R.E.P. Egitaraua desberdintasunak ezabatu eta emakumearen arazoei erantzuteko ekintza-proiektu bat da.

## 1.1

## FASEAK

LAU FASEZ OSATUA DA:

- 1992ko urtarriletik 1993ko ekainera. Esperimentala.
  - Eskola Graduatua duten 25 urtetik gorako emakumeak.
  - Luzaroan lanik gabe daudenak eta lanbide-kualifikaziorik gabekoak. Guztira 160 emakume.
- 1993-94 ikasturtea. Esperientzia inplementatzea.
  - Eskola Graduatuko bigarren urtea ikasten ari diren 21 urtetik gorako emakumeak.
  - Kualifikaziorik gabeko langabetuak. Guztira 320 emakume.
- 1994-95 ikasturtea, Esperimentala.
  - Guztira 640 emakume.
- 1995-96 ikasturtea. Esperientzia inplementatzea.
  - Guztira 2.080 emakume.

## 1.2

## NEURRIAK

- Orientabidea.
- Aholkularitza.
- Oinarrizko aurre-heziketa.
- Enpleguratzeko heziketa.

## 1.3

## HELBURU NAGUSIA

Emakumeak lan merkatu araupetuan sartzeko edo birsartzeko aukerak areagotzea.

Nazioarteko bideak zabaltzen ditu ekinbidean parte hartzen duten herrialdeen arteko lan-kidetzan langileen zirkulazio irekiari begira.

Helburutzat geneukan emakume-taldearen birlaneratzeak orientabidean heziketan eta lan-bide-praktiketan eta enplegu bilaketan oinarritutako ekintzazko estrategiak prestatzea eskatzen zuen.

- Nola planteatu heziketa hau, ekintza bideratuko duten irakasleek ere halakorik ez badute? Bi taldeak hezi beharra dago, jakina.
- Nola planteatu horren latza eta konplexua den lan munduko errealitatearen eta lan mundua inoiz ere ezagutu ez duten emakumeen arteko topaketa?
- Zein tresna eman beharko ote zaizkie lan munduan eskatzen den egungo jakintzaren lengoian trebetasunak eta abileziak antolatu eta eguneratzeko aukera izan dezaten?

Hiru galdera hauei eman beharreko erantzuna zen, hain zuzen ere, M.A.R.E.P. Proiektuaren erronka eta hartara egokitu ziren edukinak.

Lehenengo esperientzia hau Andaluziako Helduen Hezkuntzarako zortzi zentrotan eraman zen aurrera, probintzia bakoitzeko zentro batean.

## 1.4

## AURRETIKO FASEA

Behin irakasle-taldea (Helduen Hezkuntzarako gizonezko bat eta zazpi emakumezko) aukeraturutakoan, berauen prestakuntzan datza gakoa.

Prestakuntza egitarauak hiru modulu dauzka:

- Lan merkatura hurbilketa eta gizarte-ikerketarako teknikak.
- Orientabide profesionala.
- Enplegua bilatzeko teknikak.



#### 1.4.1

#### LAN MERKATURA HURBILTZEA ETA GIZARTE-IKERKETARAKO TEKNIKAK

Modulu honetako prestakuntzak bi helburu nagusi ditu:

- Inguruko enpresa-multzoa ezagutzea.
- Egitaraua zuzentzen zaion eskualdeko emakume-taldea ezagutzea.

#### 1.4.2


#### ORIENTABIDE PROFESIONALA

Modulu honetako lanaren bidez, orientabide profesionaleko saio desberdinak emateko material didaktikoen plangintza, programazio eta moldakuntzarako behar diren ezagupenak eskuratu ahal izan zituzten.

#### 1.4.3

#### ENPLEGUA BILATZEKO TEKNIKAK

Enplegua bilatzeko estrategien irakaskuntza praktikoa eta informazio profesionalari saioetan dagokion zeregina asmatzea eta hura nola lantzen den jakitea ziren helburuak.



Ikastetxea aukeratzeko hainbat aldagai aztertu ziren:

- Hiri-eskualdeak eta landa-eskualdeak
- Hazten ari diren herriak.
- Ikastaroa emateko irakasle eta azpiegituraren erabilgarritasuna.
- Lan merkatuan sartzeko gogoia zuten emakume-taldea izatea.

Deialdi publikoa egin zen komunikabide desberdinetan.

Emakumeak aukeratu eta beharrezko hezkuntza mailakaketa zehaztu ondoren, Orientabide Profesionaleko moduluari ekiten zaio, aurreneko hiru hilabeteetan zehar berrehun eta hamar ikastordu emanez.

Bereziki lan egiten da hurrengook lortzeko:

- Lanerako arlo baten edo zeregin jakin baten hautapena.
- Laneratzeko banakako proiektuen gertuketa.
- Bilaketa estrategien ezagupena.

B.L.G.E. (Bokaziozko eta Lanbide-Garapenaren Eragiketa) deritzan bilakaera-eredua oinarritzat hartzen du, hurrengo fase edo maila bereiziek: IKUSKATU, ANTOLATU, HAUTATU ETA EKIN.

---

Hilabete batean zehar eta IKAS-EKINEZKO HEZIKETAren barruan, horretarako berariaz ger-tururiko enpresa batek aurrera eramaten du lanerako heziketa.

Enpresetako praktikaldiak bi hilabete 1'erdi iraun zuen.

Enpresak aurretiaz aukeraturik, monitoreek tutoretzak mantentzen dituzte emakumeekin.

Azkenik, enplegua bilatzeko teknikak landu ziren hogeitaz irakastordutan gutxi gora behera.

## **1.6**

### **NEURRI OSAGARRIAK**

- Hautzaindegietarako laguntzak (Sei urtetik beherako seme-alaba bakoitzeko 15.000 pta.).
- Ekonomi prestazioa enpresetako praktikaldiak iraun bitartean, bertaratzeko beka gisa.
- Enpresentzako konpentsazioa, tokiko, eskualdeko eta nazioko prentsan ekintza iragarritz.
- 1. mailako L.H.ko talde honentzako proba berezia.

## **1.7**

### **NAZIOARTEKOTASUNA**

Italiako (E.N.A.I.P., C.I.F., C.I.O.F.S.), Frantziako (D.A.F.C.O.-NIZA, Besançongo Unibertsitate) eta Alemaniako (E.U.R.E.S.) erakundeek osatzen dute nazioarteko elkartruckerako sare hau.

## **1.8**

### **EBALUAZIOA**

- Hasierako ebaluazioa.
  - Etengabeko ebaluazioa prozesuan zehar eta diharduten guztiekin. (Barrukoa eta kanpoko).
  - Azken ebaluazioa. (Barrukoa eta kanpoko).
- Eskola-ikasturte honetan zehar ekingo zaio M.A.R.E.P. egitarauare inplementazioari.

- Aurreko kopuruen aldean halako bi ikastetxe eta emakumeri zuzentzen zaie. Hortaz, irakasle-kopurua ere bikoiztu egin da.
- Emakumeak bigarren urteko Eskola Graduatuko ikasleak dira Zentroetan.
- Talde berezia osatzen dute, lanerako joera duen curriculuma izanik ere, Zentroko Egitasmoan agertzen da.
- Zenbait irakasle aldatu dira. (Ehuneko berrogeita hamar).
- Bi urtetan zehar burutzen da.
- Beste Sail batek ere parte hartzen du, Lan Sailak hain zuzen, esperientzia hauek bere Lanerako Ikastaroen programaziora bildu dituela, Lanerako Lanbide-Heziketarako Egitarauak ezartzen dituen Andaluziako Juntaren Dekretu baten bitartez.
- Horretarako, Eskualde eta Probintziako Batzordeak eratzen dira.

Bi erakundeon helburua izan da eta da, oraindik ere, heziketa eta informazio-prozesu bat eskaintzea, norberaren errealitateari buruzko gogoeta eta azterketa eginez, lan munduari, berorren eragozpenei eta kontraesanei aurre egiteko jarrerak eta ikuspuntuak aldatzera bultzatzeko.

Bi erakundeon helburua da, halaber, heziketa arloko erantzunak eskaintzea eta arlo nahasi honetan sartzeko ahalbideak ere bai, eta informazioa ez ezik, norbera hezitzeko informazioaren bilaketa erraztea, eta beti ere, arazoa ez dagokiola jakintzari bakarrik baizik eta botere estrategiari ere bai ahaztu gabe, noski.



**Partehartzaile bakoitzak eman beharreko urratsak**

---

*Emakumeen*

*promozio*

*zentroak eta*

*enplegurako*

*herkuntran*

*duten eragina*

---

**MARISA RODRÍGUEZ IGLESIAS**

**Abokaturia Gipuzkoako Famili  
eta Gizarte Zentroetako  
(C.F.F.S.) enplegurako  
ikastaroen koordinatzailea**

*Famili eta*

*gizarte*

*herziketako*

*zentroak*

---

Famili eta gizarte-heziketako zentroak sortu zirenetik, emakumezkoen hezkuntzari ekin diote helburutzat emakumezkoa pertsona bezala garatzeko bidearen bilaketa duen hezkuntz proiektu batez.

Donostiako Udaleko Aurrezki Kutxaren Gizarte Ekintzaren barne sortu ziren famili eta gizarte-heziketako zentro hauek, eta gaur egun Gipuzkoako Kutxaren Kutxa Fundazioaren Gizarte Ekintzan sarturik daude. Hasieratik, ekin diete emakumearen garapen osora zuzendutako heziketa jardueri, arautu gabeko heziketa jardueri hain zuzen.

Probintzian, Arrasate, Andoain, Lasarte, Donostia eta Erreterian hain zuzen ere, kokaturik dauden sei zentroetatik, emakumea arlo pribatutik publikora ateratzeko ahaleginak egin dira hainbat heziketa-ekintzaren bitartez. Hauetako batzuk aipatzekotan, lanerako tailerrak, kultur osterak, ludikoak, aisialdiaren antolaketa, etab. aipa genitzake eta, bereziki, eztabaida eta gogoetarako taldeak, emakumezkoen jarreraren bultzagarri gertatu baitira, emakumeak beren heziketaren protagonista sentiaraziz.

Heziketaren jarraibide nagusia zera izan da, zentroetan ematen den heziketa orok bertaritzen den emakumearen ezaugarrietara egokitua izan behar duela gogoan izan eta helburutzat hartzea.

Heziketa Zentroetara doazen emakumeak 18 urtetik 55 urtera bitartekoak izaten dira nagusiki,

Enplegurako hezkuntzari dagokionez, 88-89 urtean izan zen aurreneko saialdia, lan merkatu sartzeko hasiak ziren emakumezkoen kezka aintzat harturik, emakumezkoen laneratzeko bultzatzeko berariazko heziketari ekin zitzaioela.

Urte honetan zehar bi heziketa-ekintza egin ziren Donostiako Udalaren eta Famili eta Gizarte Zentroen dirulaguntzaz, beroriek izan ziren harrez gero eta egun arte aurrera eramaten ari garen enplegurako egitarau hazi eta abiapuntua. 89. urteaz geroztik, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren dirulaguntzaz eta Emakunderen lankidetzaz, emakumeen enplegurako egitarau berezia garatzen ari da.

Egitarau honen helburu nagusia zera da, lehiakorrak izan arren eguneratu gabe dauden enpresa edo lan kultura duten lan sektore edo arloetan lanean hasteko bidea erraztea talde behartuenei.

18 urtetik 55 urtera bitarteko emakume langabetuei zuzentzen gaitzaizkie, oro har hiru taldetan sailka daitezkeenak:

A) Lan merkatua inondik ere ezagutzen ez duten emakumeak, beren bizitzan inoiz ere bertaratu ez direnak.

- 
- B) Noizbait lan egin duten arren, gaur egun lan merkatuari buruzko argibiderik ez izanik, orain beharrezkoak diren berezitasuna eta kualifikazioa direla medio hura ezagutzen ez zutenak.
- C) Enplegurako motibaziorik ez duten emakumeak, heziketa ikastaroen bidez lan munduan sartu badira ere, bertaratze hori zerbait berria balitz bezala hartu arren horrekin zer lortu nahi duten ez dakitenak, lan helburuei eta hartaratzeak dakarkienari buruzko gogoetarik egin gabekoak.

Hain nabarra den talde batekin, eta emaitzarik hoberenak lortu nahian, erakunde-zko erre-flexio-prozesu bat izan zen ikastaro desberdinen helburuak, edukinak, metodologia eta eba-luazioa mugatu ahal izateko.

Aurreprintzipio gisa, ikastaroak egiteko izena ematen zutenen arteko aukeraketa egin be-harra ezarri zen.

Prozesu horretan honako hauek sartzen dira: aldez aurretiko inskripzioa, kulturari buruzko proba bat eta elkarrizketa pertsonala, enplegurako motibazioak ezagutzeko eta ikastaroen emaitzak hoberenak izan ahal daitezen.

Gogoeta egin beharreko beste puntu bat zera izan zen, ikastaroetako modulu desberdinak mugatzerakoan haiek egingo zituzten emakumezkoen erantzun eraginkor bat eman beharra zegoela. Laneratzearen ondorioz sortuko zitzaizkion gatazka pertsonala eta familiarrak ezin ziren alde batera utzi. Ikastaroetan, ikasle-taldea arrakastaz laneratu ahal izateko irakas-kuntzak eta baliabideez hornitzeko berariazko modulu bat sartu beharra zegoen.

Lehenengo fase hau burutu ondoren aurreratu zen ikastaro bakoitzaren berariazko edukinen ildotik, azkenean ikasle bakoitzak bere laneratzea lortzeko jarraitu beharreko ibilbideari bu-ruzko proiektu pertsonala eginez burutzen direnak. Jarraitu beharreko metodologia garatu eta planifikatzerakoan, funtsezkoa da une orotan gogoan izatea talde honek ezaugarri so-zio-psikologiko bereziak dauzkala enpleguari dagokionez.

Metodologiaren printzipio informatzaileak, berriz, taldekide guztien ezagupenak aprobe-txatuz partehartzeak eta ikaskuntzak taldekoak izan behar dutelako ustearen bidez eratzen dira. Metodologiak kreatiboa izan behar du une guztietan, sormena suspertuz eta norba-nakoa errespetatuz.

Gai desberdinak ulertzeko atal teorikoetan, berriz, edukinak ikasleen ezaguera-mailara ego-kitzeko ahaleginak egin dira, haren bizipen-ezaguera ulerpen metodo gisa erabiliz.

Ikastaroetan zehar, halaber, ikasleei lan merkatua eta enpresa-kultura ezagutarazteko bera-riazko materiala prestatu da.

---

Era berean, ikasleek zuzen zuzenean parte hartzen dute ikastaroen garapenean, helburu duten laneratze-bidean ematen dituzten urratsei buruzko oharrak idazteko egunkari pertsonalaren bitartez aldian-aldian bere ikaskuntza ebaluatuz.

Bai ikastaroaren edukinak eta bai haren metodologia aldian-aldian berrikusten dira, hala ikasleen aldetik, nola ikastaroa eman edo koordinatzeaz arduratzen direnen aldetik.

Ikastaroa beronen ardura duenak ematen du, tutorea deiturikoak alegia, beroni dagokio, proiektuaren teknikari laguntzaileekin batera, haren edukinen garapena. Tutore hau, bestalde, gainontzeko ikastaro bakoitzaren tutore desberdinek eta ikastaroen koordinatzaileak osaturiko enplegu-taldean dago. Koordinatzailea da ikastaroen jarraipen, gaikuspen eta garapenaren arduraduna eta, aldi berean, ikastaroon arduradun nagusiak diren zentroetako zuzendariekiko bitartekaria.

Hala ikastaroak garatzeko aukeratzen diren pertsonak, nola haietan diharduten teknikariak, emakumeen hezkuntzan eta irakaskuntzan aritutako pertsonak izaten dira.

Egun sei heziketa-ekintza garatzen ari gara, geriatría arloan, enpresa sortu ondoko enpresa-kudeaketa arloan, eraikuntza arloan eta enplegu bilaketaren arlo orokorrean.

---

**SATUR ABÓN PÉREZ**

**“Bagabiltza” Elkartearen  
Zentro Profesionalaren  
Zuzendaria.  
Bilbo**

*“Bagabiltza”*

*Elkarte*

*Soziokulturala*

Bagabiltza deritzon Elkarte, Eskola Graduatua erdietsi arte Emakumearen Promoziorako Zentroetan aritu ondoren, lanbide-mailako heziketari jarraitu eta gizarte-kultura arloan hobeto integratu nahi zuen emakume-talde baten ekimenari esker 1990ean sortu eta 1991ean legeztaturiko Elkarte Soziokultura da.

Hasiera batean, Elkarte sortu aurretik, eta inguruko emakumeen benetako beharrianak ezagutu eta zein lanbidetarako prestatu nahi zuten jakiteko, Txurdinagan eratua zen Gizarte Eskolak zuzendutako inkesta bat egin zen, sustatzaile-taldea osatzen zuten emakumeek horretan jardun zutela 1989ko urtarriletik ekainera bitartean.

Txurdinagako L.H.ko Institutuetako irakasleek eta eskola-kontseiluak Institutuetako batean emakumeek arratsalde aritzearen alde agertu eta Eusko Jaurlaritzaren oniritzia izan ondoren, aurreneko ikasturteari ekin zitzaion 1989-1990ean Administrazio eta Diseinu eta Moda adarrekin eta zenbait tailerrekin. Aurreneko ikasturte honetan 120 emakumek parte hartu zuten.

Bagabiltza Elkarte legeztatu bitartean, 1991ra arte alegia, Txurdinagako Auzo Elkartearen eskaintzar baliatu ginen Elkartearen legezkotasunaren ofiziala babetzeko eta diru laguntzak gestionatzeko.

1990etik 1993ra, ikastaroak gehituz joan ziren emakumezkoen eskaria gehitu ahala, hauen kopurua 300etik 600era pasa zirela, eta 1992-93 ikasturtean 800 emakume ziren. Hortaz, ikasturteak osatzen dituzten adar desberdinetan espezialitate berriak sartu ziren: Lanbide Heziketan (Laguntzaile titulu); Lanerako Lanbide Heziketan; Lanerako Tailerretan; eta Jar-duera Osagarrietan hain zuzen. Horrez gainera, emakumeak lan munduan sartzeko prestakuntzari, orientazioari eta jarraipenari ekin zitzaion.

1993-1994 ikasturtean, parte hartzen duten emakumeen kopurua 1.280raino iritsi da. Horrek, modulu berriak ez ezik, ikastokiak zabaltzea, irakasle-kopurua gehitzea eta antolaketak eta plangintza handiagoa ekarri ditu. Era berean, aurrerapenak eta egonkortasuna antzematen dira lan arloan sartzeko programazioan eta jarraipenean, enpresa eta kooperatibaren bat eratzea ere lortu dela.

Laneratzeko prestakuntza etapa programatuen bidez burutzen da, hots:

- a) Prestakuntza teoriko-profesionala, talde teknikoarekin elkarlanean ikasleei laneratzeko orientabideak eman, iritziak azaldu eta bide berriak zabaltzen ahalegintzen den tutorearen ardurapean.

- 
- b) Azken hiruhilabetekoan, lan arlo berezira mugaturiko lehen bilerak antolatzen dira enpresen sorkuntzari, antolaketari, desberdintasunei eta abarrei buruzko argitasunak ematen dituen aditu batekin. Era berean, emakumeei beren aukerak, trebetasunak, arriskurako gaitasuna eta enpresaren bat eratzeko emakumezko lagun egokiak ezagutzeko lagungarriak gertatzen diren dinamikak aplikatzen dira.
- c) Heziketako ikastaro berezia bukatu ondoren, beren enpresa antolatu nahi duten emakume-talde mugatu bakoitzarekiko lan prozesuari ekiten zaio. Merkatua aztertuko dute, beste esperientzia batzuk ere bai, eta, Bultz-Lan, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearekin eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzza Sailarekin lan egiten duen Aholku-etxearen argibideei jarraituz, beren enpresa proiektua prestatuko dute, behin-behinko legeztaletara iritsi arte.

Esperientzia honen lehendabiziko urte honetan hiru enpresa eratu dira eta beste hiru azterketa eta antolaketa-fasean daude.

Bagabiltza ez da ikastaro akademikoen antzeko zerbait emateko sortu, baizik eta, lanbide eta lanerako prestakuntza baten bitartez, autoestimazioa, jarduera osagarrietan parte hartzea, arriskuaren aurrean norberarengan konfidantza izatea, eta abarrak bultzatuz, emakumeak berriazko gaitasunaz jabe daitezen, bere kabuz baliaitzeko bai gizarte-mailan eta bai lanbidean.

2.

## *1994-1995 Ikasturterako proiektuak eta egungo egoera*

Apirilean argitaratu da behin-behineko egitaraua, 1994-1995 ikasturteari begira antolatua.

Egitarau hauetan teknologia berrietara zuzendutako lanbideak lantzen dira batez ere.

Lanerako Lanbide Heziketaren barruan, hurrengo modulu berriok emango dira:

- Enpresa Antolaketa eta Kudeaketa.
- Sistema Eragileak eta Mintzairak.
- Administrazioako Kudeaketa Informatizatua.
- Informatika Aplikazio Standarrak.
- Merkataritza-Kudeaketa eta Marketinga.
- Laneko Segurtasuna eta Higienea.
- Natura Zaintzea eta Ingurugiroa.
- Odontologia.
- Diseinu eta Programazioa.
- Instalazio Elektrikoa eta
- Enpresen Eraketa.

Lanbide Heziketan, Laguntzaile tituluari dagokionez, Botikako Laguntzailea deritzan ikastaroa sartu da.

Lanerako tailerretan, berriz, hurrengook sartu dira:

- Eskulangintzako ikastaroa.
- Osasunaren prebentzio eta zaintza.
- Interpretazio Artea.
- Musika.- Laxapena.
- Literaturgintza.
- Zeramika.

Ikastaro berezietan, Kultura Zabaltzeko ikastaro bat sartu da.- Frantsesezko talde bat eta Euskarazko beste bat.

Era berean, 1993-94 ikastaroan hasitako mailei jarraituz, Etengabeko Heziketako ikastaroa, non aurten Beiragintza-Kristalgintza, Elektronika eta abarretan prestatutako ikasleak sartuko diren.

Jarduera osagarriei dagokienez, mintegiak eta ikastarotxoak oraindik mugatu gabe daude, baina "Herrialdeak Ezagutuz" deritzon mintegia eta "Oinarrizko Sorospen"ei buruzko bat

---

baino gehiago emango dira. Gainerakoak, 1993-1994 ikasturtea amaitu bitarteko hilabeteetan izan daitezzen behar eta eskaeren arabera planifikatuko dira.

## **2.1**

## **PERSPEKTIBA BERRIAK**

1.000 emakume baino gehiago hartu behar dituzten ikastaroen eskakizunei aurre egiteko, Bilboko Udalak toki itxiak erabiltzeko baimena eman du azken urteetan. Txurdinagako Kultura Etxekoak egokitu dira Beiragintza-Kristalgintza, Elektronika-Elektrizitatea, Lorazaintza eta abarrak emateko.

Datorren urterako Urazurrutiako eskolako zenbait ikasgela ere erabili ahal izango dira alde horretako Emakumeei Lanbide Heziketa emateko. Gaur egun lanak egiten ari dira bertan, baina prest egongo dira Kooperatiba baten sorburu izango den jantzigintzako Jaskilan tailerrari ekiteko.

Txurdinagako Parkean bertan behera utzita dauden lokalak ere egokitzen ari dira gurasoak lanean edo ikasten ari diren bitartean ume eta gazteentzako aterpe izango den Ludoteka eratzeko, izan ere, seme-alabak uzteko halako tokirik ez dutelako, emakume askok ikasi edo lan egin ezinik egoten baitira. Ludoteka honetaz Bagabiltza arduratuko da. Era berean, Natura Zaintza eta Ingurugiroko tailerra, Lorazaintzakoa eta beste hainbat ere eratu nahi dira parkeko gainontzeko dependentzietan.

---

### 3.

## *Antolakuntza eta metodologia*

Bagabiltzaren antolakuntza zabala eta kolegiatua da. Bi lan-talde bereizten dira, bata bestearekin koordinatuak. Alde batetik, Elkartearen lan-talde koordinatzaile iraunkorra, 20 emakumek gutxi gora behera osatua, non jarduera guztiak planifikatu eta antolatzen diren. Lan-talde hau osatzen duten emakumeak, Elkarteko Zuzendaritzakoak izanik ere, ez dihardute zeregin horretan baina jarraian adierazten diren gaietan aritzen dira, hots: Diruzaintza; Informazio eta Prentsa; Kultur ibilaldiak; Ikastaro, hitzaldi eta mintegiak; Bidaia luzeak; Teknika taldearekiko koordinazioa; ikastaro guztien Ordezkarien bilera zuzendu hilean behin, etab.

Bestetik, talde tekniko-profesionala dago, 25 irakasle eta monitoren osatua, proiektuen bertuteta eta aurkezpenaz, pedagogiaz, metodologiaz, jarraipenaz eta ikastaro eta tailer desberdinen ebaluazioaz arduratzen da. Bilera orokorra hilean behi egiten bada ere, departamentu bakoitza behar duen guztietan biltzen da. Talde honen lana funtsezkoa da denon jardun egokirako, lanbide heziketaren eguneratze eta dinamizazio etengabea dihardutea.

Antolatu diren hartueman eta bileren bitartez, metodologia bizi eta parte hartzekoa erabiltzen da, aurrera egiteko programazio eta ebaluazio kritikorako lagungarria.

Ikastaroak aurretiaz programatzen dira, hilabete batzuk lehenago, hainbat irizpideren arabera, hots, ikastaroan zehar (ordezkarien bileretan, hala irakasleen artean edo talde iraunkorrean, etab.) informatzen duten ikasle edo emakumeen beharrian eta nahiak, nola Lan Sailak, INEMek, Enpresek, etab., emakumearen laneratzeari begira azaldutako ekinbideak kontutan harturik. Aukeraketa hau apiriletik ekainera bitartean egiten den aurrematrikulazioan mugatzen da.

---

4.

## *Erakundeen laguntzak eta finantzaketa-iturriak*

Emakumearen Lanbide Heziketarako zentroa eratzeko asmoa sortu zenean, 1989an, Bilbo-ko Udalaren laguntza izan zen, gogo onez onartu baitzuen proiektua. Laguntza horrekin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak laga zituen Txurdinagako L.H.ko ikasgelez baliatuz, eta ikasleek ordaindutako ordainsari txiki batekin, urtebete geroago Bagabiltza bihurtuko zenari ekin zitzaion. Emakunderen laguntza ere hasiera-hasieratik izan genuen.

Dirulaguntzak, aitzitik, oso motzak ziren eta oinarrizko beharrak, irakasleen ordainketa adibidez, betetzera ere ez ziren iristen. Emakumeek ordaintzen duten kuota gehitu, 1992an Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzza Sailarekin zenbait ikastaro diruz laguntzeko Hitzarmena sinatu eta Udalak lokalak laga ondoren, emakumeentzako lanbide eta lanerako heziketaren nolabiteko egonkortasuna erdietsi da.

Finantzaketaren alderik garrantzitsuena Bagabiltzatik dator, 1200 ikasle-elkartekideri eta lan kreatiboari eta ekinari esker. Beronek baitakartza erakunde ezberdinen aldetiko konpromezuak.

---

MAHAINGURUA

*H.H. Iren*

*eragina lanbide-  
-orientazioan*

---

**MARISA TROYANO ESPINO**

**Donostiako INEMeko  
Informazio eta Lanbide-  
-Orientazioaren Arloko  
arduraduna**

*Emakumea eta  
lan merkatua  
Gipuzkoan*

Azken urteotan egoera zertxobait aldatuz doala badirudi ere, emakumeak gure lan merkatuan jasaten duen diskriminazioa begi bistakoa da, enpleguratzeko eragozpenak areagotu egiten duen errealitate latza alegia.

Ondoren, Gipuzkoako lan merkatuari eta emakumeak arlo horretan jasan beharreko egoerari buruzko datu adierazgarri batzuk azalduko ditut.

Duela hamarkada bat baino lehenagotik, emakumezkoen biztanleria aktiboa etengabe gehitzen ari da, hau da, gero eta gehiago dira lan merkatuara jotzen duten emakumezkoak, bai lan batera heltzen direnak eta bai lanik gabe izanik haren bila dabiltzanak. Baina, gehitze hau nabarmena den arren, lan merkatuan dauden gizonzkoen egoera eta emakumezkoena oso ezberdinak dira.

Izan ere, Euskadiko Estatistika Erakundearen arabera, 1993ko bigarren hiruhilabetekoan (L.N.E. delakoaren definizioaren arabera), emakumezkoen jarduera-tasa %35,9koa zen, gizonzkoena, aldiz, %66,5koa. Hau da, lan egiteko lege-adineko 100 gizonzkoetarik 66 lanean edo lanaren bila ari diren bitartean, 100 emakumeetarik 36 baino ez direla egoera horretantxe. Datu hauek kontutan izanik, 1990az geroztik bi sexuen jarduera-tasak behera egin duela esan behar da, eta beherakada hori nabarmenagoa izan dela gizonzkoen kasuan, 3,5 puntutakoa, emakumezkoena baino, 1,1ekoa.

Eustaten arabera eta L.N.E.aren sailkapenari jarraituz, halaber, 1993ko bigarren hiruhilabeteko biztanleria landuna honela banaturik zegoen: 100 biztanle landunetatik 66 gizonzkoak dira eta 34 emakumezkoak. 1990eko bigarren hiruhilabeteko banaketan, berriz, 67 gizonzko eta 33 emakumezko ziren.

Lan egiten duten lau emakumetarik hiruk zerbitzuen sektorean dihardute (%80k, gizonzkoen kasuan %42k). Eta gehienak etxeko ohizko rolei jarraitzen dieten lanetan, hau da: administrazio lanetan, irakaskuntzan, garbiketean, gaixoen zaintzan, edertasunari dagozkion lanetan, jendearekiko harremanetan, ostalaritzan eta jantzigintzan.

Enplegurako Nazio Erakundearen datuei jarraituz, bere bulegoetan izan den enplegu-eskariari buruzko datuak eta eginiko kontratazioari buruzkoak aztertuko ditugu.

URTEA	GIZONEZKOAK		EMAKUMEZKOAK	
	LANGABETUEN %	ABENDUAN KONTRAT. %	LANG. %	ABENDUAN KONTRAT. %
1990	39	60	61	40
1993	47	58	53	42

Hasteko, lehenago ere esan dugun bezala, lan merkatuan sartzera emakumezkoarekiko diskriminazioa nolabait gutxitzen ari dela nabari dezakegu, hala erakusten dute behin behin erregistraturiko langabeziaren zifrek eta kontratazioenak. Baina, hau horrela izanik ere, datu hauek interpretatzean emakumezkoen jarduera tasa gizonezkoena baino askoz ere txikiagoa (portzentaiazko 30 puntutan) dela kontutan hartu behar dugu. Ikus ditzagun emakumezkoaren portzentaiak eskari handiena duten lanbideetan.

<b>LANBIDEAK</b>	<b>LANBIDEKO ESKARIAN EMAKUMEARI DAGOKION %</b>	<b>GUZTIZKO ESKARIAREKIKO %</b>
Peoiak	36,0	20,9
Administ. enplegatua	76,4	10,6
Dendaria	90,6	7,4
Etxe garbitzaileak	97,1	6,3
Zerbitzaria	54,7	3,3
Administrazioko teknikari espezialista	82,1	3,1
Industri ingeniari teknikoa	6,1	2,7
Otseina	97,0	2,3
Sukaldaria	72,2	2,0
Klinikako laguntzailea	94,7	1,7
Ileapaindegiko langilea	96,8	1,6
Elektrikaria	1,7	1,6
Motoredun ibilgailuaren gidaria	2,5	1,4
Makineria mekanikaria/muntatzailea	1,1	1,4
Makina-erreminta eragilea	1,4	1,4
O.H.O.ko irakaslea	81,6	1,2

Hezkuntzaren eta ingurune soziokulturalaren eragina erabakiorra da. Etxetik kanpoko lanari ekitea erabakitzen duen emakumezkoak familiaren baitan betetzen dituen rolen jarraipenari dagozkion lanbideetara jotzen du: administrazioa, garbiketa, gaixoen zaintza, irakasuntza, jendearekiko harremanak, ostalaritza, edertasuna.

Eta parametro hauexek berragertzen dira eginiko kontratatzeetan ere. 1993an zehar gehien kontratatu ziren lanbideei dagokienez, emakumezkoaren kontratazio-portzentaiak hauek dira:

<b>LANBIDEA</b>	<b>EMAKUMEZKOARI DAGOKION %</b>	<b>GUZTIZKO KONTRATAZIOAREKIKO %</b>
Peoiak	16,5	18,8
Administ. enplegatua	75,2	7,8
Etxe garbitzaileak	89,6	6,9
Dendaria	73,4	5,9
Igeltseroa	1,9	5,9
Zerbitzaria	54,7	4,6
Klinikako laguntzailea	88,1	3,0
Enkofratzailea	0,5	2,6
O.H.O.ko irakaslea	75,6	2,3
Motoredun ibilgailuaren gidaria	1,7	2,2
Sukaldaria	64,7	2,1
O.L.T.	88,1	2,1
Otseina	89,0	2,0
Zaindariak	11,9	1,9
Erdi-mailako irakask. irakaslea	64,3	1,7
Mekanikaria/muntatzailea	1,1	1,6
Elektrikaria	1,7	1,3

Beste alde batetik, ekonomi jardueren sektoretako kontratazioak aztertuz gero, hurrengo datuok ageri zaizkigu:

<b>EKONOMI JARDUERAK</b>	<b>EMAKUMEZKOARI DAGOKION %</b>	<b>GUZTIZKO KONTRATAZIOAREKIKO %</b>
Eraikuntza	3,1	15,7
Txikizkako salerosketa	62,3	10,9
Herri Administrazioa	49,0	8,4
Enpresentzako zerbitzuak	54,5	6,7
Osasuna	81,6	6,6
Hezkuntza	72,1	5,7
Metalezko ekoizkinan fabrik.	12,9	5,1
Jatetxeak eta kafetegiak	54,6	4,6

%1etik gorako kontratazioa izan deneko jarduera-sektoreei bagagozkio, haietako %16,2 industria sektoreko ekonomi jardueri dagozkiela ikus dezakegu, beste %15,7 bat eraikuntza sektorekoei eta %60,4 zerbitzuen sektoreko jardueri. Eta zerbitzuen sektorean kontutan hartutako 14 jardueretako 9tan, emakumezkoaren kontratazioak gainditu egin du erregistraturiko langabezian duen partaidetzaren (%53) arabera legokiokeen portzentaia.

Azkenik, gogoeta egiteko zenbait datu dakartzagu:

- 1993an zehar eginiko egun-zatizko kontratuen %70,8 emakumezkoei egin zitzaizkien.
- Enplegu eskatzaileei dagokienez, langabezian bi urte baino gehiago eman dutenen artean, 3tik 2 emakumezkoak dira.
- Aurreneko enpleguaren eskatzaileetarik %61 emakumezkoak dira.

---

Gipuzkoako lan merkatua dela-eta aurkeztu diren datu adierazgarri hauek ikusirik, eta, lehen ere aipatu dugun bezala, emakumezkoa enpleguratzearan nabari den diskriminazioa zertxobait arindu dela dirudien arren, bi sexuen artean lan zatiketa nabarmena dagoela ikusten da. Enplegu bat lortu nahi duen emakumeak hiru maila gainditu behar ditu, hots:

1. Emakume gehienek ohizko roletan dira, hots, etxeko lanetan eta seme-alabak zainduz. 16 urtetik gorako 100 emakumeetarik 16 baino ez dira biztanle aktiboen artean, gizonezkoen portzentaia, aitzitik %66koa da.
2. Aktibo izate hori, maiz, lanik gabe izateari lotuta dago, gizonezkoen aldean portzentaia bikoiztu egiten dela: 100 emakume aktiboetatik 35 langabeak dira, gizonezkoen kasuan 100etik 18.
3. Emakumeak azkenean lanposturen bat erdiesten duenean, gehienetan familiar betetako rolen jarraipen hutsa diren lanbideetan izaten da, zuzendaritzatik eta erantzunkizun handiko postuetatik urrun.

Emakumea lan merkatuan sartzeko eragozpenak aipatzerakoan, lan errealitatea gogoratzeari zaigu, gehiegizko lan eskaintza ezin irentsi dezakeen produkzio sistemaren arazoak alegia. Baina, horrez gainera, kutsu soziokulturaleko hainbat faktoreen eragina ere jasan behar izaten du emakumeak, emakumeak gizona baino beherago jartzen duten faktoreen eragina hain zuzen.

Izan ere, bere sexua dela-eta, emakumezkoak oztopo gehiago aurkitzen ditu enpleguratzearakoan:

- etxetik kanpoko lanari ematen dion balorea;
- norberarenganako eta norberaren gaitasunekiko balorazioa;
- gizonezkoak duen adineko enpleguratzeko baliakortasuna izatea eragozten dion ohizko famili egitura;
- goia jo duten, bazterturik dauden edo atzera egin duten lanbideetara jotzea enplegu edota prestakuntza bila;
- enplegatzaile askoren pentsamoldea.

Emakumezkoaren laneratzea sexu arrazoiengatik berezikeriarik gabe gertatuko bada, beharrezkoa da aldaketa garrantzitsuak izatea lau mailatan batipat: emakumezkoaren beraren pentsamoldean, ohizko famili egituran, hezkuntza sistematan eta enplegatzaile askoren jarraian.

- Emakumezkoaren beraren pentsamoldean. Izan ere, emakumezko askok beren pentsamoldea nahitaez aldatu behar dute enpleguratzearan gizonezkoekiko berdintasuna lortu

---

nahi badute. Emakumeak etxetik kanpoko lana birbaloratu egin behar du eta norberarenganako eta norberaren gaitasunekiko irudi hobea izan.

Egungo lan merkatuan, enplegu bat aurkitzeko ahalbideak faktore pertsonal eta profesionalak (adina, sexua, heziketa, lan esperientzia...) baldintzapeturik dago, baina, aldi berean, zenbait faktore psikosozialetan ere bai (heine handi batean pertsonaren inguruko errealitate soziokulturalak mugatzen dituenak).

Pertsonen laneragarritasunean eragina duten bi faktore soziokultural "enpleguaren zentralitatea" eta autobalorazio pertsonal eta profesionala dira. Eta horrela, lana gehien balioztatzen dutenek, hots, enplegu batez harremanak izatea, norbait zarela sentitzea, ekonomi askatasuna edukitzea, lanbide-mailan errealizatzea... errazagoa dela uste dutenek, diru-sarreraren iturri hutsa dela uste dutenek baino aukera gehiago izaten dute enplegu aurkitzeko. Era berean, norberarenganako balorazio positiboa dutenek, pertsona nahiz profesional gisa (konstantzia, esfortzua, ekimena, erabakitasuna, lanbide kualitateak), halakorik ez dutenek baino errazago aurkitzen dute lana. Eta egiazta daitekeena da emakumezkoek, beren heziera eta ingurune soziokulturalagatik, gizonetzako baino laneragaitzagoak direla, bi faktore psikosozial hauengatik batez ere.

- Ohizko famili egitura. Egitura honek zuzen-zuzenean baldintzatzen du emakumezkoen lanposturen bat lortzerakoan; haibat eragozpen eta muga ezartzen dizkio eta, horrenbestez, gizonetzako baino oztopo gehiago izan ohi ditu laneratzekoan. Enplegurako baliakortasuna funtsezko faktore psikosoziala da pertsona baten laneragarritasun-maila mugatzerakoan. Ordutegiei, ekonomi eskakizunei, arduen bereganaketari eta abarrei dagokienez, lanpostu batera heltzeko baliakortasun handiagoa dutenek mugaturik daudenek baino errazago aurkitu dute lana. Gauzak honela, emakumea, ohizko famili egitura dela medio, oso mugaturik dago eta egoera horrek erabat baldintzatzen du bere lanerako baliakortasuna.
- Hezkuntz sisteman. Orientabide egokia eman behar zaio bere arloan, emakumezkoari lan merkatuak eskatzen dituen ezagupenei eta lanbideei buruzko informazio argia eta zehatza eskainiz eta ikasketak hautatzerakoan sexu-arrazoiengatik aukeraketa baldintzatzen duten estereotipoak ezabatuz. Lanean hasi aurretiko ekintza hauek funtsezkoak dira, etorkizunerako prestatzen baitute emakumezkoa. Bestela, kasu askotan, gehiegizko eskaintza duten, bazterturik dauden edo atzera egin duten lanpostuetara jo beharko dute (familiar betetako roleri loturiko lanetan jarraitzeaz gainera), jarduten hasi aurretik halako

---

birmoldaketa bat beharko dutela eta produkzio sistemara nekez egokitu ahalko den heziketan emandako denbora eta ahaleginak hutsalak gertatuko direla.

- Enplegatzaile askoren jarreraren. Emakumezkoak lanpostu batean ongi aritzeko gaitasuna gutxietsi egiten da sarritan, eta gizonezkoak frogatu behar ez duena frogatu beharra izaten du. Horrez gainera, emakumea, oro har, lanerako, heziketarako, bere promoziorako, erantzunkizun handiagoak hartzeko, hau da, lanbide-mailan aurrera egiteko joera eskasagoa duelako aurritzia oso zabaldua dago. Puntu honetan, sindikatuen jarreraren garrantzia aipatu behar da, emakumearenganako bereizkeria negoziazio kolektiboan kontutan hartu beharra dagoela.

Beste alde batetik, Herri Erakundeen eginkizuna aipatu behar da. Izan ere, Herri Erakundeek, Konstituzioak agindurik, aintzindari izan behar dute legerian aitortutako lan merkatuko bereizkeriarik eza lortuko bada beharrezkoa den transformazio kulturalaren bidean. Eta gainera, emakumearen laneratzea bultzatu behar dute, zenbaitetan diskriminazio positiboaren alde jokatzuz, lan merkatuko desorekak zuzendu eta enpleguratzeko aukera-berdintasuna ekar dezakeen diskriminazio positiboaren alde hain zuzen.

Eta funtsezkoa da Herri Erakundeetatik erraztasunak ematea emakumezkoak lan merkatuari buruzko informazio egokia eskuratzeko modua izan dezan, zeren informazio hori edukita interpretatzen jakitea laneratu ahal izateko faktore psikozosial oso garrantzitsua baita.

Eta sexua kontutan hartu gabe, laneratzeari dagokionez, enplegu, orientabide profesional eta heziketa arloetako erantzunkizunak dituzten erakundeek aintzakotzat hartu behar dute etorkizunerako funtzesko ikaskuntza bat "ikasten ikastea"rena dela, lanpostuen edukinak eta lanpostuak berak ere gero eta azkarrago aldatzen baitira.

Horixe da gaur egungo lan merkatuaren ezaugarrietako bat, hots, lanpostu desberdinetan egokiro aritzeko eskatzen diren ezagupen eta trebetasunen aldaketa iraunkor eta azkarra. Zentzu bionetan, zenbait azterlanetan adierazitakoaren arabera, 2000. urterako gaur eguneko bost lanpostuetako lau desagertuak edo aldatuak izango dira eta aldi berean beste berri batzuk agertuz joango dira.

Hortaz, oinarrizko heziketa batetik abiatuta, trebakuntza balioaniztuna eta etengabeko trebakuntzarako gertu izatea beharrezkoak direla kontutan izan behar da. Izan ere, pertsona balioaniztunak eta euren ezagupenak etengabe eguneratzeko prest daudenak behar baitira, produkzio sistemaren aldaketetara moldatzeko gai direnak.

---

Beste alde batetik, laneratze-ibilbideak diseinatzerakoan ere kontutan hartu behar da egungo lan merkatuko erabiltzen diren hautabideak, pertsonal eta profesional mailakoak ez ezik, psikosozial mailakoak ere badirela.

Horrela bada, eskatzen diren lanbide-profil berriez mintzatzerakoan hurrengook hartu beharko dira kontutan:

- Aldagai pertsonalak eta profesionalak:
  - sexua;
  - adina;
  - ezagupenak;
  - esperientziak;
  - trebetasunak eta jarrerak.
- Aldagai psikosozialak:
  - enpleguaren zentralitatea;
  - langabeziaren azalpena;
  - autobalorazio pertsonala eta profesionala;
  - enplegua bilatzeko abileziak;
  - enplegurako baliagarritasuna.
- Transformazioetara egokitzeko gaitasuna:
  - ekimena;
  - balioaniztuna;
  - malgutasuna.

---

**JOSE M.º ALONSO ALONSO DE  
LINAJE**

**Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,  
Unibertsitate eta Ikerkuntza  
Saileko Curriculum-  
-Garapenerako Erakundeko  
H.H.I.ren koordinatzailea.  
Bilbo.**

*H.H.I.ren*

*eginkizuna*

*emakumezkoen*

*lanbide-*

*-orientazioan*

## *Orientabidea eta tutoretza hezkuntz sistemaren erreformarako agiri ofizialetan*

Hezkuntz Sistemaren Erreformatarako agiri ofizialetan bereziki nabarmentzen ari den alderdietako bat orientabidea eta tutoretza da, bere alde guztiei dagokienez:

- ikasketa eta lanbide-orientazioa;
- tutore-lana;
- jardun psikopedagogioa.

Kontzeptuen arloan, berriz, funtsezko urratsa eman da orientabidea eta tutoretza curriculumaren zatitzat jo direnetik, beti ere, curriculuma hezkuntz eskaintza osoa dela aintzat harturik, irakaskuntzaren eta pertsona guztien heltzearen alderdi guztietara zuzendua eta, horrenbestez, irakasle-funtzioaren osagarria eta ikastetxearen jardunean erabat sartua.

Printzipio hau eta beronen ustezko ezarketa direla medio, bereziki azpimarratu nahi da tutore eta orientatzaile-lana ez dela curriculumetik kanpo dagoen alderdi bat, berorretan erabat sartua baizik.

Orientabidea irakasle lanetik aparteko zerbait balitz bezala hartzeko joeradun eskola-tradizioarekin hautsi nahi da, hots, ikastetxeko klaustroan erabat sarturik ez zeuden adituek batez ere bete beharrekoa zela uste zutenekin.

Administrazio neurriak hartzen ari dira orientabide eta tutoretzari dagokion eredu berriari buruz:

- Orientabide eta laguntza plana.

## 2.

# *Orientabidea eta laguntza helduen hezkuntza iraunkorrean*

### 2.1

#### ETAPAREN EZAUGARRIAK

Hezkuntz Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legeak aldatu egin du Helduen Hezkuntza. Hezkuntz prozesuei era eta abiapuntu ezberdinetatik ekin, egungo planteamenduak aztertu eta irtenbide berriak bilatzeko aukera ematen du, pertsona helduek inola ere eskuratzerik izan ez edo behar bezala eskuratu ez edo behar moduan frogatzerik izan ez dituzten gaitasunak garatu ahal ditzaten.

Hortaz, helduentzako ikastetxeen eraginkortasuna, eta berorien existentzia eta iraupena ere, hezkuntz sistemaren barruko beste edozein kasutan baino nabarmenago dago bertaratzen diren edo bertara daitezkeen pertsonen eskari ezberdin eta zabala asetzeko gai izatearen menpe.

Horrela bada, eskari-aniztasuna kontutan hartu beharra dago, eta haiei aurre egin behar zaiela aldi berean erabiliz, batetik, araupeturiko eskaintza (diseinuaren menpekoo), hau da, oinarrizko alfabetatzetik –Lehen Zikloa– Derrigorrezko Bigarrena –Bigarren eta Hirugarren Zikloa– Bigarren mailako Hezkuntzako Graduatuaren titulu berriaz burutu arte, eta bestetik, araupetu gabeko eskaintza, hots, erakundeen araupeturiko hezkuntzan ez sartutako heziketa-instantziez baliatzen den neurrian, orientabideei jarraitzen diena baina diseinuaren menpe ez dagoena.

Helduentzako oinarrizko hezkuntzaren eskaintza, beraz, Helduen Hezkuntzako Ikastetxeek aintzat hartu beharreko eskari-multzoari eman beharreko erantzuna dela ulertu behar da, hots hurrengooi eman beharreko erantzun egokia:

- Hezkuntz esperientzia ezberdinen bitartez, beren ezagupenak eta kultura, beren harreman pertsonalak eta oreka afektiboa hobetu besterik nahi ez duten pertsonen.
- Beren astialdia, hein batean bederen, kultur ondasunez eta ekintzez gozatuz eman nahi dutenei.
- Azterketa libre edo oposizioen bat gainditzeko asmoz, beren ezagupenak areagotu nahi dituztenei.

- Lanbide-gaitasunen bat eskuratu edo hobetu nahi dituztenei.
- Derrigorrezko Bigarren Irakaskuntzako Graduatu titulua lortzeko ikasketak egin nahi dituztenei.

## 2.2

### HELDUEN HEZKUNTZ IRAUNKORREKO ORIENTABIDEAREN EZAUGARRIAK

Orientabidea, Irakaskuntzari datxekionetik, subjektuaren nortasuna garatu eta aldatzen lagutzeko prozesu bat da. Horrela bada, etapa honetako Orientabidea, beste etapa batzuetakoan antzerako ezaugarriak izanik ere, ñabardura ezberdinak ditu, zeren ikasleen motibazio eta interesak pertsona nagusienak dira eta ez dute “helduak izatera” heltzeko fase hori bete beharrik.

Hezkuntz Orientabidea eraginkorra izango bada, kontu handiz planifikatu beharra dago, zer lortu nahi den eta horretarako erabiliko diren neurriak zehatz-mehatz ezarriz.

Hori dela eta, Helduen Ikastetxe bateko Orientabide eta Laguntza Planaren jarraibide nagusiak mugatzerakoan, bertako ikasleen ezaugarri bereziak eta haiek diharduteneko tesuinguru soziokulturala kontutan hartu beharko dira.

Plan honi, alabaina, ez zaio hezitzaile bakoitzaren eginkizun partikular eta banakoa balitz bezala ekin behar, berorretan irakasle-taldeak, Orientabide Sailak, ikastetxe bakoitzeko eskola-komunitateak eta delako Plana doakien ikasleek ere parte hartu behar baitute.

Plan orientatzaile honetan ziklo guztiak eta berauetako maila guztiak sartu behar dira, hurrengo ezaugarriok aipa daitezkeela:

- Orientabidea iraunkorra da eta ikasle bakoitzari hasieratik eta ikastetxean dagoen bitartean eskaini beharrekoa.
- Eginkizun konpartitua denez gero, hezkuntz arloan diharduten erakunde guztiei dagokie eta, beraz, irakasle-taldearen plangintzan sartuta egongo da, tutoreak koordinatua eta Ikastetxeko Orientabide eta Laguntza Sailak lagundua izango dela.
- Pertsona nagusi bakoitzaren ezaugarri bereziak, pertsonalak nahiz profesionalak, aintzakotzat hartzen ditu.
- Norberaren orientabideari jarraitzeko gaitasuna ematen die norbanakoei.

---

H.H.I.ko Ikastetxeetako Orientabidea bultzatu eta koordinatzeko, beharrezkoa da Orientabide eta Laguntza Sail bana izatea Barrutiko Ikastetxe bakoitzean, berorren koordinatzailea orientatzailea izanik, eraginkorra izan dadin, hezkuntz arlo, ziklo/maila ezberdinetako tutoreek osatua izango dela.

## **PROZESU IRAUNKORREKO EKINTZAK**

- H.H.I. IKASTETXEAN sartzean.
- CURRICULUMaren egokitzapenean.
- HEZIKETA-IBILBIDEEN definizioan.
- IKASKETA ETA LANBIDE-orientazioan.
- EBALUAZIO prozesuetan.
- ORIENTABIDE-KONTSEILUAN.

### **ORIENTATZEA**

Bizitzarako gizabidea erakustea da.

Beste aukerabide batzuei buruzko aholkuak ematea.

Erabakiak hartzeko gaitasunean heztea.

Norberaren ikaskuntzarako gaitzea.

---

**LOURDES UNZUE BARBIER**  
Errenteriako H.H.I.ko  
irakaslea

*H.H. Iren*

*eginkizuna*

*lanbide-*

*-orientazioan*

*H.H. Iko*

*ikastetxe baten*

*ikuspegitik.*

*(Errenteria)*

# 1.

## *Ikastetxearen aurkezpena*

### 1.1

#### **EZAUGARRIAK:**

#### **ZENBAT URTE DARAMATZAN JARDUNEAN, IRAKASLE-KP., IKASLE-KP., BEREZITASUNAK**

Errenteriako H.H.I.ko Ikastexea zortzi urte darama eskolak ematen Beraun auzoan. Zortzi urte hauetan, Errenterian ez ezik, Oiartzun, Lezo, Pasaia, Irun eta Donostian, besteak beste, izan dute haren lanaren berri.

Duela sei urte H.H.I.ko Ikastetxea sortu zenez gero, plantilako zenbait langileren egonkortasuna ahalbidetu da, lanean diharduten bederatzietatik seirena hain zuzen.

Egonkortasun hori, berriz, mesedegarria suertatu da ikastetxearen definizio, iraupen eta funtzionamendurako.

Ikastetxe honen berariazko ezaugarriak ere aipa daitezke, hots:

- Graduatu maila, baliogabeturiko titulutzat ez baina benetako heldutasunaren adierazgarri den titulutzat jotzea, heziketa eta lan irtenbideetara heldu ahal izateko egokitzea alegia.
- Abiapuntu honen ondorioz, ikasleak bi edo urte gutxienez ematen ditu ikastetxean.
- Curriculumean arlo osagarriak sartu dira, hala nola, Informatika, Mekanografia, Plastika-Tailerrak, Ikastaro Bereziak.
- "Linea lasai" en garapena Alfabetatze eta Ziurtagiri mailetan. Errenteriako Ikastetxean ikasle guztietatik %40 ari dira berorietan. Hasierako talde hauen osaketa etengabe aldatzen ari da. Lehen Extremaduratik, Galiziatik eta Andaluziatik batez ere etorritako 55-75 urteko emakumezkoa zen ikasle-mota arrunta, orain, berriz, etnia desberdinetako biztanleak dira: ijitoak, argeliarrak, caboverdearrak, ertamerikarrak... eta gazteagoak. Hori dela eta, irakurridazteko prozesu mekanikoa ez da hizkuntza menperatzeko prozesua eta kultura bakoitzaren ezagutza bezain zaila.
- Eskola Graduata burutu ondoren jarraipenik ez zutenentzako irtenbide puntuala.

## 2.

# *H.H. Iko ikastetxe ikasle eta laguntzaileen Elkartea*

### 2.1

#### **ELKARTEAREN SORRERA ETA FUNTZIONAMENDUA**

Asmoa ikastetxean figura partehartzaileak, eurekin elkarlanean arituko zirenak alegia, eratzeko interesa zuten irakasle-talde batengandik sortu zen orain sei urte gutxi gora behera. Prozesuan zenbait fase bereiz daitezke:

- 1987-88. Estatutuen Formulazioa. Asmoa eratuz joan nahi zuten klaseetako ordezkari-kin ikasle-talde bat egin zen. Kultura Sailaren eredu standarrarekin batera, hainbat estatutu-eredu aztertu eta erkatu ziren eta helburuak eta Elkartekide izateko modua mugatu. Funtsean 3. zikloko ikasleek parte hartu zuten. Hauek ikastetxetik joan zirenean halako hutsune bat utzi zuten proiektuaren jarraipenari zegokionez.
- 1988-89. Informatzeko Batzar Orokorra eta kuoten kobrantza. Ez zen jarduerarik izan. Ez zegoen Elkartearen aintzindari lana betetzeko talderik. Zuzendaritzarekiko errezeluak sortzen dira eta partehartze aktiborik ez egotera Elkartearen etorkizuna ere kolokan jartzten da.
- 1989-90. Hezkuntza Ordezkaritzari aurreneko dirulaguntzak eskatzen zaizkio, Ikasle eta Gurasoen Elkarteentzako laguntzen deialdiari jarraituz. Ikasle helduen figura agertzen ez delako, Pedagogi Berrikuntzako Buruarengana jo zen hura aitortu zedin.
- 1991-92. Graduatu mailako talde bat sortzen da, emakumezkoena, oso bateratua eta autonomoa, heziketari aurrerantzean ere eutsi nahi diona. Elkartera biltzen dira berriro, erakunde ezberdinen aurrean beren egoerari (emakume langabetuak dira batzuk lan esperientziadunak eta beste batzuk esperientziarik gabekoak), zor zaion hezkuntz-lan mailako irtenbide duin bat erreibindikatzeko tresna eraginkorra izan daitekeelakoan. Irakasleen laguntzaz ezarri zituzten ekintza eta emaitzak hauek dira:

---

## 2.2

### **ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK ETA EMAITZAK**

#### 2.2.1

#### **UDALA: KULTURA, HEZKUNTZA ETA GIZARTE ONGIZATE SAILA**

H.H.I.ko Zentroak Udalaren laguntza morala izan du jarduten hasi zenetik; hala eta guztiz ere, ekonomi gastua behar zuten jarduera osagarri guztiekin oso zuhur jokatu du. Nolanahi ere, Adierazpen Plastikoko Tailerrak egiten lagundu du.

Gizarte Ongizate Sailari L.H. 1eko Probetarako ikastaroen eraketarako Proiektua aurkezte-ari esker lortu zen 200.000 pta.ko dirulaguntza 92-93 ikasturterako. Hori, berez, ikasle hauen ekintzarekiko aitortpena izan zen, eta ikasleok, horrenbestez, ikastaroan parte har- tzeaz gainera, haren kudeatzaile sentitu ziren.

#### 2.2.2

#### **INEM: H.H.I.KO IKASTETXEA IKASTETXE LAGUNTZAILE (ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA EMATEN DUENA) BIHURTZEKO GESTIOAK**

Eskola-Graduatua lortu ondoren, ikasle askok ez zuten INEMek antolaturiko ikastaroak egi- terik lan esperientzia ez izateagatik eta, beste alde batetik, bertaratu eta haiek egiteko asti- rik ez izateagatik. Emakumezko hauentzako ikastaro bereziak, diruz lagundutakoak, mese- degarriak suerta zitezkeen HHIko Ikastetxea INEMaren Ikastetxe Laguntzaile bihurtuz gero. Asmo hau institutuaren beraren irizpideen arabera bideratu zen zerbitzu-enpresa baten so- rrerarantz: Etxez etxeko Laguntza.

Prozesu burokratikoa 91eko udan bete zen, baina baldintza bat gaindiezina gertatu zen, hau da, HHIko lokalen egokitzapenak ez zuen aitortpen teknikoa erdietsi eta, beraz, ahalbi- de hori baztertu egin behar izan zen.

### 2.2.3

### DIPUTAZIOA

Elkarteak, kultur erakundea zelako, heziketa-ekintzak burutzeko laguntza bereziak izan litezkeela uste zuen. Baina, elkarteak federala izan ezik, ez du halako laguntzarik jasotzeko biderik.

Dena den, Diputazioko ikastaro-antolatzaileak sentsibilizatzea lortu zen, emakume-talde hau, oinarrizko heziketa zuena eta lan munduan birziklatzeko gertu zegoena, kontutan har zezaten. Ikastaro hauetara heltzeko egiten diren ondorengo aukeraketetan aintzakotzat hartu ziren HHIko ikastetxeetatik igorritako eskaerak.

### 2.2.4

### L.H. ETA II.EE.KO IKASTEXEAK

Graduatu-ondoko lehen ikasturtea (1. mailako L.H.rako prestakuntza) egin ondoren, jarraipena kolokan zegoen berriro. Horrez gainera, gero eta gehiago ziren 1. L.H.ko kualifikazioa edo, baliokidea izan arren, aitortu gabeko aurre-prestakuntza izanik, 2. L.H.ri ekin nahi ziotela eta HHIko ikastetxera jotzen zutenak.

Bazirudien berehala sortuko zela eskualdean helduentzako 2. L.H.ko bide berezia, batez ere L.O.G.S.E. ezarri eta helduentzako E.S.O. delakoa mugatu bitartean.

Gauzak honela, irakasle-talde batek, Ikasle-Elkartearen ordezkarietan, eskualdeko L.H.ko ikastetxeekin, Errenteriako Zamalbide eta Irungo Playaundi eta Bidasoa deiturikoekin hain zuzen, koordinatzen jo zuten.

Lehen harremanak oso positiboak suertatu zirenez gero, ikastetxe hauetan eman ohi ziren "gaueko" eskolak berreskuratu edo, horretarako nahikoa ikasle balego, eta delegazioak beharrezko plantila gehinkuntzaz laguntzekotan, haientzako linea berezi bat sortzeko aukera izango zela zirudien. Azken baldintza hauek, aldiz, ez ziren bete Administrazioaren abaguneko arazoengatik eta, horrenbestez, proiekta alde batera utzi da.

### 2.2.5

### GESTION 16-65

Helduentzako 2. L.H. egiteko interesa izan zezaketen gutxienezko pertsona-kopurua lortzekotan, Irun eta Errenteriako H.H.I.ko Ikasle Elkarteen baterako aurre-inkripzio bati ekin zitzaion 1993ko ekainean.

---

Burututako heziketari buruzko datuak bildu ziren, bai eta hobetsitako espezialitateei, ordu baliagarriari, joan-etorriak egiteko eta jarraitzeko aukerei nahiz norberaren gora beherei eta harremanetarako telefonoari buruzkoak ere.

Aurreneko datu-bilketa honek proiektua eskualdeko gainontzeko tokietara hedatu eta serio-ski ezagutaraziz gero izan zezakeen eragina erakutsi zuen. Nolanahi ere, Elkarteko ikasle batzuren iritzia jaramon eginez, Irungo Gabinete Gestión 16-65 delako partikularrarekin harremanetan jartzea komeni zela erabaki zen. Kabinete hau heziketa eta lan Orientabidean aditua da eta eskualdeko Udalekin eta Diputazioarekin aritua zen baterako proiektuetan. 2. mailako L.H. helduentzat ere zabaltzeko proposamenari Delegazioak emandako behin-behineko ezetzaren ondoren, kabinetea honek bere elkartasuna adieraz zion talde honi, erantzun baten zain zegoen taldeari alegia. Azterketa sakonagoa egin beharra zegoela ikusi zuten, igurikapenak nahiz ezaugarri bereziak oso heterogenoak zirenez, irtenbideek ere egokituagoak behar zutelako.

Azterlan honek Desdoikuntza hitza nabarmendu zuen, lan merkatuaren, heziketa eskaintzaren eta egoera pertsonalaren arteko desdoikuntza alegia.

Nolabait ere, Lanbide-orientazioaren zentzua kolokan jartzen lagundu zuen.

Azterlan honen ondorioak ezin izan dira abiarazi baliabiderik eta kudeatzailerik eza delata.

## **2.2.6**

### **FAMILI ETA GIZARTE HEZIKETAKO IKASTETXEAK**

Famili eta Gizarte Heziketako IKastetxeak eta H.H.I. bata bestearengandik oso gertu izan dira, hala eskumenei dagokienez, nola darabiltzen biztanleriaren ezaugarriari dagokienez. Bietako bat izan da irtenbideetako edo abiapuntuetako bat.

Lehen aipaturiko azterlanean agertzen zenez, Geriatriako Ikastaroak egiteko eskari konkritua nabari zela eta, ikastetxe hauekin harremanetan jarri zitzairen, Donostian ikastaro bat abiatzea lortu zela.

Halako irtenbide puntualak interesgarriak dira baliabideak aprobetxatzen diren aldetik, baina, azken finean, heziketa-lan arloko irtenbideei dagokienez, Eskualde mailan Egitarau Bateria ez dagoela erakuts dezakete.

## *Lanbide-orientazioa lan konkretua ikastetxean*

Errenteriako H.H.I.ko Ikastetxean, gainontzekoetan bezalaxe, ikasleen lan etorkizunarekiko sentiberatasun berezia nabari da, zeren, oinarritzko heziketa-prozesuan aurrera egin ahala, ardura hori gero eta kezagarriago bihurtzen baita.

Elkartea erakunde desberdinekin harremanetan jarri eta helduaren errealitatea ezagutzeko abiapuntua izan da. Hala ere, Lanbide-Orientazioak etorkizuneko P.E.C. eta P.C.C. direla-koen funtsezko atala izan behar du. Helduen Hezkuntzan oraindik mugatu gabe daude hurrengok: Turorea, Orientatzailea eta Aholkularia.

Oraingoz ezin esan daiteke HHlean benetako orientazio-lana egin denik, baina, nolana ere, ekintza puntualak eta bateratu gabekoak burutu dira, nolabait

- Orientatu;
- Aholkatu, eta;
- Informatu nahian.

Ekintzak hurrengotara bideratu dira:

- Lanbide Heziketako ikastaroei nahiz erakundeei buruzko argibideak etengabe eskaintzera ikastetxeko ikasleei nahiz bertaritzen direnei.
- Hezkuntz sistema berriei (L.O.G.S.E., MODULUAK, E.S.O. ...) buruzko informazioa-orientazioa (oinarritzailea).
- Erakundeekiko harreman iraunkorrak, egitarau konkretuei (langabezia luzaerak, gazteak, lanean ari direnak...) buruzko argibideak eta haietan parte hartzeko aukeren berri izateko.
- Eskola-Graduatua edo 1. L.H. duten Irun-Errenteria eskualdeko biztanleen ezaugarriari, igurikapenei eta egoera sozio-laboralari buruzko azterlan bat egitera.
- Administrazio eta Osasun Laguntzaileen adarretako 1. L.H.ko proba librerako ikastaroak antolatzea.
- Eskariaren zati bat Famili eta Gizarte Heziketako Ikastetxeetara (Geriatría ikastaroak) eta Diputaziora (Hezilan) zuzendu-desbideratzea.

## 4.

# *1 L.H.ko prestakuntzako kurtsoei buruzko kritika*

### 4.1

#### ALDERDI NEGATIBOAK

- Ikastetxeko ohizko ikasleak erritmoari jarraitzeko arazoak ditu. Azken azterketa egitera beste toki batera joan beharrak nekatu egiten du.
- Irakaslea ikasgai-multzoa oso-osorik eman beharraz presionaturik dago.
- Administrazio eta osan laguntzaileen adarrak prestatzen ari dira, hau da, lan merkatuan ia tokirik ez dutenak.
- 2. L.H.ri jarraitzen diotenak oso gutxi dira, ia batere ez.
- Irakasle laguntzaileek ez dute ikasle hauentzako orientabide pedagogiko berezirik. Profesionalak dira.
- Ikasle berriak ez dira erabat sartzen ikastetxeko dinamikan. Behin-behinekoa balitz bezala sentitzen du bere burua (Akademietan bezala).

### 4.2

#### ALDERDI POSITIBOAK

- Eskola Graduatuari jarraipen bat emateko aukera ahalbidetzen du. (Edukinak berrikusi eta sakonago aztertzen dira).
- Ikusmolde autodidaktagoa.
- Oposaketak egin edo lanpostu batera heldu ahal izateko titulu bat lortzeko prestakuntza ematen du. Gauza konkretu eta praktikoa denez gero, absentismoa gutxitu egiten da eta taldeak homogenoagoak dira.
- Helduaren astiari eta ekonomiari egokitzen zaie.
- Helduen Ikastetxe batean ematen dira. Horrela, bestelako jardueri ere hel dakieke, informatika, mekanografia, txangoak, hitzaldiak eta abarrei, eta garrantzitsuagoa dena, antzerako egoeretan dauden beste pertsona batzurekin harremanak izan daitezke.

H.H.I.ko IKASTETXEETAN HELDUAK BABESA DUELA, ENTZUTEN ZAIOLA ETA, ORO HAR, BERARENGANAKO ARRETA SENTITZEN DU.

---

5.

## *Gogoeta egiteko egoerak*

- Graduatua egina izanik, ahaztu egin dutenak baina birziklaketari eutsi nahi dioten ikasleak.
- Berdin die osasun adarra nahiz administraziokoa aukeratzea (orientazio-informaziorik eza).
- "Zenbat eta titulu gehiago eduki, orduan eta lan aukera gehiago izango ditut" "Inemeko, Diputazioko ikastaroak ez dira homologatuak, ez dizkizute aitortzen".
- "Ezin dut ikastaroetara joan, ez baitut lan esperientzairik". "Ez dirurik, ez astirik" (Merkatu beltza, familiarekiko betebeharrak...?)
- Etorkizunean, hirugarren eta laugarren sektoreak (aisia, kultura...) hazi egingo dira. Berrietan, giza-kualitateak ikasketak baino garrantzitsuagoak dira.

---

## 6.

# *Orientazio zerbitzu bat* *H.H. Jean*

Hiru arlo hauek egokitu beharko lituzke:

- heziketa maila;
- lan merkatua;
- egoera pertsonala.

## 6.1

### HEZIKETA MAILA

### 6.1.1

#### HELBURUAK

- Dagoen heziketa eskaintzari dagokionez, eskatzen diren heziketa mailak eta lortu nahi diren helburuak etengabe ezagutzea.
- Ikastetxeko klaustroari edo organo betearazleari aholkuak ematea, P.E.C. eta P.C.C. direlakoak prestatzerakoan.
- Eskualdeko heziketa-baliabideen eta lan praktiken koordinazioa ahalbidetzea.
- Helduen Hezkuntzan laguntzen duten eskualdeko Batzordeetan eta erakundeetan parte hartzea.

## 6.2

### LAN MERKATUA

### 6.2.1

#### HELBURUAK

- Lan merkatuko eskakizunak ezagutu eta ikasle interesatuari jakinaraztea.
- Ikasle-langilearen benetako beharrianak eta gaitasunak lan merkatuaren eskarira egokitzeko aukera ematen duten modulu orientatzaileak sortzea, irakasleei nahiz ikasleei zuzenduak.

- 
- Ikasle bakoitzari dagokion "curriculum-ibilbidea" prestatzea, bere beharrianei egokituriko eskaintza aurkeztuz (denboralizazioa, maila, ikasteko erritmoa, trebetasunaren garapena, ikastetxeak, enpresak...)

## **6.3**

## **EGOERA PERTSONALA**

### **6.3.1**

### **HELBURUAK**

- Ikasleari zuzendutako aholku, informazio eta orientazio-lana burutzea.
- Ikaslearen irudia hobe dezaketen autoestimazioan, motibazioan, gizarte harremanetan oinarritutako garapen pertsonala bultzatzea.
- Lan merkatura heltzeko oztopoak gainditzeko beharrezkoak diren baliabideak sortzea, autoenplegua baztertu gabe.